

Irabazteko gidalerro bila

Directrices para vencer

Lignes directrices pour gagner

Guidelines to win

HIDALGO, Bittor
Soziolinguista eta Euskal Filologian doktorea

Noiz jaso: 2017-03-10
Noiz onartua: 2017-07-17

Euskera. 2016, 61, 2. 241-373. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskaldunon komunitate-adjektiborik-gabea definitu, irabazte kontzeptua eztabaidatu erdal(dunen) komunitatearen aurrean eta 3 gidalerro proposatzen dira: 1. Demokrazia linguistikoa, eta ondorioz erdal(dunen) komunitateak derrigor euskara ikasi beharra; 2. Intsumisio linguistikoa bidean; 3. Ingelesa aliatu baliatu –ez etsai– espainola/frantsesa gainetik kentzeko. Arnasgune pertsonalen indarra/beharra aldarrikatzen da eta hiri(buru)ak irabazteko estrategia, eta espres eztabaidatu nekazalgune-idiliko-inola-ez-baztertuen arnasgune ahuldadeak –Irlandako esperientziak eta Euskal Herriko datuak lagun–.

Hitz-gakoak: Euskaldunon komunitatea, irabazteko estrategia, demokrazia linguistikoa, intsumisio linguistikoa, ingelesa, arnasgune pertsonalak, hiriak irabazi.

Definir el concepto de comunidad euskaldun sin adjetivos; debatir el concepto *ganar* ante la comunidad *erdaldun*; para ello se proponen 3 directrices: 1. Democracia lingüística, lo que conlleva que los erdaldunes han de aprender euskera; 2. Insumisión lingüística como camino; 3. El inglés como aliado -no enemigo- para amortiguar el peso del castellano/francés. Se reclama la fuerza y la necesidad de los espacios vitales personales del euskera, así como la estrategia para que el euskera *gane* las ciudades. Discutir expresamente la idea de los idílicos espacios rurales (de ninguna manera aislados) como oasis de la lengua vasca, utilizando para ello las experiencias de Irlanda y los datos que se dan en Euskal Herria.

Palabra clave: Comunidad euskaldun, estrategia para ganar, democracia lingüística, insumisión lingüística, lengua inglesa, fortalezas personales, ganar las ciudades.

Définir le concept de communauté euskaldun (bascophone) sans adjectifs ; débattre sur le concept *gagner* face à la communauté *erdaldun* (non bascophone) ; on propose pour cela 3 lignes directrices : 1. Démocratie linguistique, ce qui sous-entend que les non bascophones doivent apprendre le basque , 2. Insoumission linguistique comme voie ; 3. L'anglais comme allié –non ennemi– pour amortir le poids de l'espagnol/français. On revendique la force et la nécessité d'espaces vitaux personnels pour le basque, ainsi qu'une stratégie à mettre en place pour que le basque gagne les villes. En discuter l'idée d'espaces ruraux idylliques comme (en aucune façon isolés) oasis de la langue basque, en utilisant pour cela les expériences de l'Irlande et les données du Pays Basque.

Mots-clés : Communauté euskaldun, stratégie pour gagner, démocratie linguistique, insoumission linguistique, langue anglaise, forteresses personnelles, gagner les villes.

Defining the concept of the *euskaldun* (Basque-speaking) community without adjectives; debating the concept of *winning* over the *erdaldun* (non Basque-speaking) community; to this end 3 guidelines are proposed: 1. Linguistic democracy, which means non Basque-speakers should learn Basque; 2. Linguistic refusal as a path; 3. English as an ally – rather than an

enemy – to counteract the weight of Spanish and French. The strength and necessity of the personal life spaces for the Basque language are highlighted, as well as a strategy for Basque to *win* the cities. It explicitly rejects the idea of idyllic country areas as (no way isolated) an oasis of the Basque language, using the Irish experience and the data existing in the Basque Country in this respect.

Keywords: Basque-speaking community, strategy for winning, linguistic democracy, linguistic refusal, English language, personal strengths, winning the cities.

Sarrera

Nik hemen aipatuko ditudanak baino auzi gehiago dira kontuan hartu beharrekoak datozen urteetako euskalgintzaren dinamikak bideratu ahal izateko ahalik eta modu eraginkorrenean. Baina nik hiru gidalerro nabarmendu nahi nituzke, nire ustez garrantzitsuenen artekoak izan litezkeenak, maiz ahaztuxeak-edo sentitu ohi ditudanak gure artean, eta agian horregatik irudi lezaketanak berritzaileago, ezohikoago, *epatanteago* agian lehen une batean, baina horrexegatik merezi duketenak seguru asko gure arteko eztabaida eta aktibatze berezia. Hiru gidalerroak labur:

1. Euskaldunok **demokrazia linguistikorako eskubidea** dugu gure lur-rean.
 - Gutxienez, erdaldunek duten adinakoa.
 - Eta horretatik, gure lurreko komunitate erdaldun osoak **euskara jakitearen/ikastearen derrigorrezkotasuna**.
 - Guk ere lasaitasunez jardun ahal izateko euskaraz nonahi gure lur-rean.
 - Gutxienez, komunitate erdalduna gurekin erdaraz lasai jardun eta bizi litekeen moduan.
 - Bitartean, **eragin eta diskriminazio positiboaren ezinbestekoa** euskaldunon komunitatearen eta euskararen aldeko.
2. Euskaldunon komunitatearen **intsumisio linguistikoa** garatu beharra erdal komunitatearen aurrean, komunitate gisa, inoiz geureganatuko badugu dagokigun demokrazia linguistiko hori.
3. **Ingelesa geure laguntzan** erabiltzeko aukera.
 - Behingoz geure gaintik baztertu ditzagun azken 300-500 urtean irensten ari gaituzten frantsesa eta espainola.
 - Gure aliatu gisa baliatu ingelesa, munduko harremanetan gaur egun nagusi den hizkuntza.

Kexatu, ala irabazi?

Hasteko nahi nuke artikulua izenburuko *irabazi* hori argitu. Ezen bat izan litekeen lizentziadun, ikertzaile, doktore..., filologo, hizkuntzalari, soziolinguista, ..., eta denetan ere profesionalago edo amateurrago..., edo ez hain. Baina nire bizitzako euskararen inguruko jardun guztiak izan du euskaltzaletik, amateurretik hitzaren jatorrizko esanahi osoan. Ez da neutrala. Eta gutxiago, euskaldunon inguruko soziolinguistikaz ari bagara¹.

Zergatiak asko interesatzen zaizkit. Ahalik eta zuzenen eta zehatzen ezagutu eta ulertu, nola, nondik eta zergatik iritsi garen izatera gaur egun garen euskaldunon komunitate gutxitu hau, heriotza aurreko herstura egoera preziso honetan –eta ez beste batean– gaudenak. Ez ordea kexatzeko. Edo balizko kulpadunak bilatu, estigmatizatu eta gurutziltzatzeko... Zeinahi egoerak ditu hamaika aurrekari, eta soilik hauek zehatz eta zabal ezagutzeak lagunduko digu auziaren diagnostiko ahalik zuzenena egiten, ondorioz ahalik eta irtenbide gauzagarrienak aurkitu ahal izateko gure gaur egungo euskaldunon komunitateak ahalik eta azkarren eta sendoen utzi ahal izan diezaiogun agonia arrisku larrian dagoen komunitate gutxitu izateari. Eta ez da erraza, eta ez da erraza izango. Baina posible bada. Irabazi, ahal dugu. Eta saiatzea merezi du. Niretzat. Ni ez naiz neutrala halako ataka batean, eta irabazi nahi dut.

Kontua da asmatzea NOLA irabazi. Jakinik, alde zuzenetik ez dagoela formula magikorik, bidean behin baino gehiagotan erratu gaitezkeela, eta gure pausoak behin baino gehiagotan birpentsatu beharko ditugula. Baina jakinik ere, lortzez gerotan, soilik gure gaur egungo euskaldunon komunitateak lortu genezakeela miraria, munduan hainbeste direnean desagertzeko arriskuan diren hiztun komunitateak.

Zenbaiti harroputz iruditu lekiok *irabazi* hitza aipatzea gaurko egoeran. Ordea, garrantzizkoa da *irabaztearen* kontzeptua. Helburua garbi behar dugu. Ez dugu nahikoa gure patu beltzari negarrean ibiltzea. Zorionez kontuak ez

¹ Eta hala, artikulua honek berak maiz hartu lezake / hartuko du akademikotik haragoko moldea, baina ezinbestekoa iruditu zaidana gure komunitatearen bizirauteaz ari garenez... eta ni tarteko zurrumbiloan...

dirudi nirea bakarrik. Ezin pozago entzuten nion Kike Amonarrizi, Topalabea taldeak (*Euskaltzaleen Topagunearen* eskaeraz 2015ean prestatu *Berrikusi eta Berrikusi* (Topalabea taldea [Euskaltzaleen Topagunea], 2015) dokumentuaren aurkezpenetako baten sarreran Gasteizen –non eta Gasteizen!– (Topagunea [Euskaltzaleen Topagunea] - Geu elkarte, 2015), nola dioen aditzetako bakoitza azpimarkatuz: [*Dokumentuak*] *loritu nahi duena da [...; madarikazio pare bat], [dokumentuak] esan nahi du, elkartu, aktibatu, aurreratu, eta irabazi*².

Aipatu hiru gidalerroen azalpenean abiatu aurretik ordea, oinarrizko bi galdera egin nahi nituzke gure arterako eta hauen erantzuna ahalik eta garbien izan dadin saiatu, berez erantzun bat baino gehiago izan lezaketelako eta izan ohi dutelako gure artean:

1. Batetik, hasterako, garbi izan beharko genukeelako guretzat **zer izango litzatekeen irabaztea, zer izan litekeen, zer izango den irabaztea**.
 - Gure ibilbide orria / errepide mapa diseinatzeko, non gauden zehatz jakitea bezain garrantzizkoa baita jakitea, bidegalduan ibiliko ez bagara, nora goazen, nora iritsi nahi dugun, nora iritsi ahal gaitzekoen. Eta ez dakit batere garbi dugun hain oinarrizko abiapunturik. Ez dut uste inoiz lasai eztabaidatu dugunik ere.
2. Bestetik, abiatzerako ere, garbi eduki behar dugu *–boutadea* irudi lezake–, **nor garen gu. Irabazi nahi/behar omen dugun horiek. Zein komunitate garen gu**. Eta uste dut kontzeptu hau ere ez dugula batere argi gure artean. Gutako bakoitza aldi berean sentitzen gara eta gara hainbat komunitateren kide. Baina, **zein da gure komunitatea, euskal hiztun euskaltzale gisa?** Ezen, komunitate horretaz ari gara, hala ezta?

Galderak argiak dira eta ni nire erantzunak ematen saiatuko naiz, lehenik bigarren galderari, gero lehenari heltzeko. Baina nire ikuspegiarekin bat

² Hitz horiekien amaitzen du Amonarrizek bere sarrera, *Hori da guztia!*-edo esan nahi lezakeen esku mugimendu eta begirada batez. Eta 5 segundoko isilune tentea zabaltzen da giroan konjuru baten ondorena balitz moduan edo *–A! Irabazteaz jardun behar al dugu ba? Ez al ginen ba betiko lez arazoez aritzeko?–*, aurkezleak erreakzionatu eta hala-hola esaten duen arte: *Ondo! Sarrera moduan jarriko dugu [irabaztearena?], bai? Gero sakonduko dugu [bada-eta nonbait non sakondua...]*.

egin edo ez, garrantzizkoa irudituko litzaidake gutxienez bi puntuen gaineko eztabaida haizatzea.

Ezen gu gara euskaldunon komunitatea

Nik hala izendatuko bainuke gurea: *Euskaldunon komunitatea*. Nolabait *euskaldun bihotzekoon* edo *euskal hiztun euskaltzaleon komunitatearen* labur edo. *La Communauté Bascophone* izan liteke frantsesez. *La comunidad vascófona / vasco parlante...* espainolez. Izen aukeratzailerik hobeak izan litezke, baina nik uste dut garbi komeni zaigula *gure komunitatea* definitzea ondoko hiru ezaugarri eta interesaren bueltan:

1. Euskara jakinda,

2. Euskaraz bizi nahi,

–eta ahalean–

3. Euskaraz bizi garenon komunitatea.

Gure inguruan maiz darabiltzagu halako ezaugarri linguistikorik gabeko *komunitate* izendapen etereoagoak: *Euskal Herria*, *Euskadi*, *euskaldunak*, *euskal herritarrak*, *l@s vasc@s*, *les Basques*, *euskal hiztunak*³, *euskal komunitatea...*, *abertzaleak*, *herria* sinekdoke mitifikatu... Beharbada zehaztasun linguistikoa *gogorregia* iritzita gure egoera gutxituan, benetan zenbat garen argiegi jakin nahi ez edota erakutsi beldurrez...

Baina gure hiztun komunitatearen / hizkuntzaren arazoari behar duen neurrian heldu ahal izateko, uste dut ezinbestekoa dugula gure komunitatearen mugatze linguistikoko huts hori izatea buruan. Eta hizkuntza mugatze hori gainera, beste adjektibo zehaztailerik gabea. Ez ezker, ez eskuineko; ez

³ Azken 40 urtean horrenbeste ugaritzea lortu dugunak -EAEn batez ere-, eta ezin bereziago eskertu behar ditugunak gure komunitatera hurbiltzeko egin duten ahaleaginean gure hizkuntza ikasita. Baina aldi berean eskubide osoa dutenak beste hiztun komunitate baten parte ere sentitzeko, eta ez ezinbestean *euskaldunon komunitatearen*. Azken batean legeak behartuta, guk ere ikasi behar izan ditugu espainola / frantsesa, haien komunitatearen parte sentitu zein ez.

fededun, ez fedegabe⁴; ez ekologista, sozialista, kapitalista, feminista... Gutako bakoitza zernahi izan gaitzke, bat ala beste, askatasun osoz. Baina adjektibo orokortzaile guztiak dira euskaldunon komunitatearentzat murriztaile eta diskriminatzaile, diren politenak direla ere. Eta nahi ala ez, euskaldunon komunitatea txikia bezain plurala gara –beste guztiak bezalatsu–, hala izan gara beti, eta hala izaten jarraitzea komeni zaigu. Ez genuke nahi inor guganik urrundu fedeen gorabeheran, euskara jakinda euskaraz bizi nahi eta ahalean euskaraz bizi denik⁵.

⁴ *Euskaldun, fededun*. Zaila da jakiten azken mendeetan euskaldunon komunitatearen inguruan modernitatearen aurka jositako binomio horrek kalte edo mesede egin digun, edo kalte bezain mesede, gaur egungo egoeraraino iristeko (ik. besteak beste, Altuna, 2003). Zaila den bezala jakitea zenbaterainoko mesedea eragin digun (edota zenbaterainoko kaltea) XX. mendearen bigarren erdian bilbatu den *euskaldun, ezkertiar antisistema* loturak (beti oroitzen dut X. Leteren 1977ko *Teologia, ideologia* kanta gogoangarria). Garbi dudana da XIX. mende amaiera eta XX. lehen erdiko *euskaldun, fededun* binomioak erraz uxatzen zituela gureganik *modemotasun zale fedegabeak*, gaur erraz uxatu ditzakeen bezala *ezkertiar antisistemaren fedez* bat egiten ez duten –ez dugun– herritarrak.

⁵ Gure komunitatearen garapenerako guztiz kezkarriak iruditzen zaizkidan bi alderdi zehaztu nahi nituzke:

1. Batetik, azken 50 urtean garatu den *euskaltzale = ezker abertzale* herri-identifikazio ezin murriztaileagoa, neurri desberdinetan bada ere Euskal Herri osoan gertatzen dena.

Maila politikoago edo instituzionalago batean, funtzionatzen du ere *euskaltzale = abertzale* identifikazio simpleagoak –identifikazio nahikoa objektiboa bestalde, salbuespenak salbuespen–. Azken finean ez baita identifikazio identitarioa baino, *euskaltzale = Euskal Herri zale*, irauteko ezinbestekoa duguna. Oxala jadaneko betea bagenu alderantzizko identitatea *abertzale = euskaldun = euskaltzale!* Eta badugu denok ere zer jorratua arlo honetan.

Euskaltzale = ezker abertzale identifikazioa nahikoa murriztaileagoa da –oso bereziki *ezker abertzaleak* bere burua antisistema gisa agertzen jarraitzen duen bitartean–, baina guztiz ohikoa da gaur egun gure jendearen artean. Eta ez da ere harritzeko, urtetan batez ere ezker abertzalearen inguruko herritarrak izan direnez euskararen alde batere mugitu direnak instituzioetatik kanpo (nahiz instituzioetan ere mugitu). Gaur egun ordea, behin *erakunde armatuaren* kontua bukatzeaz edo bukatua dela, eta ezker abertzale osoa birpentsatze eta berreratze prozesuan, ezin aukera hobea genuke identifikazio horren gainetik abiatzeko, eta oso bereziki euskalgintzaren erakunde asko –orain artean ezker abertzalearen barruti-edo izan direnak–, ez desagerrarazteko edo instituzionalizatzeko, baizik eta zabaltzen joateko esparru ideologiko horretatik kanpoko euskaltzaleak ere biltzen saiatuz, instituzioetatik kanpo (ere) ezinbestean jarraitu behar dugun lanetarako.

Orain arte ordea ez zait iruditu ezker abertzaleak batere interesik erakutsi duenik urteen poderioz euskalgintzan lortu dituen boteregune horiek irekitzen. Ezker abertzalearen estrategia,

itxuraz aldatze garaian izan arren ere, iruditzen zait oraindik oso estrategia zorrotza duela diseinatua euskalgintzaren inguruko gune horiek guztiak kontrolatzen jarraitzeko, botere propio, kontra-botere gisa.

Horregatik, azken boladan horrenbeste aipatzen den *euskalgintzaren krisia* daukat nik ez ote den ezker abertzalearen kontrolpeko euskalgintzaren krisia baino, eszena politiko berrian jokaleku berria aurkitu nahian bere botere kontra-botereak galdu gabe. Bestelakoan euskalgintza beti izango gara krisian. Nola ez?! ... desagertzeko zorian gauden komunitate batean... irabazten dugun arte behintzat.

2. Bestetik ordea, non dira, non gaude, ezker abertzaleko sokakoak ez garen euskaltzaleak? Eta non dago EAJ, beste erakunde politiko abertzale euskaltzale nagusiko jendea? Erakundeetan? Eta erakundeetan bakarrik? Zein euskalgintza lan propio garatzen du EAJk, berak kontrolatzen dituen erakundeetatik kanpo? Eta bere inguruko jendearen artean? Niretzat nahiko inkognita dira.

Eta EAJren izenean erakundeetan daudenak ere, zergatik daude? Beren euskaltzaleatasunagatik? Aurreko atalean aipatu dugun erakundeetatik kanpoko euskalgintzak garatzen ez duen *euskaltzaleatasun irekia* bultzatzeko? Edonola ere, bi kontu erakundeetako lanaren ingurutik:

1. Erakunde ofizialak ez daudeke beti euskaltzaleen esku. EAEn Hezkuntza ere urte askoan egon zen PSEren esku, eta ziur oraindik ere badugula zer hausnartua garai horietako ondorioez. 2009tik 2012ra PSEk izan zuen EAEko gobernua bere esku PPren laguntzaz. Lehenago garbi ez bageneukan, argi konturatu behar genuen orduan EAEko erakundeek joko ere ez dela errenta. Ordea, egiten al du beste ezer EAJko euskaltzaleatasunak erakunde ofizialetatik kanpo? Euskarazko zenbat egunkari, aldizkari, irrtati, erakunde, talde, enpresa... sustatzen ditu erakundeetatik kanpo bere jardun arruntean? Zergatik uzten bide du eremu hori guztia besteen borondateen esku? Lo dago euskaltzaleatasuna EAJn? Ez dago nahikoa euskaltzaleatasunik EAJn? Beraiek erantzun beharko lukete.
2. Gobernu demokratiko batek, eta honen erakunde ofizialek, herrialdeko herritar guztiak gobernatu behar ditu. Ez bakarrik bere aldeko direnak, maiz bestela irudi baleza ere. Gobernuan d(ir)en partiduak(/ek) herritar guztiei eman behar die(te) zerbitzu, ez bakarrik bere sokakoei, nahiz partidu batzuen eta besteen gobernu moduak ez duten horregatik zertan berdinak izan –eta ez dira–. Baina joko demokratiko horren arau, partiduek ezingo dituzte / lituzkete beste gabe bat-batean ezarri beren programa *maximoak* –programa *maximoak* dituztenek behintzat, denek ez baitute edukiko–. Benetan gauzatuko dituzten politikak desio baino *epelagoak* izango dira, behintzat *mailakatuagoak* izan beharko lukete beraiek berez nahi luketena baino. Zein da ordea EAJk euskaldunokiko/euskarekiko duen programa *maximoa*, bere *nahia*? Badu halakorik?

Eta, EAJ eta ezker abertzalearen itzaletik kanpo mugitzen diren/garen euskaltzaleek, erakundeetatik kanpo, zein ekimen antolatu daramagu aurrera, norberaren jardun pribatuaz-edo gain, euskaldunon komunitatea indartzeko aldera, eta bereziki ezker abertzalearen guardasoleatik kanpo geratzen garenon euskaldunon komunitatea sendotzeko aldera? Orain chun urte *euskaldun fededun*ez kanpo ez zen euskaltzale antolaturik. Orain ere berdin? Eus-

Halako definizio linguistiko batek nolana ere ez luke inola ere esan nahiko –esan nahi izan beharko–, eta azpimarratu behar da:

1. Ez euskaldunon komunitateak beste hizkuntzarik jakin nahi ez dugunik, ezta erabiliko ez dugunik ere hala komeni zaigunean.

Gu bezalako komunitate txiki bat, ez gaur egun, ez oso aspaldi batean, ezin da elebakarra izan, ezerezean desagertuko ez bada. Mundua ez da euskaraz mintzo, ez mintzoko. Eta guk, gure lurraldeaz gain, mundua ere bizi nahi dugu / bizi behar dugu. Orain, eta dakigunean, azken 2.000 urte eta gehiagoan ere bai. Eta horretarako ezinbestean baliatu ditugu beste hizkuntzak, dela latina, direla geuk sortu edo sortzen lagundu ditugun gaskoi eta gaztelania, edo azkenik gure etsai orojale bihurtu zaizkigun espainola eta frantsesa ere, denak ere *munduratzeko* tresna gisa erabili ditugun neurrian, eta hala euskaldun iraun ahal izateko ere⁶.

2. Ez du ere esan nahiko, aipatu ditugun gure inguruko beste *komunitateetako* kideak ere –*abertzaleak, euskal herritarrak, euskal hiztunak, baskoak...*–, bidelagun izan ezin ditugunik edota baztertu behar ditugunik euskaldunon komunitatearen eskubide demokratikoen alde egiteko dugun ibilbide nekezean. Elkarrekin ditugun interesak elkarrekin defendatzea komeniko zaigu. Garbi edukita beti zein den komunitateetako bakoitza, eta bereziki *gure komunitatea*.

Euskaldunon komunitatea eta erdal(dunen) komunitatea

Ordea, euskaldunon komunitatea linguistikoki modu horretan definitzea erabakitzen baldin badugu, aldi berean onartu beharko dugu bere gordinan

kaldun fedegabeak, babesik, antolaketarik gabe, sakabanaturik, galtzeko arriskuan jarraituko dugu. Inork egin beharko genuke zer edo zer. Edota benetan da bakarrik ezker abertzalea gauza euskaltzaletasunarekin aurrera egiteko?

⁶ Gaur egun, gure zorionerako, mundura irteteko ez ditugu jada ezinbesteko espainola eta frantsesa, eta erne jokatzan badugu, ingelesa erabili ahal dugu gure laguntzan, horren estu itotzen gaituzten espainola eta frantsesa egunetik egunera gero eta gehiago baztertu ahal izateko gure bizitzetatik (ik. ingelesari eskainitako 3. atala).

guk aurrez aurre daukaguna dela Euskal Herrian bizi den *erdal(dunen) komunitatea*. Ez gugandik haraindiko nolabaiteko mugez bestaldekoa (bakarrik behintzat), baizik eta egunero gure ondoan dagoena, gure artean bizi dena, eta egunero bere laguntza aktiboan dituen Espainiako/Frantziako estatu egitura erdaltzaleak, eta egunero sostengu eta bultzada ezin sendoagoa hartzen duena mundu osoko frankofonian –284 milioi hiztun– / hispanofonian –567 milioi–.

Gogorra irudi lezake hala esatea, anatema, sakrilegioa, aipaezina..., giza eskubideen aurkakoa... Baina hala da. Guk aurrean daukaguna da gure arteko komunitate erdaldunen inertzia –besteak beste–. Eta gure arteko erdal(dunen) komunitate hori dira, *mutatis mutandi*:

1. Frantsesa/espainola jakinda,
2. Frantsesez/espainolez bizi nahi,
–eta ahalean–
3. Frantsesez/espainolez bizi direnak gure artean.

Hauek bai komunitate irekia, ezkerrekoak edota faxistak, Espainia/Frantzia zaleak zein abertzaleak, elizkoiak ala paganoak, ekologistak, feministak, antikapitalistak... eta kontrakoak...

Ordea ba al du –eduki behar ote luke– erdal(dunen) komunitate horrek eskubide linguistikorik Euskal Herrian?

Galderak galaktikoa irudi lezake gaur egungo egoeran, tranpatia, erdal komunitate frantses/espainola bere eskubide guztien jabe denean Euskal Herri osoan, eta euskaldunon komunitatea gutxitua gure lurrean. Baina uste dut ezinbestekoa dela gure artean galdera egitea:

- Badu erdal komunitateak zilegitasunik bere eskubide linguistikoak defendatzeko Euskal Herrian?
- Onartu behar al zaizkio eskubideok?
 - Azken batean..., ba al du erdal komunitateak eskubide legitimo-rik gure artean bizitzeko?

Galderari ematen ahal diogun erantzunaren arabera, guztiz helburu desberdinak ezarriko ditugu gure *irabazteari* begira.

Eta nik uste dut –nahita ere ezin kenduko genizkioke–, baina erdal komunitateak *ere* badituela / eduki behar dituela eskubideak gure lurrian, lur hau berea *ere* den neurrian, bertan hamarkadak eta mendeak daramatzate-larik finkatuak, direla kanpotik etorriak, direla bertako euskara galduak.

Orduan, zer izango litzateke euskaldunon komunitatearentzat irabaztea?

Behin argi finkatuta euskaldunon komunitatearen eta erdal(dunen) komunitatearen subjektuak, errazago abiatu gintezke pentsatzen zer izan litekeen, zer izango litzatekeen guretzat *irabaztea*.

Besteren artean, ondoko bi erantzunetako bat izan liteke gurea:

1. Pentsatu genezake guretzat *irabaztea* izango dela euskaldunon komunitatea euskaraz eroso bizi ahal izatea Euskal Herrian.

Aukera bat da. Euskaldunon komunitatea baldin bagara euskaraz bizi nahi dugunak, eta horretarako eskubidea *daukakegunak*, guk behintzat euskaraz eroso bizi ahal izatea lortu beharko dugu Euskal Herrian⁷.

Beste kontu bat da gero zehaztea hori nola lortu litekeen. 1. ataletik aurrera jardungo dugu horretan.

⁷ Abiadako axiomatzat eman dugu artikuluan gaur egungo zazpi herrialdetako Euskal Herria dela euskaldunon komunitatearen lurraldea. Hori ere jarri liteke zalantzan. Nafarroa Garaiko hegoaldean gaur egun ez dirudi erraza litzatekeenik bertako biztanleek gehiengoz halakorik defendatzea. Iruñean bertan eta are iparraldeko Nafarroa Garaian ere asko dirateke seguru asko halako definizioen etsai. Araban eta Bizkai mendebaldean ere izan litezke gorabeherak. Bitxiki, beharbada ez legoke halako definizio arazorik Iparraldean, nahiz beste guztirako arazoa baino ez izan. Ez gara hemen eztabaida horretan hasiko. Beste ezpál bateko eztabaida historiko edo juridiko luzeetan sartu beharko genuke. Nolabaiteko abiadako kontsentsutzat emango dugu zazpi lurraldetako Euskal Herria –edo hainbat samur iritsi ahal izango litzatekeen kontsentsutzat behintzat, termino, neurri eta baldintzapen batzuetan bederen–, eta oinarri horretatik abiatuko ditugu gure proposamenak.

2. Beste erantzun posible bat izan liteke pentsatzea guretzat *irabaztea* izango dela Euskal Herri osoan herritar guztiak euskaraz bizi garen eguna.

Eta berau ere izan genezake –edo dugu askok– zilegizko desira⁸. Tar-tean leudeke ordea erdal komunitatearen eskubideak.

Eta inoiz ahal izanez gero ere, ba ote genuke guk eskubiderik erdal komunitateari euskaraz bizi beharra inposatzeko Euskal Herrian?

Nire ustea da bigarren aukera izan litekeela gure *desideratuma*. Baina demokrazian, berau gauzatzeko erdal komunitateak bere borondatez onartu beharko lukeela euskaraz bizitzea, eta hala finean desagertzea ere *erdal* komunitate gisa. Baina *erdal* komunitate gisa desagertu nahiko ez balu, eta bere artean euskaraz bizi nahiko ez balute, ez zait iruditzen guk zilegitasun handirik genukeenik halakorik ezartzeko beren borondatearen kontra. Ala bai? Sartu gintezke diktadura aukeren zilegitasunen eztabaidan... Baina halakoak beste bisaia bateko kontuak dira, zoritxarrez euskaldunon komunitateak oso hurretik bizi ditugunak oraindik orain.

Bigarren aukera alde bat utzita ordea, helburu lorgarri eta lortu beharrekoa iruditzen zait lehenengoa, oinarritzkoa eta ezinbestekoa: *Euskaldunon komunitateak euskaraz eroso bizi ahal izatea lortu behar dugu gure Euskal Herriko lurrean*. Eta helburu hori ezin da soilik *desideratuma* izan –zer ere bai–, baizik eta euskaldunon komunitatearen *eskubidea*: *Euskaldunon komunitateak eskubide demokratikoa dugu gure lurrean gure hizkuntzan bizi ahal izateko*.

Eta eskubide demokratikoa den neurrian, ezin da soilik gure zeregina izan, euskaldunon komunitatearena, eskubide hori defenditzea, baizik Euskal Herriko gizarte osoaren betebeharra. Euskaldunon komunitatearena eta erdal komunitatearena. Guk honen eskubide demokratikoak defendatzera konprometitu behar genukeen bezala. Gaurko Euskal Herrian

⁸ Eusko Jaurlaritzaren EGOD ikerketa egitasmoaren harian, esaterako, ondorioztatzen da EAEko herritarren % 13k behintzat nahi lukeela [Euskal Herrian] *etorkizunean euskaraz bakarrik egitea* (Eusko Jaurlaritza 2015c, 7).

bizi garen hiru milioi pertsonen betebeharrak demokratikoa bihurtu behar dugu euskaldunon komunitateari ziurtatzea gure lurrian euskaraz eroso bizi ahal izateko dugun eskubidea, Iparraldean, Nafarroa Garaian eta EAEn, guztietan ere gutxienez erdal komunitatea bizi den bezain eroso, zeinen eskubideak horren zintzo gordetzen ditugun denon artean *iure* eta *facto*.

Eta esan behar da, esateak gogorra izan behar du: Euskaldunoi gure lurrian euskaraz eroso bizi ahal izateko eskubidea ziurtatzen ez zaigun bitartean, Euskal Herrian ez dago demokraziarik euskaldunon komunitatearentzat. Euskal Herrian ez dago demokrazia linguistikorik guretzat eta ez dago demokraziarik. Eta horrek gabezia larria behar luke bere burua demokratikotzat eduki uste duen gizarte batean. Eta ideia hori da datozen urteetan zabaltzea komeni zaigun kontzeptu nagusietakoa.

1. Lehen gidalerroa: Demokrazia linguistikoa euskaldunon komunitatearentzat ere - Erdal komunitatearen betebeharrak

Demokrazia linguistikoaren printzipioa onartzea, ulertzea eta ulertaraztea ezin garrantzi handiagokoa dugu. Batez ere oraindik euskaldunon komunitatearen parte ez direnek, baina guk euskaldunok ere. Antzeko kontzeptuak maiz planteatu dira gure inguruan abstrakzioan bada ere, eta onargarritasun handikoak izan daitezke ikuspegi demokratikotik: *Euskaldunok eskubide batzuk ditugu gure lurrian, eta eskubide horiek demokratikoak dira*. Baina egia da eskubideak ez ditugula guk bakarrik.

Euskal Herrian, EAEn, Nafarroa Garaian, Iparraldean, bi komunitate linguistiko bizi bagara lur bere honetan –bi komunitate nagusi behintzat–, biek dituzkegu eskubideak, eta bion eskubideak dirateke demokratikoak. Erdaldunek dituzkete eskubideak eta euskaldunok ditugu eskubideak gure lurrian gure hizkuntzan bizitzeko. Demokrazian ordea, eskubideak planteatzera, soilik planteatu litezke berdintasunaren ikuspuntutik. Eta gaurko Euskal Herriko lurretan, bi komunitate linguistiko nagusien artean inoiz bizikidetzat hitzarmen demokratiko bat egin behar baldin badugu guztion eskubide linguistiko

demokratikoen gainean, horren oinarrian ezinbestean egon behar du eskubide berdintasunak, elkarbizitza parekide eta baketsu baten mesedean.

Kontua da, gaur egun euskaldunon komunitatearentzat jadaneko *irabaztea* litzatekeela bi komunitateek berdintasuna ziurtatuta izatea bere aukera eta eskubide linguistikoetan. Pentsatu, desiratu, amestu, berbatu genezake besterik ere, baina aukera eta eskubide berdintasuna ziurtatzea balitzateke jada irabazia. Irabazi handia.

1.1. Euskaldunon komunitateak ere, gutxieneko, erdal komunitateak Euskal Herrian dituen beste aukera eta eskubide linguistiko

Euskaldunon komunitatearentzat berdintasuna izango litzateke Euskal Herrian bizi ahal izatea erdal komunitatea gure artean erdaraz bizi den bezain eroso. Eman dezagun, ez dugula gehiago nahi. Agian bai, baina gutxiarik, beraiek bezain eroso bizi nahi genuke. Nola lortu genezake hori?

Komeni zaigu argi ulertzea zergatik bizi den eroso, hain eroso, erdal komunitatea Euskal Herrian:

1. Batetik, legeak bere alde dituelako desoreka handiz. Eta oinarrian euskal herritar guztiak gaudelako legez derrigortuak espainola edo frantsesa jakitera, baina ez alderantziz, euskara.
2. Baina eta legeak lege, batez ere Euskal Herrian bizi garen hiru milioi pertsonak jadaneko ezin hobeto ulertu eta mintzo gaitzkeelako erdaraz, espainolez Hegoaldean, frantsesez Iparraldean.

Eta euskaldunon komunitatea, zergatik ez gara / ezin gara gu ere eroso bizi Euskal Herrian?

1. Soilik milioi pertsonak dakigulako euskara –eta hori ere neurri batean–, elkarrekin bizi garen hiru milioi herritarren artean.
2. Eta ez ditugulako legeak alde, desoreka handiz. Eta oinarrian legeak behartzen ez gaituelako euskal herritarrak euskara jakiten, denok behartzen gaituen bitartean espainola/frantsesa jakitera.

Beraz, zuriago ezin.

1.2. Demokrazia lege, Euskal Herriko erdal komunitateak ezinbestean jakin / ikasi behar du euskara

Bi komunitateon arteko aukera eta eskubide linguistikoen berdintasuna soilik lortu liteke Euskal Herrian bizi garen hiru milioi pertsonen bi hizkuntzak maila bertsuan menderatzen ditugunean.

Legeak lege, hori da demokrazia linguistikoaren aukera bakarra. Eta hori ez dugun bitartean, Euskal Herrian ez dago demokrazia linguistikorik guretzako. Ez dago demokraziarik guretzako. Hori salatu behar dugu. Hori salatu behar diegu botereei... Baina batez ere aurrez aurre erdal komunitateari. Azken hamarkadotan nahiko ohituak bide gaude botereak salatzen. Ohi-tuegi ere bai aukeran.

Botereak botere ordea, dagoeneko badugu garaia betebeharrak demokratiko hori zuzenean Euskal Herrian bizi den erdal komunitateari aurpegiarazteko. Beraiek, banan-banan, euskaraz ulertzen eta euskaraz egiten ikasten ez duten bitartean, beraiek galarazten digute banan-banan gu euskaraz bizikidetzan bizi ahal gaitezen beraiekin herri honetan.

Noski ez naiz ni halakorik esaten duen aurrenekoa. Beti gustatu izan zait bere gordinen, sinpletasunean, Bitoriano Gandiagaren bertsoetako salaketa zuzena (1974):

*Hemen,
euskeraz ez dakianak,
berak jakingo du
zergatik ez dakian.*

*Baina hemen,
euskeraz ez dakianak,
ez digu uzten
euskeraz egiten.*

Hori dugu problema nagusia. Erdal komunitateak, eskubide osoz erdara jakin, erdaraz bizi, bizi nahi eta erdaraz bizitzen saiatzen denak, euskaraz baleki, gu berea jakiten behartuta gauden bezala, guk lasai egin ahal izango genuke beraiekin euskaraz, beraiek nahi dutena eginda ere.

Beraz, guk gure eskubideak gauzatu ahal izateko ezinbesteko baldintza demokratikoa da erdal komunitateak ere euskaraz jakitea, eta ez dakienean, ikastea. Euskal Herriko erdal komunitateak gurekin duen lehen zor, bete-

behar demokratikoa da euskara ikastea. Eta soilik euskaraz egiten dakie-nean izan lezake zor hori ordaindua. Eta izango dugu demokrazia.

Eta hori ez da inposizio injustua, baldintza antidemokratikoa. Gu legez behartu baldin bagaituzte, lortu arte, espainola/frantsesa jakitera bizikide-tzaren izenean, beraiek behartuta egon behar dute euskara jakitera, eta legez ez bada, komunitateen arteko itunez. Eta betebehar horren demokrati-kotasuna da guztien gainetik aldarrikatu behar duguna.

Erdal komunitateak gurekin duen zor-betebehar demokratiko hori bete-tzea bakarrik izan liteke bi komunitateen arteko bizikidetza zoru komuna, zeinen gainean eraiki ondorengo elkarbizitza demokratikoa. Hori ez dagoen bitartean, ez dago guretzat demokrazia linguistikorik gure lurtean. Ez EAEn eta ez Nafarroa Garaiko eremu euskaldunon –euskaldunon komunitateak egoera hobexeara daukagun guneak–, eta ez ere noski Nafarroa Garaiko beste eremuetan edota Iparraldean. Ezen, Iparraldean ere, euskaldunon ko-munitateak eskubideak baldin badauzkagu *libertéan*, bertako erdal komuni-tateak *égalité* eta *fraternité* demokratikoen izenean ezinbestean ikasi beharko du euskaraz.

1.3. Baina zer dio gure arteko erdal komunitateak euskaldunon komunitatearen eskubide demokratikoen inguruan?

Zenbateraino dugu zabaldua diskurtso demokratiko hori gure gizartean, barneratua? Dirudienez oso gutxi, nahiz itxurak egiten ere iaioak izan...

Gorago aipatu Eusko Jaurlaritzako HPS, Hizkuntza Politika Sailburuordetza-ren EGOD, *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanqueta* ikerketa egitasmoa-ri heltzen badiogu (Eusko Jaurlaritza, 2015a; 2015b) –galdeketa soilik EAEn burutua, euskaldunon komunitatearen eskubideak beste bazterretan baino zer-bait hobeto errespetatzen diren lurraldea–, HPSk ikerketa egitasmo horren ondorio EAEko gizartean adostasun handikotzat jotzen dituen 21 iritzien artean –EAEko gizartearen 2/3ek baino gehiagok sustatuko lituzkeen iritziak *guztiz edo nahikoa ados* erantzunak elkarri batuta–, eta zeinen gainean proposatzen dituen EGOD egitasmoaren ondoriozko-edo *Euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunaren oinarriak* txosten berezian (Eusko Jaurlaritza, 2016b), galdere-

takoren baten erantzunen ondorio irudi lezake gure arteko –EAEko– erdal komunitatea prest ote dagokeen bi komunitate linguistikoaren eskubideen berdintasunezko hitzarmen bat onartzeko. Hala EAEko herritarrei EGODen (azken) galdera egiten zaienean (Eusko Jaurlaritza 2015c, 19):

- **Zure ustez, zenbateko garrantzia du alderdi politiko guztiak ados jartzeak guztion hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen akordio bat lortze aldera?**⁹
 - *Garrantzia handia* erantzuten du galdekatuen % 66k
 - *Nahikoa Garrantzi*, % 20k¹⁰.

Irudi luke kontsentsurako oinarri sendoak egon ote litezkeen, galderan garbi aipatzen direlarik *guztionezko hizkuntza eskubideak*. Ez dirudi ordea erdal komunitateak oro har oso garbi duenik zer diren hizkuntza eskubideak euskaldunon komunitatearentzat –guk ere ez seguru asko–. Hala juzgatzen baitira esaterako ondoko adierazpenak:

- **Garrantzitsua litzateke Euskadiko biztanle gehienek euskara ikastea** (Eusko Jaurlaritza 2015c, 14):
 - *Guztiz ados* % 51
 - *Nahikoa ados* % 32.

Ez da sikiera galdetzen *derrigorrezkoa* edo *ezinbestekoa* beharko lukeen euskara jakitea/ikastea. Soilik ea *garrantzitsua* litzatekeen, eta hala ere soilik herritarren % 51 dago *guztiz ados garrantzi* horrekin. Beste % 49 ez dago *guztiz ados*. Eta *garrantziarekin* ez badago *guztiz ados...*, ez dirudi oso ados

⁹ Bitxia iruditu zait galderak jasaten duen birformulazioa Eusko Jaurlaritzaren *Zoru Komunaren* txostenean, honetan ez direlako jada partidu politikoak inondik aipatzen, dioelarik: *Guztionezko hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen akordio bat lortzearen garrantzia* (Eusko Jaurlaritza 2016b, 19). Eta ez dirudi gauza bera denik aipatzea –nire ustez–:

- *Guztionezko hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen akordio bat lortzearen garrantzia*; eta
- *Alderdi politiko guztiak ados jartzea[ren garrantzia]* *guztionezko hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen akordio bat lortze aldera*.

¹⁰ Guztiz bazterrekoak dira beste erantzunak: *Erdipurdikoa* [sic] [/ *Algo*], % 1; *Garrantzi gutxi*, % 2; eta *Garrantzirik ez*, % 2; zeini erantsi behar zaien *Ez daki* / *Ez du erantzuten* multzo esanguratsuko herritarren beste % 10 (bitxiki hau da indefinizio maila altuena erakusten duen galdera).

datorkenik euskara ikasi beharrekin, nahiz *guztion hizkuntza eskubideak* aldarrikatu.

- **Ahaleginak egin behar dira euskara eta gaztelania maila berean egon daitezzen, ez bata bestearen gaineratik** (Eusko Jaurlaritza 2015c, 9):
 - *Guztiz ados* % 45
 - *Nahikoa ados* % 30.

Ez da galdetzen ea *maila berean egon behar duten/luketen*, soilik ea *ahaleginak* egin behar diren. Herritarren % 55 ez dago ahaleginarekin ere *guztiz ados*. % 14 *aurka* (*Nahikoa aurka* % 8; *Guztiz aurka* % 6). Ez dirudi bide zuzenena *guztion hizkuntza eskubideak* errespetatzeko.

- **Euskaldunek ulertu behar dute pertsona askok ezin dutela euskara ikasi** (Eusko Jaurlaritza 2015c, 16):
 - *Guztiz ados* % 52
 - *Nahikoa ados* % 28
 - *Nahikoa aurka* % 5
 - *Guztiz aurka* % 4.

Beraz, soilik herritarren % 4k uste bide du Euskal Herriko erdaldunek ere euskara derrigorrez ikasi behar dutela, eta ez dutela aitzakiarik ez ikasteko, guk ez dugun bezala espainola ez jakiteko. Herritarren % 90 inguruk pentsatzen bide du aldiz euskaldunek bai ulertu behar ditugula eta euskara ikastetik salbuetsi behar ditugula euskara ikasi (nahi?) ez duten erdaldun guztiak. Kasuan ere ez dirudite oso berdin juzgatuak *guztion hizkuntza eskubideak*.

Ordea, erdaldunen gainean galdetuta:

- **Erdaldunek, euskaraz ez ulertu arren, onartu behar dute euskaldunek beraien artean [h.d. *euskaldunen artean, gure artean*] euskaraz egitea** (Eusko Jaurlaritza 2015c, 16):
 - *Guztiz ados* % 49
 - *Nahikoa ados* % 22
 - *Nahikoa aurka* % 9
 - *Guztiz aurka* % 9.

Beraz, EAEko herritarren % 51k ez bide du onartzen euskaldunok gure artean euskaraz egiteko eskubidea dugunik beraiek entzuten badigute... To demokrazia! Herritarren % 18k gainera uste du erdaldunek ez dutela *onar-tu behar* (inola ere? ezpata eskuan?) euskaldunok gure artean euskaraz egi-tea beraiek entzuten badigute. Demokrazia, no!

- **Zenbait lanpostutarako euskara jakitea exijitu beharko litzateke** (Eusko Jaurlaritza 2015c, 12):
 - *Guxtiz ados* % 42
 - *Nahikoa ados* % 29
 - *Nahikoa aurka* % 10
 - *Guxtiz aurka* % 8.

Ez gara ari galdetzen *lanpostu guztietarako* euskara jakiteak derrigorrezkoa izan behar ote lukeen (espainola den bezala), soilik ari gara *zenbait lanpostutarako*, eta hala ere herritarren % 58 ez dago *guxtiz ados* eta agerian *aurka* herritarren % 18. Eskubide berdintasuna!

Hala bada, ez dirudi erraz-erraza daukagunik erdal komunitatean barne-ratzen –EAEkoan ere– euskaldunon komunitatearen eskubide linguistikoen berdintasunaren eta demokrazia linguistikoaren ideiak. Baina hitzak, inkes-tak inkesta, aldakorak dira haizea bezala eta maiz, galderak nola planteatu, ondorio desberdinak izan genitzake. Horregatik uste dut badugula hala ere jokorako eta esperantzarako tartea. Hori iradokitzen didate esaterako EAE-ko herritarrek emandako beste zenbait erantzunek, EGOD ikerketaren ere-mu berean eginak. Hala, ondoko bi galderak eginda (Eusko Jaurlaritza 2015c, 7):

- ***Zure ustez etorkizunean zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzateke Euskal Herrian?***
- ***Eta zuri zer gustatuko litzaizuke, euskarak gizartean duen presentzia handitzea, orain bezala mantentzea edo gutxitzea?***

Bi galderetako erantzunak batera bildurik ondorioztatzen da EGODetik EAEko herritarrek nolakoa irudikatzen duten / nolakoa nahi luketen *Etorkizunean euskararen presentzia (erabilera)* Euskal Herrian. Hala, herri-tarren:

- % 68k *nahi du euskararen* [eta beraz euskaldunon] *oraingoa baino presentzia handiagoa gizartean.*
 - % 13k: *etorkizunean euskaraz bakarrik egitea nahi du Euskal Herrian* –gorago ere aipatu dugu–.
 - % 55ek: *bietan egitea nahi du* [espainolez eta euskaraz, baina], *euskaraz orain baino gehiago.*
- % 23k: *bietan egitea nahi du* [espainolez eta euskaraz], *orain bezala.*
- % 1ek: *bietan egitea nahi du* [espainolez eta euskaraz], *euskaraz orain baino gutxiago.*
- % 1ek *Etorkizunean gaztelaniaz bakarrik egitea nahi du Euskal Herrian.*

% 6k *Ez daki / Ez du erantzuten.* Baina, hala, EAEko *Euskararen Legearen* 35 urtera ondorioztatu liteke EAEn:

- Soilik herritarren % 2 dagoela euskaldunon komunitateak orduz geroztik egin ditugun aurrerapenen aurka.
- Herritarren % 92 dagoela gustura euskaldunon komunitateak orduz geroztik egin ditugun aurrerapenekin, edota are gehiago nahi dituela.
 - Eta aipatu herritarren % 68k nahi duela euskaldunon komunitatearentzat oraingoa baino presentzia handiagoa gizartean.

Hala, jokorako tartea behintzat badugu: % 84. Etorkizunean...

- *Euskal Herrian euskaraz eta erdaraz egitea, baina euskaraz orain baino gehiago, nahi duten* herritarren % 55 hori, gehi
- *Euskaraz eta erdaraz egitea, orain bezala, nahi duten* herritarren % 23a.
- *Ez dakien / Erantzuten ez duen* % 6.

Beste % 13 (*etorkizunean Euskal Herrian euskaraz bakarrik egitea nahi duena*) alde bat utzita, beste % 84 hori dugu jokaleku ulertarazteko euskaldunon komunitateak ezingo dugula etorkizunean *euskaraz orain bezala* jardun edota *orain baino gehiago* Euskal Herrian, Euskal Herriko erdal komunitateak, legez edo borondatez, euskara jakiteko/ikasteko konpromiso estua hartzen ez duen bitartean.

Zoritxarrez ez zaigu iruditu Eusko Jaurlaritzako HPSk proposaturiko *Zoru Komunerako Oinarriek* (Eusko Jaurlaritza, 2016b) euskaldunon eta erdaldunen komunitateen eskubide demokratikoen eta berdintasunaren zoru komuna defendatu nahi dutenik, baizik EAEko gizartearen une batego iritzi kontrajarri eta aldakorren zorua, zein ez den batere gauza berdina.

1.4. Kontuak aldatzeko beraz, erdal komunitateari egunero aurpegiratu beharko diogu gurekiko duen euskara jakiteko/ikasteko betebeharrak demokratikoa, entzuteko moduan

Demokrazian legeak defendatu beharko luke eskubide hori, baina gaur egun ez du egiten. Eta okerrago, gaur egun ez dirudi erraza lortzea legeak gure eskubide hori jaso dezan. Ez EAEn, ez Nafarroa Garaian eta ez Iparraldean. Baina eta legez posiblea ez bada, euskaldunon komunitateak gure gain hartu behar dugu lana, erdal komunitateari egunero aurpegiratzeko, eskatu, defendatu, salatzeke, legeak lege, Euskal Herriko erdal komunitateak gurekiko daukan euskara ikasteko betebeharrak demokratikoa. Erdal komunitatearen betebeharrak. Eta lan horrek ez luke bakarrik gurea izan behar. Munduko demokrata guztiena baizik. Baita gure arteko erdal komunitateko demokratena ere. Erdal komunitateari egunero gogoraztea gurekin duen zor-betebeharrak etiko, moral eta demokratikoa euskara jakiteko/ikasteko.

Eta legeak gure eskubide hori defendatzen ez duen bitartean, guk eman beharko diogu egunero aditzera Euskal Herriko erdal komunitateari bere betebeharrak, gogor eta jabetzeko moduan. Oso gogor ere bai. Ez limurtze xuabetan bakarrik... Nik ez dut orain arte ondokoen antzeko mezurik entzun erdaraz, baina itxura edo esanahi horretako mezu iragarkiz beteak egon beharko luke gure espazio publikoak soinu eta letra –ziur daude ni baino publizista hobeak mezu eraginkorragoak asmatzeko, baina ideia...– (frantsesez ere antzerak):

- *Si usted no entiende euskera, usted está impidiendo a los vascos en su tierra convivir con usted en euskera. ¡Aprenda euskera!*

- *Si usted no entiende euskera, usted está obligando a los vascos a renunciar a su lengua en su tierra para poder convivir con usted. ¡Aprenda euskera!*
- *Si usted no sabe tanto euskera como español (/ francés), usted está despreciando a los que quieren vivir con usted en euskera en su tierra. ¡Aprenda euskera!*
- *Si usted no sabe, no aprende, o no quiere aprender euskera, usted está despreciando a los vascos en su tierra. ¡Aprenda euskera!*

Erdal komunitateak egunero jaso behar du mezu hori, goizetik gauera, urte osoko 365 egunetan.

Nahiz ez mezu hori bakarrik. Mezu xuabeagoak eta erakargarriagoak ere bai. Best-seller moduan atera behar genuke eta etengabean zabaldu liburua: *1.000 razones por las que usted debería saber hablar euskera en Euskal Herria (y se lo pasaría muy bien, sería feliz, encontraría un mejor trabajo...)*¹¹. Eta bide batez ezin esker hobeko mezuak zabalduz dagoeneko euskarara, euskaldun komunitaterantz hurbiltzeko bidaia hasi eta sufritu behar izan duten guztientzat, euskaldun berriei omenaldi... Lehiaketa irekia antolatu dezakegu liburua osatzeko...

Mezu suabeak ere bai beraz, orain arte ere ematen saiatu garenen era-koak, seduzitu, konbentzitu, liluratu, gatibatu, maitemindu...¹². Guztiak.

¹¹ Katalanez bada David Pagès eta Cassúren *500 raons per parlar català* liburua, euskararako beste estilo batekoa hobetsi litekeen arren.

¹² Halako ideia saila jasotzen da Eusko Jaurlaritzaren EGOD egitasmoaren txostenean (kasuan jada Euskal Herri osoko herritarren iritziak jasoaz) *Aurrera begirako proposamenak* atalean (Eusko Jaurlaritz 2015a, 50-68), *Zoru partekatu batetarako aukerak?* galderari erantzuten saiatu ondoren eta *Diskurtso berritu baterako gako ideiak / Inertzia eta jokaera zaharren aurrean, diskurtso eta jarrera berrituak / Aurrera egiteko bitartekoak* izenburuen pean, nahiz niri orokorrean berritzaileegiak ez zaizkidan iruditzen, ez horregatik balioabeak hala ere. Hala diote atal izenburuek ideia aprobe- txagarri ugari azalduz: *Diskurtso berritu baterako gako ideiak / Aniztasuna balioestea / Hizkuntza eskubideen errespetua / Hiztunen elkarrenganako errespetua / Euskarari duen balioa aitortzea / Oinarri-ko ideia: euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea / Diskurtsoaren despolitizazioa / Limurtzearen bidea landu / Euskara bestelako bizipenekin lotu, eremu formaletik haratago / Euskararen invidia modernizatu / Euskararen zuzentasunaren exijentziak orekatu / Aldeko aldarria egokitu eta mal-*

Baina guztien gainera eduki behar du garbi erdal komunitateak Euskal Herrian bere eginbehar demokratikoa dela euskara ikastea/jakitea, bestela ez dagoela demokrazia linguistikoa posiblerik hemen euskaldunon komunitatearentzat. Eufemismorik gabe.

1.5. Bitartean, eragin eta diskriminazio positiboko neurriak euskaldunon komunitatearen alde

Gaurko egoeran nolana, Euskal Herriko erdal komunitate osoak euskara ikastea/jakitea, demokratikoa bai, baina *desideratuma* baino ez da oraindik, *desideratum demokratikoa* bada ere. Bitartean, orduan, zer? Zer egin behar da Euskal Herriko erdal komunitate osoak beharrezan demokratiko hori betetzen ez duen bitartean, denek euskara ikasten ez duten bitartean gu beraiekin euskaraz (ere) eroso mintzatu ahal gaitzen moduan?

Nekeza aurreikusi bagenezake legeak epe laburrean Euskal Herriko erdal komunitatea euskara (ere) jakitera derrigortzea, legeak bai arautu lezake / arautu behar du erabateko jardun / diskriminazio positiboa euskaldunon komunitatearen alde, euskararen alde, gure egoera gutxituaren kalteak ahalik eta gehien arintzeko, aldi berean erdal komunitateari lagunduz euskarara ohitzen eta ikasten. Eta horrek bai dirudi egingarriago (aipatu EGODEk ere jasotako *Legeak berrikusi eta eguneratu* eta *Hizkuntza politika berria* atalen haritik –Eusko Jaurlaritza 2015a, 64-66–, zerbitzu emaileen betebeharrak kontsumitzaileekiko...). Hitzartu egin behar da erdal komunitatearekin, itundu. Baina bitartekoek eta ekinbideek lotsarik gabe behar dute izan euskaldunon komunitatearen eta euskara zabaltzearen aldeko, konplexurik gabe, betebeharrak demokratikoaren izenean. Gaur egun jada gertatzen da halakorik neurri batean, hainbat maila eta lekutan. Eta ekinbide hori areago orokortu beharra dago, gradualki izango bada

gutu / Legeak berrikusi eta eguneratu / Hizkuntza politika berria / Akordio zabal baten beharra / Komunikazio estrategia oso bat / Euskarari prestigioa emango dion erreferentzialtasuna / Gazteekin lan berezia egin.

ere, Euskal Herriko maila eta bazter guztietan hartu dezan behar duen neurria.

Erdararen aldeko *de factoko* egoeraren ordain, Euskal Herriko biztanle guztiok euskara (ere) ikasi arte, alde guztietan garatu beharko dira euskararen eta euskaldunon komunitatearen aldeko neurriak.

- Erakundeek zerbitzu gehiago eskaini beharko dituzte euskaraz, erdaraz baino, erdaldunek euskara ikasi arte behintzat.
- Gobernuak lotsagabeko *dumpinga* egin beharko dute euskara erabiltearen alde. Bere eskuko hedabideetan, hezkuntza zerbitzuetan, administrazioan, bere botere legegilean, laguntza aukeretan ..., euskaldunon komunitateari onura plusak eskaini beharko dizkio, eta erdal komunitateari, bere euskara gaitasuna handitzen joateko aukerak...
- Zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituen saritu beharko da gizartean / erakundeetan, eta besteak beste, *dirua* eman behar zaio. Langile / enplegatu batek euskaraz baldin badaki, lan bikoitza egin lezake, erdaldun hutsak egin ezin dezakeena. Bikoitza izango ez bada ere, langile / enplegatu elebidunak gehiago irabazi beharko luke bere euskal/erdal gaitasunengatik.
- Euskarazko sortzaileei neurriko gehigarriak ordaindu beharko zaizkie, premia larriago, zailtasun handiago eta merkatu urriagoen kausa.
- Eta zerbitzuak jasotzean, euskarazkoak gutxieneko merkeagoak eta eskuragarriagoak izan beharko dute eta horretarako bideratu beharko dira neurriko laguntzak, zaila izaki euskarazko produktu guztiak berez askoz erakargarriagoak izatea, salbuespenak salbuespen, ingelesezkoak... baino.
- Ez genuke euskarazko liburu/film/disko/joko... bategatik ordaintzen jarraitu beharko liburu/film/disko/joko... beragatik espainolez edo frantsesez ordaintzen dugun beste, eta inola ere ez gehiago gaur maiz bezala.

Euskarazko liburuak/diskoak/jokoak... erdarazkoaren prezio erdian egon beharko du, filmak prezio erdian, antzerki obrak prezio laurdean.

- Dantza ikastaro batean izena eman nahi badut, igeriketan, margoketan, kirol taldeetan, euskarazko matrikula erdarazkoa baino hamar aldiz merkeagoa bada, ea ez duen euskarazko ikastaroak arrakasta izango...
- ... / ...

Halako bidetatik joan beharko du gure artean euskaldunon komunitateak / euskarak eskolaz kanpo ere behar dugun bultzadak. EAEn eta Nafarroa Garaiko eremu euskaldunean agian zertxobait hurbilago gaudeke gure behar batzuk asetzetik..., baina ez oraindik inondik ere euskaldunon komunitatearen aukera eta eskubide linguistikoen berdintasuna ziurtatzetik, ez erdal komunitateari euskararako hurbilpena behar adina eskuratzetik. Hasteko, EAEn geureganatuak ditugun aldeko neurriak Euskal Herri osora zabaldu beharko genituzke, eta guztietan ere ezartzen hasi oraindik falta ditugunak.

Hori guztia eskuratu ahal izatea ordea, ez da berez eta modu naturalean gertatzen den / gertatuko den gauza. Presioa da eskatzen duena. Eta presio hori egin lezakete gobernuek, eta egin beharko lukete. Baina batzuek ez dute egin, besteek oso eskas egin dute, eta are gehien egin den EAEn ere, gobernuek –aipatu dugu goragoko ohar batean ere–, herritar guztiendako gobernatu behar dute/lukete, eta ez da beti erraza. Eta azken batean gertatu liteke gainera Irlandako Errepublikako kasuan bezala, gobernuaren presioa ere ez izatea nahikoa hizkuntza gutxituak behar duen berrindartze prozesua behar moduan burutzeko –2.1.1. atalean aipatzen dugu xehexeago Irlandako kasua, gure ispilua; eta 2.1. osoan gure *arnasguneen* arazoaren inguruko hausnarketa–.

Nork egin behar du orduan presio hori? Guk. Euskaldunon komunitateak. Ez dago beste inor presio hori egin lezakeenik, ezta gu bezain interesaturik ere presio hori egiten. Euskaldunon komunitatea presio bide horretan abiatzeaz, nire *irabazteko* bigarren gidalerroa, *intsumisio linguistikoaz*.

2. Bigarren gidalerroa: *Gatazka linguistikoa azeleratu!* **Euskaldunon komunitatearen intsumisio linguistikoa**

Aniztasuna, errespetua, adostasuna, akordio zabala; komunikazio estrategia, pertsuasioa, limurtzea; tinkotasun demokratikoa. Ados. Modu baketsuan. Noski. Baina ezin beti jarraitu dugu aurpegiaren bigarren masaila jartzen lasai eman diezaguten. Ez zaigu matrailik geratzen. Zerbait gehiago behar dugu.

Noski, aurreko atalean aipatu neurri guztiak eta gehiago eskatu eta exijitu behar dizkiegu ozen gobernuei. Ez dut uste halakorik falta izan dugunik hala ere azken 40 urtean (batez ere Hegoaldean). Eta lekuan-lekuan lortu duguna baino gehiago ez lortu izana, ez dut uste izan denik lurralde bakoitzeko herritar sektore euskaltzaleak ez dizkiegulako gobernuei gure eskaerak garbi ezagutarazi. Ezta seguru asko botereen kontrako manifestazio faltaz – hain gustukoak sektore antisisteman, eta bitxiki gure gobernu aldekoenen kontra antolatuta maizenik–. Ez dut esango halakoak ere onuragarriak, are beharrezkoak, ez direnik une jakinetan. Baina ez dira nahikoa izan daukaguna baino gehiago edukitzeko. Eta gure egoerak irtenbidea izan dezan, ezinbestekoa dugu gatazka linguistikoa esparrua gizartera zabaltzea. Kasu, gatazka *linguistikoaz* ari naiz.

Gatazka linguistikoa esparruak utzi egin behar dio *euskaldunon komunitatearen arazo* izateari, Euskal Herriko *erdal komunitateen arazo* izaten has-teko. Hori lortzen dugun egunean irabazteko bidean gara. Arazo linguistikoa gure arteko erdal komunitatearen arazo bihurtu behar dugu.

Guk ez daukagu inongo arazorik beraiei ulertzeko, beraiekin interakzioan jarduteko erdaraz egiten digutenean. Guk ulertzen diegu. Beraiei sortu behar diegu arazoa, guk euskaraz egin eta ulertzen ez digutelako. Eta arazo hori egunero sentiarazi behar diegu, momentuero. Sentitu behar dute ezinbestekoa dutela euskara guri ulertzeko. Ez diegulako gehiago gure hitzik itzuliko.

Erdal komunitateak egunero bizi behar du, jasan behar du, sufritu behar du *gatazka linguistikoa* hori. Intsumisio deklaratu behar dugu, *intsumisio linguistikoa*. Ez dugu gehiago jardungo gure hitzen itzultzaile. Ezin dugu etengabe jarraitu

gure hitzen itzultzaile, ulertu gaitzaten. Horretan gabiltzan bitartean, galdua dugu borroka. *Intsumiso linguistikoak* deklaritzen ez garen bitartean jai dugu. Ezinbestekoa dugu euskaldunon komunitatea arnasa horretan murgildu gaitzen. Gutako bakoitza bihurtzea *arnasgune*, *arnasgune pertsonal*.

2.1. Hainbat ohar *arnasgune fisiko-geografikoez*

Azken urteotan asko hitz egin da gure artean, eta hitz egiten da, *arnasgunez* (ik. Fishman, 1991; Zalbide 2001; ...). Hizkuntzaren arnasguneak babestearen eta gotortzearen garrantziaz. Eta ordea gaur egun ezin zaie arnasguneei aterik jarri, itsasoko urari, basamortuko hareei, arnasten dugun aireari... ere ez bezala, ez baditugu kartzela kutxa hermetikoetan gordetzen. Gure garai hauetan ez dago jada arnasgunerik gure artean. Ez dago arnasgunerik jada XIX. mende amaiera eta XX.aren hasieretatik aurrera. Derri-gorrezko eskola erdalduna gure arteko bazter guztietan sartu genuenetik. Gutxiago oraindik, erdara etxe sukalde barren guztietaraino sartua dugunetik, frantses edo espainol, erdal irratia 1950etatik, geroztik telebista. Zer esanik ez gaurko globalizazio garaian. Ez dago arnasgunerik gure artean. Agerikoa da. Eta horren testigantzak baino ezin ditugu jaso datuak biltzen hasi orduko 1986 eta 1991z geroztik (ik. Bengoetxea 2012; Iurrebaso 2015a, 2015b; Esnaola 2015). Zer espero genezakeen bada?

Ez dago hizkuntza gutxituen arnasgunerik, ez hemen, eta ez inon, populazio isolatuen kasua ez bada, halakorik inon dagoen neurrian..., guaraniaren dialekto samoiedo-lituaniarrak edo pirahã basurde bihoztar anti-chomskya-noak. Eta ez dago oso aspalditik. Eta euskaldunon komunitatearen iraupena, edo iraupenaren pisu handi bat arnasgune fisiko-geografiko horien baitan jarri nahi izatea, ez da euskaldunon komunitatea heriotzaren bidean bultzatzea baino. Balizko arnasgune baztertuetakoko herritarrei eskatu nahi litzaieke orain ez dezaten egin bere beste herrikide guztiok aurreko hamarkadetan egin duguna *modernizazio* bidean, egiten ari garena, inguruko beste hizkuntza zabalduen bizkar:

- Ez. Zuek geratu zaitezte euskararekin atzerabide horretan. Zuen arnasgunetik irten gabe, kutsatu barik, inori bertan sartzen utzi gabe,

ETB 1, 3, 11 baino ez ikusi... Gu bitartean saiatuko gara gure *hiri erdaldundu modernoetatik* euskarara itzultzen *gure modernitatea* eta pasatuko dizuegu gero zuei. Horretarako ordea behar dugu / eskatzen dizuegu zuek zuen bazterrean geratu zaitezten, zuen atzerapenean, eta ez dezazuen inondik hartu guri modernizatzeko aukera eman diguten beste hizkuntza horien zaldia.

- Ni zurekin ezkondu? Ni zurekin, ja, jai! –erantzun zion behin batean Loiolan dama guztiz politak Gilermo Joakin Indaleziori txoria baino arinago dantzan–.

Eta ez dut uste halako diskurtsoak askoz etekin handiagorik izan duenik gure artean azken mendeetan. Ezin zuen izan, ezin du izan, eta ez du izango (ik. ondoan, 2.1.1., Irlandako kasua xehexago aipatua).

Balizko arnagune, *nekezari landagune baztertu idilikoak* hemendik aurrera ere euskarari atxikiak mantendu daitezten modu bakarra izango da Euskal Herriko hiriak euskalduntzea, modernitatea eta hirian (ere) euskaraz eroso bizitzeko aukera ziurtatzea *nekezari landagune idiliko inolaz ez baztertuetan* bizi diren euskaldunei eta euskaldunon komunitate osoari. Bitartean galtzen jarraituko dugu gure balizko arnaguneak ere, galtzen ari garen bidetik. Fenomenoak gune baztertuagoetan beranduxeago gauzatu litezke, baina iristen dira. Eta horixe da gaur egun ere ikusten ari garena. Hirietan jada euskaldunon komunitatea berrindartze bidean hasiak garelarik (EAEn, Nafarroa Garaian, eta are Iparraldean ere), oraindik ari gara indarra galtzen *balizko arnagune, nekezari landagune baztertu idilikoetan*, Hegoaldean (ik. Bengoetxea 2012; Iurrebaso 2015a, 2015b; Esnaola 2015 –2.1.2. atalean aipatzen dugu arazoa xeheago–, eta askoz abiada handiagoan Iparralde barne alde guztian belaunaldien arteko eten ikaragarri). Inork ez du bere buruaz beste egiten inoren aginduz –ohiko egoeretan behintzat–.

Eta horixe da ere, zerbait izatekotan, Irlandako esperientziak irakatsi behar diguna. Bai Irlandako Errepublikakoak, eta bai Ipar Irlandakoak, segidan zertzelada batzuetan aipatzera goazenak.

2.1.1. Irlandako Errepublikako Ghaeltacht arnaguneen garapena (1871-1926-1956-2007)

Ghaeltacht deitu ohi dira Irlandako Errepublikan, gaelikoa ama hizkuntza nagusi izaki, hau egunerokotasunean erabiltzen den eremuak. Eremu hauen lehenbiziko muga zehaztapen ofiziala 1920ko hamarkadan egin zen, 1921eko Independentziako Gerraren ondoren, 1922an Irlandako Estatu Askea eratu, independentzia aldarrikatu, eta uhartearen gaur egungo partiketa politikoa onartzen eta onartzen ez zuten irlandar nazionalisten artean piztu eta 1923ra arte iraun zuen gerra amaitu eta gero.

Aurretik ere, jadaneko XIX. mendearen bigarren erditik, eta batez ere mende horren amaiera aldetik aurrera, jarriak ziren abian *Ghaeltacht* guneen izendapenak, eta hauetan *gaelera* hiztunen komunitatearen aldeko zenbait babes neurri hartuak, ordurako indartsu garatzen ari zen Gaeleraren Berpizkundearen aldeko mugimenduaren eraginez, nolerebait muga jarri nahian *gaelera* XVIII. mendetik eta batez ere XIX. mendean ingelesaren bultzadaz jasaten ari zen atzerakadari.

1920ko hamarkadaren erdi aldetik aurrera Irlandako Errepublikako aginte nazional berriak erabat indartu zituen gaelikoaren aldeko neurriak *Ghaeltachtetan*, eta baita uharte osoan ere, *irlandera*, gaelikoa, berpizteko, bultzatzeko eta berrezartzeko hainbat neurri: gaelikoaren derrigorrezko ikaskuntza eskola, gaeliko gaitasuna frogatzeko derrigorrezko azterketak eskola garaiaren amaieran, funtzionarioek derrigorrez bete beharreko gaeliko gaitasunak/eskakizunak... Ezagunak bide zaizkigu gure Hegoalde honetan antzeko neurriak.

Ondoko lau mapak¹³ adierazgarriak dira *Ghaeltacht* guneek ezagutu duten bilakabidez ia mende eta erdiko bueltan, XIX. mendearen azken laurdenetan babesgune izendatu zirenetik:

¹³ Laurak ere Wikipediatik, domeinu publikokoak. Azken hirurak D.de.loinsigh-ek eginak (<https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=1374532> / [/ =17875913](https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=17875913) / [/ =17875932](https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=17875932) / [/ =17875964](https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=17875964)).

1. irudia



1871

2. irudia



1926

3. irudia



1956

4. irudia



2007

- Lehen mapa gaeliko hiztunen 1871ko zabalpenari dagokio, *Ghaeltacht* guneen lehen izendapen eta babes neurrien garai ingurukoa, Irlandako Errepublikako gobernu independenteak *Ghaeltachten* inguruko bere lehen neurriak hartu baino 55 urte lehenagokoa.
- Bigarrena 1926ari dagokio, gobernuak izendatutako *Coimisiún na Gaeltacharen* arau, garai horretan *Ghaeltacht* estatusa eskuratu behar-ko luketen guneeena –nahiko eskuzabal jokatuta–, eta gutxi gorabehera *jaso zutenak*, nahiz jada garai honetarako garbiegi egon ez zein neurritan zen artean gaelikoa eskualdeotan ama hizkuntza nagusi eta egunerokotasunean erabilia.
- Hirugarren mapa, 1956an, 30 urte beranduago, artean *Ghaeltacht* izendapen iritzietan nolerebait sartu zitezkeen lurraldeak.
- Azkena berriz, 2007an irizpide zorrotzez *A kategoriako Ghaeltacht* izendatutako gunek (% 67 edo gehiagoan dutenak gaelikoaren eguneroko erabilera / komunitate hizkuntza nagusi).

Lau mapetan erakutsitako *Ghaeltacht* gunek izendatzeko erabilitako hiztun dentsitate irizpideak ez dira berberak izan, edo zorrotzasun berberrez zaindu. Zorrotzena 2007koa litzateke. Eta 1926koa berriz gehiago garaiko Irlandako Errepublikako gobernu/intelligentsiaren *desideratuma*, garairako *Ghaeltacht* izendaturiko hainbat gune jada adierazi baino hiztun dentsitate txikiagokoak bide zirenean, baina galerak bertan artean berriak izaki, eta babesa lagun, esperantza bizia zutenak berriro berehala bihurtu ote zitezkeen benetako *Ghaeltacht* gune oso Irlandako lurraldeen mapan.

Edonola ere den, ezin adierazgarriagoa da *balizko arnasmune, nekazari landagune baxtertu idiliko eta babestu Ghaeltachten* bilakabidea mende eta erdian.

Zergatik halako porrota? Irlandako gobernuak ez dituztelako behar adinako eta behar bezalako babes neurriak hartu arnasmuneak zaintzeko? Nabarmen da hala dela. Baina Irlandako kasuan pentsatu liteke are Errepublikako gobernuak beren babes eta indartze neurriak hartzen dituztenerako, are XIX. mende amaieran berreskuratze mugimendua hasten denerako ere,

komunitate gaelikoduna ez ote zegoen jadaneko ahulduegia¹⁴. Agian Irlandako gaelikoak garaian parean duen hizkuntza / hizkuntza komunitatea indartsuegia zen hura gabe aurrera egiteko modernitatean, zibilizazioan eta munduan? Garairako, gaelikoaren etsai zuzen ingelesa / komunitate ingelesduna aspaldi da munduan indartsuena, eta hala jarraituko du izaten XX. mende osoan, eta oraingoz XXI.ean ere.

Zer arrakasta eduki zezakeen *Ghaeltachtetako* herritarrei ingelesari uko egiteko eskatzen / uko egitera behartzen zituen politika batek? Zein etorkizun eduki zezakeen *Ghaeltachtetako* herritarrak etxean/kalean gaeliko hutsez jardunda, eskolan gaeliko hutsez ikasita, *Ghaeltachten* bihotz estueneetatik kanpo bere hizkuntza beste inorekin baliatu ezin baldin bazuen uhartean bertan, beste irlandar moderno, zibilizatu, munduan ohituek ingelesa baldin bazerabilten?

Ghaeltachtetako arrakasta aukera bakarra zatekeen *ghaeltachtarrek* gutxienez Irlanda osoan aukera izatea gaelikoz jarduteko, irla osoko biztanleak konprometituta gaelikoa berreskuratzen, beraiek aldi berean ingelesa ikasteaz gain, beraiek ere ibili ahal izateko munduan, zibilizazioan eta modernitatean, eta ez elebakartasun antzuan bizitzera kondenatuak.


Denetik izan liteke. Ezen oso erraz jarri liteke ere zalantzan Irlandako Errepublikako gobernuen hizkuntza politiken eraginkortasuna gaelikoa, *irlandera*, behar bezala zabaltzeko uharte osoko biztanle ingelesdun elebakarrengana. Baina ondoko mapa ere oso ohargarria iruditzen zaigu¹⁵. Bertan ikusi liteke zenbat herritarrek erantzun duen 2011ko zentsuan Irlanda

¹⁴ 1871ko zentsuak (erakutsi dugun lehen maparen urte berekoak) ondorioztatzen bide zuen (ap. Moriarty 2015, 25; itzulpenak eta azpimarrak gureak): «ezin da okerrik izan uste baldin bada, urte erlatiboki gutxi barru, gaelikoak jadaneko bere lekua hartua izango duela existitzeari utzi dioten hizkuntzen artean». Eta beheraxeago jarraitzen du orain autoreak berak 1891ko zentsuko datuak iruzkintzen (Moriarty 2015, 25): «1891n soilik populazioaren % 19,2k dauka *gaitasun mailaren bat* irlanderez». Eta aurretik dio 1891ko zentsuko datuek erakusten dutela: «gaelikoaren transmisioa belaunaldi gazteei ia guztiz etena dela XX. mende bueltarako, eta 10 urte edo gutxiago dituen populazioaren % 3,5ek bakarrik duela gaelikoaren *ezagueraren bat*».

¹⁵ Wikipediatik, SkateTier, CC BY-SA 3.0 (<https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=32006185>).

osoan, baietz, beraiek gauza direla gaelikoz mintzatzeko, eta konparatu genezake berau goragoko irudietan erakutsi ditugun *Ghaeltachtetako*-edo 1871-1926-1956-2007ko mapekin:

5. irudia



2011

- Balizko hiztunek % 70 edo gehiagoko dentsitatea erakusten duten gu-neak gutxi-asko dira 1956ko *Ghaeltachtetakoak*, 1926ko *desideratume-koak* baino askoz eskasagoak, baina 2007koak baino nahikoa zabala-goak.
- % 45 eta % 70 bitarteko hiztun kopurua erakusten duten gu-neek ber-ritz Errepublikako lurraldeen erdia hartzen dute gutxi gorabehera.
- Eta Errepublikako lurraldeen beste erdiak % 25 eta % 45 bitarteko hiztun dentsitatea erakusten du.

Irlandako Errepublikako gobernuen politika nahi den bezain *txepelek* (?) ezin eragin nabarmenagoa dute mapako gune berdeetan. Aldiz gune zurixka zabal nabarmena ageri da Ipar Irlandan, non mende oso batez soilik erresistentzia politikak garatu ahal izan diren hizkuntzaren inguruan

ere bertan agindu duten gobernu britainiarren guztiz aurkako politiken aurrean.

Noski, gauza bat da herritarren hizkuntza gaitasun auto-balorazioa eta inkesta erantzuna, eta beste bat balizko hitzun bakoitzaren benetako hizkuntza gaitasuna, hizkuntza praktika eta gaelikoaren benetako erabilera. Eta neurri batean gauza bertsua ere gertatu dakiguke gaur egun Euskal Herrian eskuartean darabiltzagun Inkesta eta Mapa Soziolinguistikoen datuekin. Baina aldi berean, nahi genituzke jadaneko guk ere guretzat halako hitzun aitortu –hiztungai– proportzioak Euskal Herrian.

Besterik dira Irlandan herritarren lehen hizkuntza eta erabilera datuak (Wikipediatik, guk landuak):

- 2000. urte inguruan estimatzen da 20.000 eta 80.000 mila jatorrizko gaeliko hitzun daudela Irlanda osoan (6 milioi biztanle), populazioaren % 0,33 eta % 1,33 artean.
- 2006an Errepublikan 85.000 herritarrek adierazi zuen zerabilela gaelikoa eguneroko hizkuntza gisa hezkuntza sistematik kanpo (4.500.000 biztanle ingurutik), populazioaren % 1,89 inguruk.
- 2011n 94.000k, populazioaren % 2,09.
- 2008 urte inguruan esaten da Irlanda osoko populazioaren % 5 eta % 10 bitartean estimatu litekeela gaelikoaren eszena aktiboa (300.000 eta 600.000 hitzun bitartea), gero eta haziagoa Dublín, gero eta ahulagoa aldiz *Ghaeltachtetan*¹⁶.

Hala, oro har eta oso gaitetik bada ere, ez dirudi arazo nagusia denik herritarren gaeliko gaitasuna eskola bidez handitu beharra –nahiz hori ere

¹⁶ *Ghaeltacht* guneetan gaeliko hitzunen garapenak izaniko arazoen berri bizi jaso liteke, besteak beste, O'Riagáin 1992n, hizkuntza gutxitua gorde / hizkuntza nagusira labaindu dialektikan, eta honek arnaguneen garapen ekonomikoarekin duen loturaz. Baita Walsh 2011n, eta Irlandaren unean uneko garapen ekonomikoaren loturaz irlandararen/irlanderadunen garapenarekin. O'Riagáin 2001 ere balantze ohargarria da Irlandan garatutako hizkuntz politikaren eta proposamen fishmandarren inguru, bereziki 1981-1996 urteak bitarteko garapen esperientziaz baliatuz.

bai izan ziur—. Baina Errepublikako gobernuen bultzada ere ez da gero eta handiagoa izan Errepublikako herritarrak gaelikorantz mugitzeko. Edo ezin izan du. Gaelikoaren ikaskuntzak derrigorrezko izaten jarraitzen du eskolan –betiere bigarren hizkuntza legez—. Baina 1970eko hamarkadan herritar irlandarren presioak behartu zuen Errepublikako gobernuia oinarriko eskola amaierako derrigorrezko gaeliko azterketa ezabatzerara, eta funtzionarioei ordura arte derrigorrezkoak zituzten gaeliko eskakizunak kentzera.

Kontu konplexua da beraz nonahi ere balizko hiztun kopuruak hizkuntza gutxituaren erabileran aktibatzen asmatzea. Gutxituriko hizkuntza pixkanaka bere L1 hizkuntza bihurtu dezaten, familia transmisio hizkuntza gisa berpiztu eta ziurtatu dezaten, gaelikoa etxeko eta gizarteko ohiko erabilera hizkuntza bihurtu dezaten. Dublinen ari bide da gaelikoaren aldeko mugimendua eta erabilera indartze bidean, eta oso bereziki Ipar Irlandan ere bai (ik. Moriarty 2015, 45; aurreragoko ohar batean aipatzen dugu Ipar Irlandako dinamismoaren kontua ere zertxobait).

Hala ere, ez dakit gure Euskal Herriko egoera gutxitutik erabateko porrot gisa begiratu geniezaiokeen gaelikoak gaur egun Irlandan erakusten duen egoerari, batez ere Errepublikan. Seguru asko, irudi lezakeen baino parekotasun handiagoa dugu Irlandako komunitate gaelikodunaren historia, garapen eta egoerarekin, gure diferentzietekin. Eta ziur, batzuek zein besteok, bide luzea dugula oraindik ere egiteko irabazi ahal izateko, agian oso antzeko/pareko galtzadetatik..., batzuen eta besteen esperientzietatik ikasiz..., akatsetatik..., aurrean ditugun arazoen benetako dimentsioak kalibratuz...¹⁷. Nahiz, gaur egun irlandarrek aurrean izaten jarraitzen duten etsai ingelesa, beren zoritxarrerako, askoz ere indartsuagoa den, guk parean ditugun frantses eta espainol etsai erraldoiak baino.

¹⁷ Gure artean ere aspaldi kezkatu gara Irlandako hizkuntza biziberritze prozesuen arazoez. Oraindik ere ondo irakurgarria da Joxe Azurmendiren 1977ko artikulua (berak *indio reserbatuak* deitzen ditu Irlandako gobernuak eraturako *Ghaeltacht* gunek), edota beste ikuspuntu batzuetatik bada ere J. Albarezren 1990ekoa. Horregatik egiten zait are harrigarriagoa XXI. mendearen lehen hamarkadotan berriro zabaltzen ibiltzea gure arteko zenbait sektoretan *erreserba amasguneen* inguruko mirari ilusioa gure hizkuntza politikan.

2.1.2. *Ohartxo bat gure (EAEko/Hegoaldeko) arnaguneen gainbeheren zioez*¹⁸

Kanpotik begiratuta bitxia irudi lezake kontrasteak:

- Batetik, euskaldunon komunitatea azken 40 urtean (eta areago azken 30ean EAEn eta Nafarroa Garaiko eremu euskaldunean bereziki) erakusten ari garen berpizte eta berrindartzea, eta
- Bestetik aldiz, gure (EAEko/Hegoaldeko) arnaguneez diharduten 1986 eta 1991z geroztiko ikerketek erakusten diguten gainbehera zorrotza (?) (ikusgarriak dira bereziki aipatu Iurrebaso 2015a-n 4. eta 5. ataletan konparazioan erakusten diren udalerrri euskaldunen eta udalerrri guztien datu eta grafikoak hizkuntza gaitasun, ama/lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntzaren gainean; atal honen amaieran jaso ditugu).

Hegoaldeko balizko arnaguneotako gainbeheraren kausa posibleen artean maiz aipatzen da aipatu azterketetan kanpotiko jende erdaldun(ago)-aren iritsiera arnaguneetara, nahiz gehienez ez den halako etorrera multzo esanahitsuegirik aitortzen, salbuespenak salbuespen. Eta azken garaian hainbat ere hitz egin da arnaguneetarako plan demografiko-linguistiko berezien beharraz, hauek kanpotiko etorkin erdaldun(ago)engandik babesteko.


Ez dirudi hala ere gure arnaguneetako gaitz nagusia kanpotiko etorkin erdaldunagoek eragina denik oro har, nahiz noski izan litekeen kasuan-kasuan. Datuei ordea alde askotatik begiratzea komeni da arazoaren diagnostiko ahalik eta zorrotzenak egiteko. Hala, esaterako, arazoaren muinera hurbiltzeko, garrantzizkoa izan dakiguke aztertzea zer nolako bilakaera izan duen gure populazioan:

¹⁸ Balizko arnaguneen bilakaera soziolinguistikoaz esku artean darabiltzagun lanek (Bengoetxea 2012; Iurrebaso 2015a, 2015b; Esnaola 2015) Hegoaldeko inguruez dihardute soilik eta batez ere EAEkoen, nahiz pentsatu litekeen antz bateko egoerak gertatu ote diren Nafarroa Garaiko eremu euskalduneko inguruetan. Iparraldekoek ziur beste ezaugarri batzuk dituzte.

- Ez jada bakarrik *hizkuntza gaitasunak*, zein ere bai, baizik eta, eta batez ere
- Zein bilakaera izan duten:
 - *Ama/lehen hizkuntza* eta
 - *Etxeko hizkuntza* ezaugarriek, eta hauek oso bereziki:
 - *Adin taldez talde*, eta
 - Ez soilik *populazio orokorrean*.

Datu orokorregiak maiz oso engainagarriak izan dakizkiguke, besteak beste, gure populazio piramideak –beti ere oso kontuan izan beharrekoak– bereziki azken urteetan hartu duen gerri estuko itxuragatik ere (ik. 6. irudia, EAEko datuekin –baina antzeko izan liteke Hegoalde osoan–):

6. irudia. EAEko piramide demografikoa 2016



Iturria: Eustat. Adierazle demografikoak. Biztanleen udal-errolaren estatistika. Biztanleria-proiekzioak - 2016.

- Muturrera zorrozten doan ohiko-edo piramide arrunta 1976z aurretik jaioen artean (Espainiako 1936-39 bitarteko gerrak eragindako koska eta guzti)

- Oso piramide gerri zabala, puztua, 1955-1980 bitartean jaioen artean –1976an zabalena–, 2016an 35 eta 60 urte bitarteko herritarrak (oro har artean frankismo pean jaiotako belaunaldiak)
- 1976tik aurrera berriz erabat estutzen doan gerrikoa (frankismo ondorengo belaunaldiak, euskaldunagoak, baina askoz urriagoak):
 - Jada oso estua 1986-2016 bitartean
 - 1995 inguruan estuen
 - Zertxobait puzten da geroztik 2009 urte ingurura arte (Espainiaz kanpo jaiotako 3. etorkin uholdeko gurasoen eragin, ‘bertakoa-goena edo’ baino askoz ugaltze tasa handiagoz)
 - Berriro estutzen doana 2016 bitartean 1995eko balio txikienen hurbilera...¹⁹.

2.1.2.1. Euskara *ama/lehen hizkuntza* eta euskara *etxeko hizkuntza* indizeen bilakaera EAEn orokorrean eta balizko arnaguneetan

Izan ere, Hegoaldeko / EAeko azken 35 urteetako hizkuntza gaitasunaren datuak itxaropentsuak izan arren, orain(dik) ari gara jasaten XXI. mendeko lehen hamarkadotan, XX. mende osoak Euskal Herri guztian, are gune euskaldunenetan ere –balizko arnaguneetan– ekarri zigun euskararen etxeko/familiako transmisioaren gainbehera ikaragarria, Iparraldean oraintsu arte ere dirauena, eta Hegoaldean ere are 1986 bitartera arte behintzat. Lehenago eta areago gune erdaldunduagoetan, baina 1950etako belaunaldietatik aurrera ere bereziki bizkortua gure ordura bitarteko arnaguneetan.

Ondoko taula eta grafikoetan ikusi liteke zein den EAEn²⁰ *Euskarak ama/lehen hizkuntza gisa* (EUSTAT, 2017e) eta *Euskarak etxeko erabilera hizkuntza*

¹⁹ 3.3.3. atalean eskaintzen ditugu datu xeheago batzuk EAeko piramide demografiko honen eraginaz euskaldungoan.

²⁰ EAekoak bakarrik ditugu halako datuak sistematikoki jasoak EUSTATen zentsu datuetan, eta neurri batean erakutsita, hauetatik eratorritako Mapa Linguistikoetan, baina ondorioak –aldeak

gisa (EUSTAT, 2017f) ezagutu duten bilakabidea azken ehun urteotan, eta honek hobeto ulertzen lagundu beharko liguke gaur egungo egoeran oraindik ditugun ahuleziak zein izan genitzakeen indarguneak.

Bereziki da azpimarratzekoa nola goragoko piramide demografikoaren gerri zabalena (1976 inguruan jaiotakoena; 1967-1986 bitarteko belaunaldia) den hain zuzen, (bat egiten duena ondoko taula eta grafikoetako datu apalenekin), euskararen familia/etxeko transmisio neurri apalena ezagutu duten belaunaldiekin²¹. Eta horiek zenbakitan oso herritar kopuru handiak dira. Bereziki ondorengo belaunaldi berri euskaldunago eta transmititzaileagoen kopuruak askoz eskasagoak izan diren neurrian. Hala:

alde- antzekoak bide dirateke Nafarroa Garaian ere (Iparraldean berriz oraintsu arte XX. mende amaierara arte luzatu da familia transmisio galera -ik. Inkesta Soziolinguistikoetako datuak, bereziki V.ekoak -Eusko Jaurlaritz, 2013-).

²¹ Eta berez naturalki berriro euskararen familia/etxeko transmisio neurri are apalagoak emango lituzketenak beren seme-alaben belaunaldietan, Iparralde osoan orain arte gertatu bezala. EAEn ordea -eta seguru asko Nafarroa Garaian-, euskararen familia/etxeko transmisio neurri apalena ezagutu dituzten belaunaldi hauek berak 25-30-40-45 urte beranduago euskararen familia/etxeko transmisio maila askoz altuagoak ari dira ematen beren seme-alaben belaunaldietan, bikoitzak izateko ere urrutik handirik gabekoak -aurreraxeago datu batzuk-.

1. taula. Ama/Lehen Hizkuntza eta Etxeko Hizkuntza 5 urteko belaunaldietan - EAE²²

JAIOAK	2016an	Ama/Lehen hizkuntza			Etxeko hizkuntza		
		Euskara	Beste bat + Euskara	Denera	Euskara	Beste bat + Euskara	Denera
1912-1916	100-104 urte	31,80	2,56	34,36	20,68	7,39	28,07
1917-1921	95-99 urte	30,86	2,49	33,35	20,52	6,92	27,44
1922-1926	90-94 urte	27,81	2,32	30,13	18,40	6,32	24,72
1927-1931	85-89 urte	24,98	2,32	27,30	16,09	6,15	22,24
1932-1936	80-84 urte	22,34	2,10	24,44	14,02	5,99	20,01
1937-1941	75-79 urte	20,47	1,99	22,46	12,96	5,93	18,89
1942-1946	70-74 urte	19,76	2,17	21,93	12,67	6,65	19,32
1947-1951	65-69 urte	20,14	2,36	22,50	13,41	7,58	20,99
1952-1956	60-64 urte	19,32	2,57	21,89	12,80	8,52	21,32
1957-1961	55-59 urte	19,09	2,88	21,97	12,25	9,29	21,54
1962-1966	50-54 urte	18,42	3,40	21,82	12,00	8,04	20,04
1967-1971	45-49 urte	17,15	3,96	21,11	11,76	7,70	19,46
1972-1976	40-44 urte	16,51	4,71	21,22	12,00	8,63	20,63
1977-1981	35-39 urte	17,18	5,63	22,81	13,17	10,33	23,50
1982-1986	30-34 urte	17,85	7,36	25,21	14,08	12,53	26,61

JAIOAK	2016an	Ama/Lehen hizkuntza			Etxeko hizkuntza		
		Euskara	Beste bat +Euskara	Denera	Euskara	Beste bat +Euskara	Denera
1987-1991	25-29 urte	18,73	8,59	27,32	14,84	11,68	26,52
1992-1996	20-24 urte	21,54	13,44	34,98	18,13	15,17	33,30
1997-2001	15-19 urte	26,37	14,47	40,84	20,10	15,54	35,64
2002-2006	10-14 urte	26,21	12,48	38,69	18,58	12,38	30,96
2007-2011	5-9 urte	30,34	14,16	44,50	29,43	11,18	40,61


Guk landua EUSTATen Biztamleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuetako datuetatik abiatuta (EUSTAT, 1996-...).

²² Eustaten jasotzen dira unean bizirik diren belaunaldien bost urtean behingo ama hizkuntza datuak 1986kotik 2011ko zentsua bitartean, eta etxeko hizkuntza datuak berriz 1991kotik 2011koa bitartean. Zentsu bakoitzean ez dira berdinak belaunaldi bakoitzari dagozkion datuak, herritar kopuru orokorrak ere aldatzen direnez gero populazio mugimendu naturalak edo borondatezkoak direla eta. Hala ere ez dute alde handirik erakusten bere artean migrazio mugimendu handiak gertatzen ez diren bitartean, direla hauek immigrazio edo emigratiozkoak. Horregatik aukeratu dugu 1991ko zentsua erabiltzea taula eta grafiko hauetako datuak erakusteko, bitartean ez delako gertatzen 1996tik aurrera bai bezala, eta batez ere 2000 eta 2010 urteak bitartean, EAEn ere jaso dugun Espainiaz kanpo jaioetako uhohle migratzailearen eragina. Soilik erabili ditugu 1996, 2001, 2006 eta 2011ko datuak gerotziko belaunaldiak neurtzeko, eta hauetan, eta batez ere 2006 eta 2011ko datuetan, Espainiaz kanpotik migratzaileen artean ofizialki 'atzerriar' direnen arteko zuzenketaxoa eragin dugu datuetan (jakinik zuzenketaxoa hori ere eskasa dela, eta etorkinen berreko benetako eragina nahikoa handiagoa dela populazioan, artean ofizialki 'atzerriar' direnena baino, kontuan hartzen ez direnez etortz gerotzik naziotasun espainola eskuratu dutenak, zein etorkin hauen seme-alaba jada 'Espainiar' jaioak). Nolanahi ez da hemen gure asmo lehena izan etorkin hauen pisu demografikoaren azterketa xehea erakustea, eta bego horretan.

Azkenik, esan, 2006ko datuetan antzematen den koska/beherakada berezia zor zaio la Espainiako EINK urte horretarako aldatutako inkesta metodologia artean doitu gabeari, eta batez ez dugula uste tartean beste fenomeno berezirik gertatu bide denik.


7. irudia

Euskara ama/lehen hizkuntza



8. irudia

Euskara etxeko hizkuntza



2.1.2.2. Hainbat iruzkin

Tauletatik abiatuta ondorioztatu genezakeen zenbait kontu:

1. **Euskara ama/lehen hizkuntza bakar gisa** proportzio txikienean jaso duten belaunaldiak dira hain zuzen, 1967 eta 1986 bitartean jaiotakoak, h.d. gaur egun, 2017an, 31 eta 50 urte artean dituen populazio heldua, gizartean dinamikoena, oraintxe guraso izan edo izaten ari direnak, eta piramide demografikoan ugariak direnak.
 - Eta guztietan transmisio neurri txikiena jaso du 1972-1976 bitartean jaiotako belaunaldiak (% **16,51**), 2017an 41 eta 45 urte dituen eta piramide demografikoko ugariena gaur egun.
 - Hortik aurrera hasten da berriro, eta zorionez, euskara ama/lehen hizkuntzaren transmisioa hazten, eta dauzkagun 2011ko zentsuko azken datuetan, 2007-2009 bitartean jaiotako artean, h.d. 2017an 8 eta 10 urte artean dituztenean, euskara ama/lehen hizkuntza dutenen proportzioa % **30,34 ingurukoa** bide da jada (orain dela 40 urtekoaren bikoitza)²³. Halako datuetan oinarritu genitzake esperantzak.
 - 1912-1916ko belaunalditik (% 31,80 transmisio maila), 1972-1976ko transmisio txikieneko belaunaldira 15 puntu pasako galera izan genuen.
 - Hala-hola, berriro irabazi ditugunak 1972 eta 2011 bitartean (% **16,51** → % **30,34**).
 - **Euskara ere (beste hizkuntza batekin batera) ama/lehen hizkuntza gisa jaso dutenen kopuruak** ere kontuan hartuz gero (baina badakigu kualitatiboki zein desberdina den hizkuntza gutxitua bakarrik jasotzea familian, edota honekin batera inguruko hizkuntza nagusia jasotzea), transmisio urterik okerrenak 1937 eta 1981 bi-

²³ *Inguru* diogu, 1996tik aurrerako datuetan, eta bereziki 2000-2010 urteak bitartekoetan ezinbestekoa delako Espainiaz kanpo jaioriko etorkinen ondorengo populazio kopuruen eragina zehatzago neurtzea guk lan honetarako egin ahal izan dugun baino.

tartean jaiotakoen artean gertatu bide ziren (populazioaren % **21/22 inguruan**), 2017an 36 eta 80 urte bitartean dituztenen artean.

- Kopuru hauek ere nabarmen igotzen dira geroztik, eta oso bereziki 1992tik aurrera. Hala, 2007-2011 bitartean jaiotakoen artean, 2017an 6 eta 10 urte artean dituztenean, euskara (ere behintzat) ama/lehen hizkuntza dutenen proportzioa % **44,50 ingurukoa** bide da jada (euskara lehen hizkuntza bakar jaso duen % 30,34a barne)²⁴, orain 40 urtekoaren bikoitza berriro.

2. Euskara etxeko erabilera hizkuntza bakar gisa darabilten belaunaldien proportzio txikiak ere, 1937 eta 1981 bitartean jaiotakoen artean gertatzen dira (% **11/12/13 ingurukoak**), 2017an 36 eta 80 urte bitartean dituztenen artean. Hau da *gizartea*.

- Guztietan etxeko erabilera maila txikiak hala ere, 1967-1971 bitartean jaiotako belaunaldian gertatzen da (% **11,76**), 2017an 46 eta 50 urte dituztenen artean (ama/lehen hizkuntza gisako transmisio neurri txikiak 1972-1976 bitarteko belaunaldiak duen bitartean, % 16,51).
- Etxeko erabilera 1982tik aurrera jaiotakoen artean hasiko da berriro zertxobait igotzen, eta jada nabarmenago 1992tik aurrera jaiotakoen artean: % 18,13 ingurukoa 1992-1996 bitartean jaiotakoek; % 29,43 ere bai 2007-2009 bitartean jaiotakoen artean, 2017an 8 eta 10 urte artean dituztenean (40 urte aurretiko proportzioaren hirukoitza ere izan litekeena, h.d. hauen gurasoen etxeko erabilera proportzioa % 10etik gora ezer asko igotzen ez zenean)²⁵. Esperantza?
- **Euskara ere (beste hizkuntza batekin batera) etxeko hizkuntza gisa darabiltenen kopuruak** ere kontuan hartuz gero (nahiz bada-

²⁴ Gogoratu aurreko oharrean esana azken uholdeko etorkinen eraginaren gainean datu hauek apaltzen.

²⁵ Gogoratu aurreko oharretan esana azken uholdeko etorkinen eraginaren gainean datu hauek apaltzen.

kigun kualitatiboki oso desberdina dela), erabilera urterik okerre-
nak 1932 eta 1976 bitartean jaiotakoen artean gertatu bide ziren
(populazioaren % **19/21 inguruak** erabiltzen zuen), 2017an 41 eta
85 urte bitartean dituztenen artean.

- Kopuru hauek ere igotzen hasten dira geroztik, oso bereziki
1992tik aurrera, eta 2007-2011 bitartean jaiotakoen artean pro-
portzioa % **40,61 ingurukoa** bide da jada²⁶, 2017an 6 eta 10 urte
artean dituztenean (orain 40 urtekoaren bikoitza edo).

Ondorioz ohartu nahi genuke, batez ere frankismoaren amaierako ur-
teetan (eta are ondorengo lehen urte tarteetan) gertatzen den euskara-
ren familia transmisio galera –ama/lehen hizkuntza gisa eta etxeko era-
bilera hizkuntza gisa–, ingurune erdaldunagoetan bezala gertatzen dela
ingurune euskaldunenetan, hauetan seguru asko hiri eremu erdalduna-
goetan baino zertxobait beranduago gertatuko bada ere²⁷. Aldiz, pentsa-
tu genezake azken 40 urtean hiri eremu erdaldunagoetan hasitako berres-
kuratze eta berrindartze mugimendu bera, beranduxeago bada ere,
seguru (asko) iritsiko dela landagune euskaldunagoetara, baldin eta hi-
rietan gure berrindartze mugimenduari eutsi eta indartzeko gauza garen
heinean bederen.

Jabetu gaitezen ordea gure ahuldadeaz, jakinik 1937 eta 1981 bitartean
jaiotakoek ez dutela ezagutu % 11/12/13an baino euskararen etxeko erabi-

²⁶ Gogoratu aurreko oharretan esana azken uholdeko etorkinen eraginaren gainean datu hauek apaltzen.

²⁷ Bi anekdotatxo, besterik izango ez badira ere. Bat. Gaur egun balizko arnasmune euskaldune-
netara hurbilduta espainolez barra-barra entzun ohi ditzakegunak ez ohi dira Espainiaz kanpo
jaiotako etorkinak, edo beste hirigune zabalagoetatik bildutako herritarrak, baizik eta bertako
40-60 urte bitarteko etxekoandreak (gizasemeak) –familia/etxeko transmisioan huts handiena
izan duten belaunaldietakoak– platikan oraindik ere ezin ahoskera euskaldunagoan. Bi. Frankis-
mo ondorean EAEn (eta Nafarroa Garaiko eremu euskaldunetan ere uste dut), 1980etan eta are
90etan, hezkuntza hizkuntza-ereduak abian jarriak direnean, inguruetako herritar euskaldunenak
–espainola okerren erabiltzen zutenetakoak– ziren maiz beren seme-alabak artean A eruedetara
bidali nahi izaten / bidaltzen zituztenak, *erdaraz behintzat* ondo ikasi zezaten (eta ez beraiek beza-
la artean erdipurdika zerabiltenak). Kontu horiek ez dira bakarrik XIX. edo XX. mende hasiera
urrunetakoak Hegoaldean.

lera hizkuntza bakar/nagusi gisa, nahiz ama/lehen hizkuntza datua inoiz jaitsi ez % 16/17tik. Belaunaldi horietako gurasoek, denak euskaltzale porrokatuak izanik ere, modu naturalean ezingo lukete euskara beren familia berrietan transmititu populazioaren % 15ean baino, eta hori sekulako ahu-lezia da guretzako.

Ordea 2011ko datuek diote (benetakoak baino datu baxuagoak seguru asko artean etorkinen pisua behar bezala neurtu gabea dutelako) 2017an 6 eta 10 urte artean dituzten belaunaldiko haur/gazteek % 30,34 inguruan jaso dutela euskara ama/lehen hizkuntza gisa eta % 29,43 inguruak darabilela etxeko hizkuntza bakar/nagusi gisa. Eta hori mirari bat da. Gure miraria. Gure indargunea. Hau da, beren gaztetan euskara familiako hizkuntza gisa jaso duten bezainbeste guraso edo gehiago –beren gaztetan erdara jaso dutenak familiako hizkuntza gisa– ari dira EAEn beren seme-alabei euskara lehen hizkuntza gisa transmititzen. Eta datu serieari begira pentsatzekoa da proportzioak hazten jarraituko duela ondorengo urteetan ere behintzat. Nik apustu egiten dut, *2016ko Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuko datuak* argitaratzen direnean, laster, are hobeak izango direla arlo hauetan ere 2011koak baino (areago behar bezala neurtzera iristen bagara Espainiaz kanpo jaiotako 3. etorkin uholdeko herritarren eragina).


Kontua da gure dirudienez indargune hau ez dela gertatzen ari, oraindik behintzat, balizko arnasmuneetan (ik. ondoko grafikoak). Eta horrek pentsarazi behar digu. Arnasmuneak garrantzizkoak zaizkigu. Noski. Eta zaindu behar ditugu, noski. Baina eduki dezagun garbi landagunetako arnasmune fisikoek soilik iraungo dutela hiriguneetan espazioak irabazten goazen neurrian. Eta hori dugu orain garrantzizkoena: hausnartu hiriak nola irabazi, hiriburuak. Hiriburuetarako estrategia irabazleak diseinatu²⁸.

Arnasmune/hiri arteko dialektika horretan hausnartzeko, merezi du begiraturtxoa egitea I. Iurrebasoren azterketatik ekarri ondoko hiru grafikoei – *hizkuntza gaitasuna / ama/lehen hizkuntza / etxeko hizkuntza*– eta hauek erakusten dizkiguten ikuspegi (Iurrebaso 2015a, 36; 37; 39):


²⁸ Patxi Saezek era antzeko zerbait uste dut dioela 2017ko *Euskarak Bilbo behar du* hausnarketan.

9. irudia

BB. Grafikoa. Hizkuntza gaitasunaren bilakaera, udalerriak 1981eko dentsitate mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1981-2011




10. irudia



CC. Grafikoa. Lehen hizkuntzaren bilakaera, udalerriak 1981eko dentsitate mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1986-2011

11. irudia



DD. Grafikoa. Etxeko hizkuntzaren bilakaera, udalerriak 1981ko dentsitate-mallaren arabera multzokatuta. EAE, 1991-2011 (nagusiki euskaraz egiten dutenak, %)

Goitik beherako lerro markatu guztiak dagozkie balizko arnaguneei. Al-diz, apenas ikusten dugun behetik gorako bilakaera nabarmenik, salbu hizkuntza gaitasunari dagozkionetan. Zergatik? Datuak ez daudelako adin taldeetan sailkatuta. EAEko populazio piramidean 2016an 35 urtetik gora dituzten herritar erdaldunen kopuruek literalki jaten dituztelako 35 urtetik beherako populazioan datu sendoz nabarmentzen ari garen gorakada, ez bakarrik gaitasunean, zertan ere bai, baizik eta guretzat askoz garrantzi handiagokoa dena, baita ere, euskara ama/lehen hizkuntza eta euskara etxeko erabilera hizkuntza bakar/nagusi gisa.

Iurrebasok, Bengoetxeak, Esnaolak... eskaintzen dizkiguten datuek, adin taldeka sailkatzen ez baditugu benetan jabetu ahal izateko euskaldunon komunitatean oraintxe gertatzen ari diren fenomenoek eta ondoko urteetan gertatuko direnez, inpresio guztiz faltsua jaso genezake, etsigarria ere, irtenbide irabazle posiblek gabea, negargarria..., ez digutelako hobeto ikusten uzten egiantan gertatzen ari dena.

2.1.3. *Euskal hiztun berrien hizkuntza transmisio ohiturez*

Ez dira oraindik argitaratu VI. *Inkesta Soziolinguistikoaren* datuak. Dakigularik, EAEko eta Nafarroa Garaiko aurrerapenak baino ez (Eusko Jaurlaritza 2016d; Nafarroako Gobernua, 2017). Baina Azkue Fundazioak agian bere aldetik lortu bide ditu delako inkestaren EAEko datu gehiago, eta inkesta hau eta Ortega eta besteren 2016ko *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak* lana aipatuz, joan den 2017ko otsailaren 21eko *Ama-Hizkuntzaren Egunaren* harian argitaratu bide zuen ondoko txaplata, guztien laburpen. Eta bertan jasotzen diren datuak horrela azalduta ez dirudi esperantza gutxikoak dituzkegunik...²⁹ Ortega eta bestek argitu nahian egiten dituzten galderak dira (2016, 230):

- *Murgiltze ereduan euskaldundutako gaur egungo gazteek transmitituko diete euskara beraien seme-alabei?*
- *Eta egitekotan, zein transmisio-ereduri jarraituz?*

Eta Azkue fundazioak argitaratu txaplatak argiago:

- *Transmititzen al dute hizkuntza gutxitua guraso hiztun berriek?*
- **Guraso hiztun berriek** seme-alabekin hitz egiten dute:
 - % 48,3k euskaraz
 - % 16k euskaraz eta espainolez
 - % 35,6k erdaraz
- **27-37 urte bitarteko guraso hiztun berriek:**
 - **Oro har:**
 - % 74k beti edo gehienetan euskaraz edo bietan berdintsu
 - **Testuinguru erdaldunetan:**
 - % 61ek beti edo gehienetan euskaraz edo bietan berdintsu

²⁹ Ez dakit nolanahi horren irakurketa baikorra ateratzen den Ortega eta besteren lanetik delako hiztun berrien familia barruko hizkuntza transmisio jarrerez, nahiz datuak bertatik jasoak izan (Ortega eta beste 2016, 230-232).

- **Guraso biak euskaldunak direnean:**
 - **Batek bakarrik duenean euskara lehen hizkuntza:**
 - % 95ek transmititzen dute euskara
 - % 71k euskara bakarrik
 - % 24k biak
- **Guraso biak direnean hiztun berri:**
 - % 80k transmititzen dute euskara
 - % 45ek euskara bakarrik
 - % 35ek biak
- **Guraso bakarra denean euskalduna eta hiztun berria:**
 - % 49k transmititzen dute euskara eta erdara

2.2. Hiriak irabazi. Euskal Zabalguneak sortu / zabaldu / indartu... hiriburuan

Aurreko atalean aipatu guztiagatik, azken boladan berriro *arnasgune fisiko-geografikoen* kontuak hainbeste aipatzen direnean, beste garai bateko kontuez ari ote garen iruditzen zait, halako herri, toki, bazter, baserri, auzune, txoko, erreserba mitikoez ari ote garen, aspaldian jada joanak ditugun ingurune ukigabeen garaiak, denboraren makinari atzera eragin nahiko bagenio bezala edo...

Hiriak dira irabazi behar ditugunak, baita balizko arnasguneak ere arnasgune izaten jarraitu ahal izan dezaten. Bestela jai dugu. Hiriak irabazteko garaia dugu, eta gainera, ahal dugu. Sinistu behar dugu. Eta ezin dugu orain gudu-zelaia erratu. Bilbo irabazi behar dugu, Gasteiz irabazi behar dugu, Iruñea irabazi behar dugu, Baiona irabazi behar dugu...

Eta horretarako, Patxi Saezek *Euskarak Bilbo behar du* artikuluan dioen legean (2017): «Hiriburuetan euskara euskaldunen arteko harreman-hizkuntza bihurtzeko, lehen-lehenik, harreman-sare egituratuak eraiki behar dira. Harreman-sare egituratu horiek, besteak beste, herritarren kontsumo

eta aisialdi ohituretan oinarrিতa eraiki daitezke [...] Herritarren jokabide horiek kontuan hartuta, hiriburuko udalak hirigintza antolamenduan gune horietan dauden dendak eta tabernak *euskararen lehentasunezko azpiegitura* izenda ditzake eta udalerraren hirigintza antolamendutik hizkuntza baldintzak eta betekizunak eska ditzake euskarazko zerbitzua berma dadin azpiegitura horietan. Bide beretik, *euskararen lehentasunezko azpiegitura* diren aldetik lurraldeko foru aldundiak ere hobari-fiskalak zehaztu ditzake herriarrei euskarazko zerbitzua bermatzearren.»

Ardura ez da berria. Euskaltzaindiak ere 2014an antolatu zuen bere XIX. Jagon Jardunaldia *Euskararen biziberritzea Euskal Herriko hiriburuetan* lemapean. Eta noski, *hiriak irabaztea* ere Patxik proposaturiko bidean ez da izango / ezin da izan egun batetik besterako kontu. Bai ordea planifikatuki eta lehenbailehen hasi / jarraitu beharreko dugun bidea, hiriburu bakoitzean euskal espazioak sortzen / antolatzen / zabaltzen / indartzen joateko, euskal guneak, *Euskal Zabalguneak*, euskal arnaguneak. Nik *Euskal Zone* deitu ohi nituen [ingelesez /zoun-zəʊn/], ingelesera lerratuta hauen modernitate go-goaz azpimarratu nahiz, kanpokoentzako *Basque Zone* –gero eta zabalagoak– lirakeenak. Izena [ez] da gutxienekoa. Baina guneak guk antolatu behar ditugu, euskaldun bihotzekoon komunitateak, nahiz gero beharrezko laguntza guztia eskatu eta exijitu uneko administrazioei, gure inguruko beste komunitateetako kideei. (*Euskal*) *Zabalguneak* gure ekimen izango dira edo ez dira izango.

Hala, esaterako, Donostiako *Batzen* izeneko koordinakundeak³⁰ Siadecoren 2011ko martxoko *Donostiako Euskararen Plan Orokorra - 2011-2015* txostenaren inguruan aurkeztu zuen proposamenean, beste hainbat neurri gain –alkatetzaren eta zinegotzien hizkuntzaz, Udalaren barneko lan hizkuntzaz, hiriburuko kirol eskaintzaren hizkuntza jardunez, *Euskara Familiar* programaz, sortu eta birbihurtu beharreko hedabide euskaldunez...– proposatzen zen jada hirian halako *Euskal Zabalguneak* sortzeko beharra (*Euskal Zoneak* aipatzen ziren han ere), kasuan, artean Donostian falta zen eta oraindik falta den balizko *Euskararen/Euskaldunon etxe* baten inguruan an-

³⁰ Izenez behintzat Donostiako euskalgintzako elkarten koordinazio gunea, baina nik ezagutu eta parte hartutako garaian bederen, halakoen nahiko erradiografia eskasa zena.

tolatu zitekeena (inguru proposamenak ere luzatzen ziren), Donostiako eguneroko *Euskal Agenda* kudeatuko zukeena –euskarazko era guztietako hitzaldiak, *TED* emanaldiak euskaraz, aurkezpenak, eztabaidak, mikroeta- troak, kantautoreak, musika emanaldiak...–, garrantzi berezia eskainiko liokeena *Gazteen Asteburuak Euskaraz* itxurako plangintzei, gazteentzako ostegunetik hasitako euskarazko asteburuak antolatuz, astero kontzertu eta DJ emanaldi jarioak ziurtatuko zituen, eta bertako euskaldun zahar zein berrien etengabeko gorazarre antolatuz, Donostia inguruko herrialde zabal- leko gazte eta heldu euskaldun eta euskaltzaleak kultura programa bizien inguruan erakarri eta bildu zitzakeena, bereziki hiriburuaren hurbilekoenak, baina baita Donostia hurbileko erreferentzia izan lezaketen Iparralde hurbil- leko zein Nafarroa Garaiko euskaldunentzat, ekintzak guztiak ere zalantza gabe lagunduko liguketenak hiria euskalduntzen. Ziur ginen hala moduzko programa batek berez jasoko zuela bertako merkataritza eta ostalaritzaren babes sutua, Donostiak berez dituen erakarpen balioei, *euskal* turismoarena ere erantsiko liekeelako³¹.

Halako programa bat lehenik osatzeko gauza den hiriburu erraz bihur- tu liteke *Euskal Kulturaren Hiriburu*. Baina jokabide berbera proposatu liteke gure hiriburu guztietarako. Bilboko *Euskal Zabalgunek* hasi behar- ko lituzke biltzen eta erakartzen hiriko bertako 80.000 euskal hiztunak (beste 100.000 elebidun hartzaile)³², Bizkai osoko ia 400.000 euskal hiz- tunak (eta beste 350.000 elebidun hartzaile). Gasteizek 60.000 euskal hiztun inguru ditu bertan erakartzeko (beste 65.000 inguru elebidun har- tzaile); Araba osoko ia 80.000 euskal hiztunak (eta beste 90.000 elebidun hartzaile). Donostiak ere 80.000 euskal hiztun inguru ditu bertan erakar-

³¹ Halako mikroplangintzen garrantziak beste askoren artean modu interesgarrian dihardu Bal- daufen 2006ko artikulu seminalak. Oso interesgarriak dira ere –Irlandako esperientzien inguru- tik–, Moriarty, 2009 -unibertsitate ikasleez-, 2011a, 2011b, 2014b, edota turismo linguistikoaren inguruan Moriarty 2014a, eta 2015eko liburuaren *Tourism LPP (Language Policy and Planification) and Globalization* atala (99-115). Zentzu honetan, interesgarria da ere ezagutzea Irlandako *Oideas Gael - Adult Irish Language Courses and Cultural Holidays* erakundeak aurrera daraman programa- zioa.

³² Datuok guztiak EUSTATEko 2011ko zentsutikoak, azken uholde migratzailearen zuzenketa mi- nimo bat ezarrita, eta zertxobait gorantza borobilduak 2016ko zentsutiko datuetara hurbiltzeko.

tzeko (beste 65.000 inguru elebidun hartzaile); Gipuzkoa osoko 370.000 euskal hitzunik (eta beste 160.000 elebidun hartzaile). Eta Iruñean, eta Baionan...

Noski, beti da errazago proposatzea, gauzatzea baino. Eta halako bide guztiek, *irabazteko* estrategia bateratu bat eskertuko luke. Baina maiz, has-tea badenez erdia egina izatea...

Eta noski, hiriburuak irabazi beharrak ez du inola ere esan nahi bat-ba-tean bazterrean utzi behar dugunik... Azeptitien egiten segi behar dugun lana, Elizondon, Donibane Garazin, Tafallan, Agurainen, Lekeitio, Bara-kaldon, Laudion, Maulen edo Bastidan. Ez Errezilen, Aramaion, Aulestin, Atharratzen edo Etxalarren. Baina nekez bihurtuko da Aulesti Bilboren erreferentzia, eta bai ziur, Bilbo Bizkaiaren, Donostia Gipuzkoaren, Gasteiz Araba osoaren, Iruñea..., Baiona...

2.3. 500.000 *arnasgune pertsonal*. Euskaldun bihotzekoon, euskaldunon komunitatearen konpromiso pertsonala hiru mailatan – Zina

Arnasgune fisiko-geografikoen estrategia herrena bada, ez hala arnas-gune pertsonalena. Eta arnasgune pertsonalak bai eraiki, indartu eta ziur-tatu beharko ditugula. Ezen arnasguneak behar ditugu³³. Eta hirietan ere

³³ Eta era guztietakoak. Ezen arnasgune da euskaraz egiten dugun guztia. Hedabideak, eskola, unibertsitatea, administrazioa, familia... Dena. Eta alderdi honetatik ere berriro zaigu paradigmatikoa Irlandako kasua. Irlandako Errepublikan ez ohi da halako arnasmunerik batere sustatu ia XX. mendearen azken laurdena arte *Ghaeltachtetik* kanpo, eta ezta hauetan ere administrazioan -ingelesearen mailan-, edo hedabideetan, ez baita ardurarik izan gaelikozko itxurazko prentsarik sustatzeko (ik. Robins, 2006), edo bere garaian irrti edo telebista kate fundamentuzkorik oso berriki arte (ik. Moriarty 2007, 2014b, 2015 -4 eta 5. atalak; eta azken hau bereziki azken urteetako TG4 telebista kanal berri(tu)aren arrakasta eredugarriaz-). Soilik 1970etik aurrera bultzatzen dira gaierazko murgiltze ikastolak, *Gaelscoilak*, *Ghaeltachtetik* kanpo, eta hauetan XX. mende osoan izan direnak ez dira izan benetako murgiltze eskola, kasurik hoberenetan ere eskola elebidunak, ingelesa Errepublika osoko gainerako beste irlandarrek bezain ondo landu nahi zutenak ... Ipar Irlandan berriz, gaur egungo irlandararen gunerik ahulena zalantza gabe (ik. 5. irudiko mapa), beste intentsitate bateko atxikimendua sumatzen bide da hizkuntzaren

Euskal Zabalgunek ez ditugunez goizetik gauera biribilduak altxatuko, bitartean ere ezinbestekoa dugu (soilik) euskaraz bizitzeko konpromisoa hartu(ko) dugun pertsona multzoak batzea, indartzea eta gure erabakia gizartean islatzea³⁴. Eta alde guztietatik ere, itsaso guztiz erdaldunean urturik/desagerturik gauden neurrian, ezinbestekoa dugu euskaldunok, euskaldun bihotzekook, euskaldunon komunitateak konpromiso pertsonala hartzea euskaraz bizitzeko. Itsasoak naturalki garamatza erdarara. Kontrako ahaleginak ezinbestean behar du pertsonala izan. Ezinbestekoa da euskaldunon komunitate garenok, euskaraz jakin, bizi nahi eta aha-lean euskaraz bizi garenok, gure konpromiso pertsonala hartu/sinatu dezagun, gure jarduera kode etiko bateratu bat eduki dezagun, bakarrik gaudelarik ere talde moduan jokatu ahal izan dezagun gure eguneroko jardunean.

Eta euskaraz bizitzeko konpromisoa EAEn hartu ahal dugu errazen –Donostian, Bilbon eta Gasteizen; Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban–, bertan dugun neurrian legeriarik aldekoena, eta azken 50 urteetako euskalgintzak bertan eskuratu ditugunez gure fruitu zabalenak, euskaldun kopururik handienak, eta baita euskaldunoi –gutxieneko– ulertu diezagukeen elebidun hartzaile / ia-euskaldunen kopuru ikaragarria, 2011rako 45 urtez beherako / 2016rako 50 urtez beherako populazioaren erabateko gehiengoa hartzen duena (areago oraindik 1995-2010 bitarteko etorkin uholdea be-

berpiztearen inguru (ik. Moriarty 2015, 45) oso lotua antza denez maila *mikroan*, oso maila pertsonaletan, oinarrituriko hizkuntza politika eta planifikazio ekimenetan, Errepublika zabalean aldiz maila *makroan*, egituretan, erakundeetan, goitik behera planifikaturiko politiketan oinarritu bide denaren aldean, pertsonatik urrun (eta era berean eta oro har, erabat urrun ere bai, politiko *abertzaleen* konpromiso pertsonaletatik, J. Albarezek (1990) ere behin eta berriz azpimarratzen duen moduan). Hizkuntza politika makro horien despertsonalizazioa maiz erakusten da Irlandako Errepublikako galeararen garapen arazo nagusietako bezala, bertako hiztunen/hizkuntzaren garapen ez-aktibo, hankamotzaren kausetako –bat, bederen– (besteak beste, baita aipatu ditugun autoreen lanetan ere: Albarez 1990, Azurmendi 1977, Moriarty 2015, O'Riagáin 1992, 2001, Walsh 2011).

³⁴ Zentzu honetan ohargarria iruditu zait nola iruzkintzen duen Ibon Sarasolak –anekdota gisa irakurri litekeen arren–, bere belaunaldiko Donostiako gazte talde euskaldun euskaltzale *moderno-yé-yé/yeah!-yeah!*-aren-edo jokabide euskaldun lotsagabea –60etan–. Bere 2016ko azken liburu bestela ere ondo irakurgarrian kontatzen du.

reizita; ondoko 2.3.2 atalean hainbat datu). Baita Iruñean eta Baionan, Nafarroa Garaian eta Iparraldean... ere, noski. Baina hauetan baldintzak ez dira horren egokiak izan azken 40 urtean. Hauetan ez baitugu lortu EAEko mailan zabaltzea euskarara hurbildutako populazio –hiztun edo gutxieneko ulertzaile– proportzio esanguratsurik. Besteak beste, ondorio zuzen hori du oraindik ez lortu izanak euskara derrigorrezko irakaskuntzan inolako mailatan zabaltzea, eta EAEn eta Nafarroa Garaiko eremu euskaldunaren aldean, ikaragarria da hauetan euskara hitzik ere ulertzen ez duen zeinahi adinetako herritar kopurua. Nahiz konpromiso pertsonala guztietan dugun nahitaezko.

Hala moduzko zerbait izan liteke euskaldunon komunitatearen kode etiko / zin egitea³⁵:

Nik euskaraz egingo diot:

1. **Euskaraz dakien guztiari.** Berdin zait honek nola / zein hizkuntzatan erantzuten didan. Berdin zait zein hizkuntza nahiago duen berak. Nik euskaraz egingo diot. Nik nahi dudalako euskaraz egin. Berak nahi duena egiten duela ere. Eta **euskaraz egingo diot...**
2. **Euskaraz ulertzen duen guztiari.** Are halakoa aldi berean euskaraz erantzuteko gai sentitzen ez bada ere, eta berak nahi duen hizkuntzan egiten badit ere (ondoko 2.3.2. atalean aipatzen dugu EAEko zenbat herrikiderekin jardun genezakeen hala, ulertuak ez izateko batere beldurrik gabe).
3. Hirugarrenik, eta hau gogorragoa da nonahi –noizbait hasi beharra baldin badugu ere behingoz–, **euskaraz egin beharko (ge)nioke ere / egingo diot / egingo diogu beti (?), Euskal Herrian bizi eta, bertan urteak eginda, zor digun errespetuagatik dagoeneko euskara jakin edo gutxienez ulertu beharko lukeen guztiari.**

³⁵ Halako proposamen bat abiatu zen 2010. urte inguruan hurbileko taldetxo batean, *Euskaldun bihotzekoon agergerria* kanpaina (ik. 2.3.4.2.1. atala ere) hainbat dokumenturekin (ik. Hidalgo, 2010a), tartean *Konjurazio agiria* izenekoa; halako zin egite baten inguruan zabalago (Hidalgo, 2010b).

Eta bereziki: funtzionario guztiei –gure zergetatik gu zerbitzatzeko bizi diren guztiei–..., eta herritarrontzako zerbitzu guztietan –guretzako baitira, eta ez gu beraientzat–, merkataritzan, ostalaritzan –gure erosketatetik bizi diren guztiei–...

Ez diegu gehiago erdaraz egingo. Ez dugu gehiago onartuko erdaraz egin beharra. Ez gara aldatuko erdara egitera. Ekarri diezagutela euskarara dakien funtzionarioa, itzultzailea, medikua, saltzailea, enplegatu, guardia zibila... Eta ez gara bertatik mugituko zerbitzua euskaraz ematen ez diguten bitartean. Edota irten egingo gara ezer erosi / kontsumitu gabe erdaraz baino egiten ez diguten dendatik / tabernatik / jatetxetik / kutxatik / merkatalgunetik..., eta parekoa bilatuko dugu, euskaraz artatzen gaituztenak aurkitu arte...

Kartelak jarriko dizkiegu euskaraz artatzen gaituztenei eta artatzen ez gaituztenei. 500.000 euskaldun bihotzeko jarrera baketsu intsumiso horretan, ez dago geratuko gaituenik.

Horrek guztiak suposatzen du noski kontzienteki uko egitea espainola erabiltzeari Hegoaldean –salbuespenak salbuespen–, frantsesa erabiltzeari Iparraldean... nekezago izango bada ere, beti ere ahal den neurrian, baina beti ere mugak behartuz...

2.3.1. *Jakin behar lukeen guztiari euskaraz egitearen gordina..., eta esker ona... Kode etikoaren 3. puntua*

Urte askoan oraindik izango zaigu benetan zaila euskaldun bihotzekoari Nafarroa Garaiko erdiko eta hegoaldeko eremuetan eta Iparraldean, aipatu kode etikoaren 3. puntua betetzea. Bai. Baina ez Erkidego Autonomoan edo Nafarroako eremu euskaldunean. Hauetan posible da (ik. 2.3.2. atala). Eta hauetan gainera *legeak babesten gaitu. Eskubidea dugu eta legea alde dugu*. Ez dugu zertan erabili gurea ez den / gura ez dugun hizkuntzarik. Eta gurea ez dugun hizkuntza erabiltzen dugun bakoitzeko, gerok atzeratzen dugu gure solaskideen euskalduntzea mugarik gabeko bihar inoizko batera. Ezin dugu jarraitu beti gure hitzen itzultzaile izaten. Noizbait dugu horrekin moztu beharra. Gure mezuak gogorragoa hasi behar du izaten:

2.3.2. *Izan ere, zenbat jenderekin egin genezake euskaraz inguruan?
Ia guztiakin diozu? Baita zera ere!*

Bere deserosoan, aipatu konpromiso / zin egite / kode etikoaren lehen bi puntuak betetzea edonola errazagoa da 3. puntua betetzea baino, behin dakigunean behintzat parean dugunak ulertzen gaituela. Ez dugu sikiera behar gure solaskidea euskaraz egiteko gai izan dadin. Nahikoa dugu ulertzen bagaitu. Ze, hasieran egoera, berria, deserosoa gertatu badakiguke ere, horretara bai daukagula ohitu beharra, guk euskaraz jarraituzera, gure solaskideak erdaraz jarraituko badigu ere euskarazko ohitura faltaz.

Baina bat-batean, ezagutzen ez dugun jendearen artean, zenbatek ulertu gaitzake, guk beste gabe euskaraz egiten badiogu? Zein probabilitate dugu beste gabe ulertuak izateko? Zenbat eta probabilitatea handiagoa ulertuak izateko, orduan eta errazago, gordinkeria gutxiagoz, ekingo diogu euskaraz. Eta uste orokorra da gehienez parekoak ez digula ulertuko (ik. Zubiriak –2017– esaten dituenak)³⁶, edota hala jokatu ohi dugu maizenik, badaezpada ere. Areago hiriburuetan, eta zer esanik ez jada Bilbon, Gasteizen...

Berriro etorri behar dugu EAEko datuetara, eskuragarrienak, eta euskaldunok gaur egun egoerarik aldekoena dugun esparrua, baina edonola ere jakinik Nafarroa Garaiko eremu euskalduneko egoera are dela nahikoa hobea EAEko batez bestekoa baino eta EAEko inguru euskaldunen parekoa..., eta jakinik ere euskaldunondako egoera zoritxarrez ez dela horren eroso orokorrean Iparraldean (nahiz bai hemen ere barne aldeko belaunaldi helduenekin behintzat) edota Nafarroa Garaiko erdi eta hegoaldeko eremuetan.

Zenbat jendeak ulertu gaitzake EAEn, gu erraz ausartu gaitzen haien artean euskaraz egiten? EUSTATEk jasotako 2011ko zentsuko datuak oinarrian –lurraldeetakoak (ik. EUSTAT, 2013a) eta hiriburuetakoak (EUSTAT, 2013b)–, eta jakinik 2016ko zentsukoek, oraindik argitaratu gabeak, are hobek izan behar dutela, populazio zaharrena, erdaldunena, modu naturalean desagertzen doan neurrian, eta aldiz populazio gaztea dela euskaldune-

³⁶ Nahiz seguru asko benetan ohi dugun inpresioa den, ez parekoak ez digula ulertuko, baizik eta bera ez dela ohituta egongo euskaraz egiten, eta ezta ere euskaraz jarraitu diezaioten, ulertuta ere, berak artean erdaraz egiten badu. Eta horixe dugu aldatu beharreko jarrera.

na EAeko derrigorrezko irakaskuntza sisteman dagoeneko guztiz zabalduak dauden neurrian euskal ereduak (D euskarazkoa nagusiki, eta B eredu elebiduna bigarren maila batean, A eredu guztiz bazterrekoa izaki eskolan hasi berrien artean \approx desagertua). Ondokoak dira EUSTATEN 2011 datuak (nahiz eta datu hauen barne dauden hartuta aurreko 10-15 urteetan Espainiaz kanpo jaiotako etorkin uholdeko herritarrak –salbuespenak salbuespen, erdaldun hutsak oro har–, eta hauen ondorengoak):

2. taula

Euskaraz ulertzen duen populazioa %etan - 2011 (zentsuko Euskaldunak + Ia-euskaldunak) - EAEn, bertako hiru Lurralde Historikoetan eta Hiriburuetan (Espainiaz kanpo jaiotako azken etorkin uholdea batere berezi barik)				
POPULAZIO OSOAN	LURRALDEAK	%	HIRIBURUAK	%
	GIPUZKOA	76,02	DONOSTIA	69,19
	BIZKAIA	58,29	BILBO	51,26
	ARABA	49,96	GASTEIZ	48,60
	EAE	62,80		

2-44 URTEKO POPULAZIOAN 2011N 8-50 URTEKOAK 2017AN	LURRALDEAK	%	HIRIBURUAK	%
	GIPUZKOA	86,37	DONOSTIA	82,64
	BIZKAIA	77,30	BILBO	72,39
	ARABA	71,18	GASTEIZ	69,47
	EAE	79,30		

Guk landua, EUSTATEko datuetatik abiatuta.

Datuak ez dira berez batere txarrak (eta 2016koak hobeak izango dira). Hala EAEn:

- **Populazio osoan**, ia 3 herritarretik 2k ulertzen zuen euskaraz 2011n (% 62,80k).
- **Gipuzkoan**, 4tik 3k (% 76,02). Eta **Donostian**, 10etik ia 7k (% 69,19).

- **Bizkaian**, erdiek baino hainbat gehiagok, 10etik 6k ia (% 58,29). Eta **Bilbon** ere erdiek baino gehixeagok (% 51,26)
- Baina are **Araban** ere, populazioaren erdiak ulertzen du euskaraz jada 2011n (% 49,96k), noski populazio alde gazteenak, hala zelan **Gasteizen** (% 48,60).

EAEn jada 1996tik ulertzen (bide) du euskaraz populazioaren erdiak (% 50,60k), artean Espainiaz kanpo jaiotako etorkin uholderik gabe. Eta 2011n, (ia) 3tik 2k ulertu gaitzake (% 62,80k). Euskaraz hasita ulertuak izateko probabilitateak nahikoa handiagoak ditugu jada alderantzizkoak baino, eta askoz ere handiagoak zenbat eta populazio tarte gazteagoarekin ari garen. Horrek ez du esan nahiko zuzenean euskaraz erantzungo digutenik. Halakoak oraindik ere gutxiengo izango dira zoritxarrez, baina erdaraz erantzunda ere, guk aukera dugu euskaraz jarraitzeko, elkarriketa asimetrico elebidunean, eta jada soilik geure borondatearen baitan geratzen da guk euskaraz jarraitzea, edota bestela erabateko sumisioan amore eman eta erdarara pasatu, eta espainola indartzen jarraitu, nor eta gu!, gure solaskideak ondo kostata lortu dituen ulermen gaitasunak mespretxatuz, eta bide batez mezu subliminal argia isuriz: *Ez dugu nahi zu gure (euska) klubekoa izan zaitezten... Ez duzu oraindik merezi... Horregatik egiten dizut espainolez... Ez duzulako oraindik nahikoa kategoria lortu...*

- **2-44 urte bitartean zen populazioaren artean** berriz, 2011. urtean, h.d. **2017an 8-50 urte bitarte dituztenen artean**, are da handiagoa aukera zuzenean ulertuak izan gaitzen: EAEn 10 herritarretik 8k ulertu gintza-keen jada (ia) 2011n, % 79,30ek. Are oraindik gehiagok noski 2017an.
- **Gipuzkoan** 10etik ia 9k (% 86,37).
 - Eta **Donostian** ere 10etik 8k baino gehiagok (% 82,64).
- **Bizkaian** 4tik 3k baino gehiagok (% 77,30).
 - Baina **Bilbon** bertan ere 10etik 7k baino gehiagok (% 72,39).
- Eta **Araban ere berdintsu**, 10etik 7k baino gehiagok (% 71,18).
 - Eta **Gasteizen** ere 10etik 7k, eskas bada ere (% 69,47), non ika-ragarri handiagoa den 'Espainiaz' kanpoko jatorri zuzeneko populazioa adin tarte gazteago hauetan.

Euskaldun bihotzekook, euskaldunon komunitateak, zenbateraino aprobetxatzen ditugu guk euskaraz jarduteko ditugun aukera hauek guztiak? Besteek, euskara ikasten ari direnek egin behar al digute lehenik euskaraz (eta EGA titulua ahoan erakutsi agian), gu orduan bakarrik makurtu/ausartu gaitezen beraiei ere euskaraz egiten? Ez gabiltza zuzen, hala baldin bagabiltza. Hori dugu galerako bide.

- 2.3.2.1. Baina-eta bereizten baditugu azken 15-20 urtean Espainiaz kanpo jaiotako azken etorkin uholdeko herritarrek –eta hauen ondorengoak–, '*bertakoagoak edo*' garen zenbat jenderekin egin genezake orduan euskaraz?

Ez dugu inondik esan nahi 1995etik aurrera –EAEn batez ere 2000. urtetik aurrera– jaso dugun hirugarren etorkin uholdea, Espainiaz kanpo jaiotakoak eta hauen ondorengoak, ez direnik besteok adinako herritar, edota eraginik ez dutenik gure egoera soziolinguistikoan –ze, handia dute, kopuruetatik bertatik hasita ere–, edota populazio sektore hauekin euskalduntze lan berezirik egin behar ez dugunik, edota egiten ari ez garenik. Bai ordea, populazio sektore hau berezia dela gure ikuspuntu soziolinguistikotik, eta hala daukagula ezaugarritu beharra, berarekin egin beharreko dugun ezinbesteko tratamendu soziolinguistikoak, modu eta baliabide bereziak behar (bide) dituelakoan, propioak eta desberdinak, '*bertakoagoa edo*' deitzen ari garen populazioaren inguruan daramagunaren aldean.

- '**Bertakoagoa edo**' den populazioa deitu ditugu denak multzo batean bilduak, azken 50 urte inguruak behintzat Euskal Herrian eman dituztenak –aurreko mendeko 70etako azken etorkin uholdetik edo– eta hauen ondorengoak, denak batera, berez jatorri euskaldunagokoak edo etorkinagokoak izan, frankismoaren azken urteak eta ondorengo hasierakoak behintzat gure artean bizi izan dituztenak, nahiz eta ikuspegi desberdin, eta are oso desberdinekin izanik ere, urte hauetan guztietan egoera soziolinguistiko berdintsu bat partekatu dugunak, eta gure arteko nolabaiteko kontsentsu bat garatu dugunak geroztik, oro har euskaldunon komunitateari gure eskubideak bermatzearen espirituan-edo bideratua –oso pixkanaka bada ere–, EAEn 1982ko *Euskarraren Legearen* inguruko hitzarmenaren harian garatua, eta are Nafa-

rroa Garaian, beste neurri eta modu ziztrinago batean izan bada ere, 1986ko *Vascuencearen Legearen* ondorio.

'*Bertakoagoa edo*' deitu dugun populazio honek bertan bizi izan du gerotik nolabaiteko kontsentsu unibertso orokor horretan garatu den hizkuntza politika guztia gure Hegoaldeko lurraldeetan, dela gobernuetatikoa, dela eragile sozialetatik eratorritakoa.

- **Espainiaz kanpo jaiotako azken uholdeko etorkinak** berriz, bereziki lehen haur garaiak jada igarota etorri direnek, nahiz batzuek jada azken 15-20 urte inguruak ere Euskal Herrian igaro:
 - Batetik, ohiko adin zailtasun 'biologikoak' izan dituzte eta dituzte euskalduntasun mailaren batera hurbiltzeko eta hala 'bertakoagoa edo' den populazioarekin integratzeko zentzu honetan (nahiz orokorrean bere herria uzteko gaitasuna / indarra / ahalmena izan duten herritarrak ez ohi diren izan zailtasun handienak izan ohi dituztenetakoa egotziko).
 - Bestetik, kontziente gara, etorkin hauek oro har ez direla espres Euskal Herrira etorri, euskaldunon komunitatea geure eskubideak bermatzeko bide aldapatsuan gabiltzan lurraldera. Beraiek printzipioz 'Espainiara' etorri bide dira, asko jada espainolaren jabe –edo hurbileko–, batez ere Hego Amerikatikoak, eta espainolaren jabe ez direnak berriz, batez ere, edo lehenik behintzat, espainolaz jabetu nahirik, eta ez (ez hainbeste behintzat) gurea bezalako hizkuntza txiki batez.
 - Eta noski, zailtasun handiak dituzte ulertzeko eta batez ere partekatu ahal izateko –'bertakoagook edo' izan ditugunak baino askoz handiagoak behintzat, naturala lirudikeen moduan–, 'bertakoagoek edo' azken 50 urteetan gure lurraldeotan nolabaiteko kontsentsuz abiatu dugun euskaldunon komunitatearen / euskararen berpizte eta berriindartze prozesua. Eta inoiz hau ezagutu, ulertu eta bidezkoa irudituta ere, nekez bizi lezakete prozesu hori bere 'kontsentsu' propio bezala, oraintsu artean hemen izan ez direnean. Nekezago oraindik, Espainiaz kanpo jaiotako azken uholdeko etorkinak berehala jabetzen diren orduko, hemen gure lurretan ere, erabatekoa dela espainolaren presentzia eta behar orojalea 'berta-

koagoak edo' garenon artean ere, euskaldunon komunitatea oraindik oso egoera gutxituan gaudenez. Zertarako orduan euskara?

- Kontuan izan behar dugu, gainera, Espainiaz kanpo jaiotako azken uholdeko etorkinen eta hauen ondorengo mugikortasuna, ezegonkortasuna, askoz handiagoa dela '*bertakoagoa edo'* den populazioarena baino. '*Bertakoagoak edo'* baino nahikoa errazago mugitu ohi dira batetik bestera uneko lan eskaintzaren eta bizitzeko aukeren baitan, dela erkidego beraren barruan, edo 'Espainiako' erkidego batetik bestera, komeni arau. Hala, EA Eren kasuan bereziki, ez dira gutxi 2008tik krisiaren ondoretik ere 'Espainiako' beste erkidego batzuetatik bertaratu diren mota honetako etorkinak eta familiak, zeinetako seme-alabetako asko jada 'Espainiako' beste erkidegoetan jaio diren aurreko urteetan. Eta ezegonkortasun propio horretan berriro mugitu dira edo mugituko dira EA Eetik kanpora ere, Nafarroa Garaitik mugitu diren bezala, bertan lana eta mantentze bitartekoak eskasten hasten zaizkien orduko, dela 'Espainiako' beste erkidego batera, Europako beste estatu batera, edo beren jatorrizko herrietara.

Ezaugarri horiek guztiek oso berezia bihurtzen dute ikuspegi soziolinguistikotik Espainiaz kanpo jaioen eta hauen ondorengo etorkin uholdea, oro har askoz erdaldunagoa '*bertakoagoa edo'* den populazioa baino, nahiz badakigun haien arteko belaunaldi gazteenetako kide ugari ere ongi ari direla / aritu direla euskalduntzen azken urteetan, eta are '*bertakoagoen edo'* maila bertsuan ere.

Beraz gure azterketa soziolinguistikoetan komeni zaigu herritar multzo hau bereiztea, besteak beste hobeto ulertu ahal izateko ere gure azken 50 urteko mota guztietako hizkuntza politikek benetan izan duten eragina '*bertakoago edo'* populazioan, eta zeinen artean garatu ditugun benetan politika horiek.

Horregatik 2. taulan erakutsitako datuen ondoan, ezin garrantzi handiagokoa dugu geureganatzea ondoko 3. taulakoak, behin populazio kopuru orokorretatik bereizita Espainiaz kanpo jaiotako populazioaren eta hauen ondorengo zuzenen pisua³⁷. Hala beraz populazio euskara 'ulertzailearen'

³⁷ Nahiz 3. taulako datu hauetan soilik bereizi ditugun Espainiaz kanpo jaiotako herritarrak (jada naziotasun espainola eskuratua izan zein ez), gehi 'Espainian' jaiota artean naziotasun espainola bereganatu ez duten herritarrak (datu horiek bakarrik direlako Espainiako EIN-IN Eetik edo EUS-

proportzioa 'bertakoagoa edo' den populazioaren artean, gutxieneko ondoko taulako kopuruetatik gorakoa da (datu hauen aurretiko zutabe berri batean erakusten dugu 'etorkin berriek' populazio osoaren barne hartzen duten pisu minimo hori –Aldea–):

3. taula

Euskaraz ulertzen duen populazioa %etan - 2011 (zentsuko Euskaldunak + Iaeuskaldunak) - EAEn, bertako hiru Lurralde Historikoetan eta Hiriburuetan (Espainiaz kanpo jaiotako azken etorkin uholdea berezita)						
POPULAZIO OSOAN	LURRALDEAK	ALDEA	%	HIRIBURUAK	ALDEA	%
	GIPUZKOA	6,76	82,78	DONOSTIA	7,17	76,36
	BIZKAIA	5,13	63,42	BILBO	6,05	57,31
	ARABA	6,25	56,21	GASTEIZ	6,88	55,48
	EAE	5,85	68,65			

2-44 URTEKO POPULAZIOAN 2011N 8-50 URTEKOAK 2017AN	LURRALDEAK	ALDEA	%	HIRIBURUAK	ALDEA	%
	GIPUZKOA	11,97	98,34	DONOSTIA	13,41	96,05
	BIZKAIA	10,96	88,26	BILBO	14,35	86,74
	ARABA	14,33	85,51	GASTEIZ	15,46	84,93
	EAE	11,76	91,06			

Guk landua, EUSTATEko datuetatik abiatuta.

TATetik zuzenean jaso litezkeenak). Ezen jabetu behar dugun modu horretan bereizi gabe uzten ditugula, batetik, Espainiaz kanpo jaiotako etorkinek jada 'Espainian', zeinahi erkidegotan dela ere, eduki dituzten seme-alaba denak edo gehienak, zeinak jada naziotasun espainolaren jabe bihurtu ohi diren, gurasoek –batek edo biek– jada naziotasun espainola eskuratu dutelako beraiek jaio ordurako, edota –arauak arau– Espainiako Erregistro Zibiletan urte askoan oro har egon den erraztasunagatik naziotasun espainola beste gabe tramitatzeko 'Espainian' jaio den haur guztiri, gurasoen naziotasuna zena zela ere (ik. kontu hauetaz luze Álvarez 2006). Horregatik 'bertakoago edo' den populazioaren artean, euskara 'ulertzaila' kopuruak taulan agertzen ditugunak baino are altuagoak dirateke ziur (5 bat puntu inguru altuagoak, oro har behintzat, uste dugu guk eginiko ikerketan -agian laster amaitu argitaratzeko aukera ere izango duguna-).

Datuak jada ikaragarriak dira, are zentsuko erantzunen gutxi gorabeherakotasun guztiak kontuan hartuta ere³⁸. Hala **EAE n 2011n**:

- **‘Bertakoagoa edo’ garen populazio osoan** (Espainiaz kanpotiko azken etorkin uholdea bereizita), gure azken 40-50 urteko garapen politikoa nolerebait bizi izan duen populazioaren artean, % **68,65** inguruk –ia 10etik 7k– ulertu gintzakeen 2011n guk euskaraz eginez gero:
- **Araban % 56,21ek**
- **Bizkaian % 63,42k**
- **Gipuzkoan % 82,78k.**

2017an hainbat gehiagok, ziur, eta hala ikusiko dugu 2016ko *Biztanleria-ren eta Etxebizitzaren Zentsuko* datuak publiko egiten direnean.

Proporzio hauek nolana, txikiagoak dira hiriburuetan lurraldeetan baino:

- **Donostian % 76,36** –6 puntu gutxiago Gipuzkoan baino–
- **Bilbon % 57,31** –7 puntu gutxiago Bizkaian baino–
- **Gasteizen % 55,48** –puntu bat gutxiago ere ez Araban baino, hiriburu-
ruan bertan kokatzen direnez lurralde osoko populazioaren 3/4ak edo
gehiago–.

Hala, azken etorkin uholdeko herritar kopuru minimoak bereizi gabe (2. taula), ulertzaile kopuruak 5-6 puntu inguru baxuagoak dira hiru lurraldeetan, eta 6 puntu hiriburuetan. EAE osoko batez bestekoan aldea ez da 6 puntura iristen (5,85 puntu). Eta badakigu benetan azken etorkin uholdearen eta hauen ondorengoen pisua EAEko populazioan askoz handiagoa dela hori baino (% 11tik gorakoa behintzat, uste dugu, % 12 ingurukoa). Beraz ‘bertakoagoen edo’ arteko euskara ulertzaile proportzioa oraindik izan liteke 6 puntu inguru handiagoa aztertu eremu bakoitzean.

³⁸ Eta izan ere, are zentsuetako erantzunen gutxi gorabeheratasuna kontuan izanik, EUSTAT bereko webgunean jarraitu liteke datuon progresio positibo etengabea modu logikoan 1986.go zentsutik hasita 2011kora arte (lurraldeetakoak –EUSTAT, 2017a–; hiriburuetakoak –EUSTAT, 2017b–), zentsu bakoitzeko gorabeheratasun estatistikoak gorabehera.

- **2 eta 44 urte arteko ‘bertakoagoa edo’ den populazioan** berriz, 2011n, h.d. **2017an 8 eta 50 urte bitartean dituzketenen artean**, EAEn azken 40/50 urteetako garapen linguistikoa zuzenean protagonizatu duten belaunaldietakoen artean **10etik 9k baino gehiagok ulertu gaitzake euskaldunok EAEn** (% 91,06k 2011n). Hau da, **(ia) denek**. Areago, kontuan hartzen badugu bereziki adin horietan kontzentratzen dela azken uholdeko etorkinen eta hauen ondorengoen pisu demografikoa.

Eta nahiz eta adin horietako herritarretako askok euskaraz egiteko edo entzuteko ohitura handirik mantendu ez eskolatik kanpo, eta zaharrenek eskola utzi zutenetik, adin horietan ulertzen ez gaituena jada *frikia* da –eta seguru hala sentitzen dela–, espeziimen bitxia, arraroa, desagertzeko zorian dagoen espeziea, azken hatsa ematen ari den hilzorikoa.

Eta nabarmentzekoa da nola adin hauetako populazioan, lurraldeen arteko aldeak ez diren jada populazio osoan diren bezain handiak, edo belaunaldi zaharren artean diren ikaragarriak. Hala:

- **Araban % 85,51 inguruk** ulertu gintzakeen 2011n
- **Bizkaian % 88,26k**
- **Gipuzkoan % 98,34k.**

Eta kasuan hiriburuetan aurkitzen ditugun proportzio aldeak ere ez dira jada beren lurraldeetakoak baino puntu erdi, puntu eta erdi, bi puntu baino handiagoak:

- **Donostian % 96,05** –Gipuzkoan baino 2 puntu gutxiago–
- **Bilbon % 86,74** –Bizkaian baino puntu eta erdi gutxiago–
- **Gasteizen % 84,93** –Araban baino puntu erdi gutxiago–.

Eta ordea, gutako nork hitz egiten dio euskaraz EAEko herritarren bi hereni? 50 urtez azpiko hamarretik bederatziri? Hauekin guztiekin lasai mantendu ditzakegunean gutxieneko elkarrizketa asimetricoak, elebidunak, guk euskaraz, beraiek gura duten hartan... Ez dugu hori egiten. Eta

egin ahal dugu. Tuteran desberdin izango da, Baionan ere bai, baina EAEn? Nafarroa Garaiko eremu euskaldunean?

Euskaldunon komunitateak betetzen dugu gure eginbeharra? Zer demonstre egiten dugu euskaldun bihotzekook beti espainolez ari bagara gure gune ezaguntxoetatik kanpo? Ez dugu horrela irtenbiderik. Koldarrak gara? Egoerak deserosoak gertatu dakizkiguke. Bai. Ohitu arte. Eta hasi beharko dugu horri ere buelta ematen..., inoiz irabaziko badugu...

2.3.2.2. *Zenbatak ulertzen du euskara gure inguruan?* P. Zubiriaren deskubrimendu eta aitortza esanguratsua *Argian*

Pasa den otsaileko *Argia* astekariaren azken alean irakurri liteke (2.543 zk., 2017-02-26) Pello Zubiria besteak beste *Argiako* erredakzio kide eta zuzendari ohiaren artikulua: *Zenbatak ulertzen du euskara? 'Egia ereduak' dakarren iraultzak badu mapa berria* (28-30 or.), sarean ere eskuragarria. Zinezko plazerez irakurri nuen, batetik, ni artikulua honetan proposatzen ari naizen zenbait ideia nagusiren harian datorrelako, baina bestetik areago, Pello Zubiriak kontatzen duena aitortza eta aurkikuntza pertsonal berri gisa aurkezten duen neurrian. Halakoak dioz (beste are interesgarriagoen artean):

- «Niretzat –kronika hau lehen pertsonan joango da, aitormena ere bai baita– deskubrimendu bat izan zen datua: bizi naizen Hernanin herri-tarren %80k ulertzen duela euskara.


Esango nuke errealitatearen irudi okerra eduki dudala nire bizitzan zehar. «Egia ereduko herritarren Euskal Herriak» harritu nauela oso urrun dagoelako nire buruan neukan mapatik. Hau posible baldin bada, posible baldin bazen atzo bertan ere... zein maparekin ibili naiz, ordea, orain arte? Euskal Herriaren zein okerreko mapak baldintzatu du euskaltzale kontsekuente moduan bizitzen ahalegindu naizen honetarako erdara hainbeste erabiltzea?

- Aztiker kooperatibako soziologo bati eskatu diot laguntza, nire herritik bidaiatzeko mapa berriak behar ditudalako, eta hasteko hau: ehune-

kotan, gure herrietan zenbat jende dira euskara ulertzeko gauza? Horrela prestatuak dira kronika honekin doazen kartak.

12. irudia


***Euskaraz hitz egiteko gai direnak
eta ulertzen dutenak batuta,
Euskal Herriko udalerriek itxura hau dute***



- **[Euskaraz hitz egiteko gai direnak eta ulertzen dutenak batuta]**
Niri begiek esaten didate, laburrean, Gipuzkoan ia denetan ulertzen dutela % 80 baino gehiagok, ez da ez herri eta ez hiri bakar bat (Eibar, Irun, Donostia, Errenteria...) % 60 baino gutxiagok ulertzen duenik. Bizkaia gehiena ere gorri edo hori, eta nire harridurarako, Bilbo eta Ezkerralde osoa ere urdin, % 40tik gorak ulertzen dute. Txundituta Arabak utzi nau: ia osorik urdin (% 40-60), Errioxako herri batzuk barne!

13. irudia

2011n 35 urtetik beherako gazteen artean euskara ulertzen zutenak



- [2011n 35 urtetik beherako gazteen artean euskara ulertzen zutenak] Begiratu EAEk zer kolore hartzen dituen. Baskongadak ia erabat gorri! [...] grafikoa ikusirik, nola galdetu edo erantzungo diot gaztelaniaz Bizkaia, Araba edo Gipuzkoako gazte bati? Zuberoa eta Nafarroa Beherea, gainbehera doazen arren, oraindik urdin, Lapurdi bera eta Nafarroako herri asko berde ilun (%20-40)...

P. Zubiria bezalako euskaltzale batek aitortzen badigu egin berri dituela halako aurkikuntzak, seinale oraindik euskaldun euskaltzale asko garela benetan jabetu ez garenak gure benetako egoeraren mapa soziolinguistikoa-ren dinamikotasunaz eta honek eskaintzen dizkigun *irabazteko* aukerez. Badugu beraz zeregina. (Ik. hari honetan ere *Argia*, 2017; *Argia* - Hamaika Telebista 2015, 2016; Irureta 2017).

2016ko urtearen parterik handiena eman behar izan nuen Bilbon lanean. Lantokian –denak ere Eusko Jaurlaritzako funtzionario EGAdun–, konbentzitu nahi izan ninduten Bilbon jendeak ‘ez zekiela’ euskaraz, ‘ez zuela ulertzen’. Eta esperientziaz esan nezake Bilbon ere lasai egin litekeela euskaraz 50 urtez azpiko jende guztiarekin, salbuespenak salbuespen, eta tartekako espainol zale amorraturen bat gorabehera.

Era berean aitortu nezake ordea kalean edozeinekin euskaraz hasiz gero, metroan, tabernan, dendetan, lanean bertan (esan bezala, denok Eusko Jaurlaritzako funtzionario EGAdun), hasi orduko begiratzeko zidatela denek bat-batean estralurtarren bat agertu izan balitzaie bezala, piztia arraroa... Lehen momentuan horregatik. Bada, ondoren bertan, lehenengo sustoa pasatuta, denek jarraitu ahal zidaten zelan edo halan nik euskaraz hasitako elkarrizketa. Nik euskaraz jarraitu, eta nire solaskideek ere maiz..., euskaraz. Hobeto edo okerrago. Edo espainolez. Baina aurrera. Hasierako sustoa ez zen nire euskara ulertzen ez zutelako, baizik bat-batean ezezagun bat euskaraz zuzentzen zitzaielako inondik ere espero ez zuten egoera batean...

Nire ondorioak:

- Ezin gauza bitxiagoa dela Bilbon inork inori beste barik euskaraz egitea (beste leku gehienetan bezala noski Bilbon ere).
- Bilboko euskaldunok, zein kanpotik zernahirengatik ere hiriburura hurbiltzen garenok, erdaldun huts bezala jarduten ohi dugula gure Bilboko eginkizunetan. Hau da, ondo ezkututzen garela, badaezpada... Bestela ez litzateke halako ezustekorik jazoko inork inori kalean ustekabean euskaraz eginez gero.

Zergatik ez dugu euskaldunon komunitateak baliatzen Bilbon ere populazioaren % 63,42k gutxienez edo 50 urtez azpiko herritarren % 86,74k eskaintzen digun aukera beraiekin euskaraz egiteko, herritar hauek urteak eta urteak eman behar izan dituztenean euskara eta euskaraz ikasten gugana hurbildu ahal izateko gure hizkuntzan? Halako mespretxurik...

2.3.3. *Zergatik ez ditugu halako datu jakingarriak begi-bistan (EAEn behintzat)? Zerk itsutzen gaitu?*

Harritzekoa da nola aipatuak bezalako datu baikor eta animagarriak ez ditugun barra-barra zabalduak, gure posizio subjektiboa goraino altxatzearen gizartean. Zergatik ez ohi ditugu bost urtean behin-edo jaso ohi ditugun datu soziolinguistikoak hala moduz interpretatu, P. Zubiriak dioen gisa «[s]oziolinguistikaz dakitenek aspalditik dakizkiten datuak izan arren»? Nik lau arrazoi nagusi aurkitu ohi ditut (eta beste erdi bat-edo behintzat *kale erabilerako* datuei dagokienean), eta aipatu nahi ditut:

- a) **0-16 urte bitarteko herritarren daturik ez da jasotzen Inkesta Soziolinguistikoetan.** Hasteko, gure artean, oro har, errazago zabaldu ohi ditugu Euskal Herri osoko *Inkesta Soziolinguistikoetako* datuak (ik. Eusko Jaurlaritza, 1991-...), EAeko *Biztanleen Udal Erroldetako Estatistiketatik* (EUSTAT, 1986-...) edo *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuetatik* eratorritakoak baino (ik. EUSTAT, 1996-...; nahiz azken hauetatik eratorzen diren EAeko *Mapa Soziolinguistikoak* –Eusko Jaurlaritza, 1981-...-).

Inkesta Soziolinguistikoek ordea –ez dakit zergatik– soilik 16 urtetik gorako populazioaren datuak biltzen dituzte. Ikusi dugun bezala, EAEn 16 urtetik gorako belaunaldiak ere –44 urte bitarte inguruan edo 2011n– hainbat euskaldunduak dira dagoeneko (euskara ulertzeko bederen). Baina proportzioan, urte hauetan guztietan askoz ere euskaldunagoak, bai ulertzaile bai hiztunago, izan dira 2 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteak, 16 urtetik gorakoak baino, eta hainbat eta gehiago 44 urteetatik hurbilagokoen aldean.

Hala, gehien zabalduen diren Inkesta Soziolinguistikoetako datuak nahikoa kaskarragoak dira beti EAeko Mapa Soziolinguistikoetakoak baino, Udal Erroldetakoak edota Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuetakoak baino, oro har askoz datu hobek eskainita askoz gutxiago zabaldu ohi ditugunak aldiz. Besteak beste, askori, batzuei batzuek eta besteri bestegatik, batere interesatu ez bide zaiolako seguru asko inolako datu positiborik zabaltzea EAeko euskaldunon komunitatearen inguruan. Zenbat eta okerrago, hobeto...

b) **Euskal Herriko datuak bere osotasunean nahasiak.** Joera handia izan dugu Euskal Herriko datuak bere osotasunean hartzeko. Eta hala, ezin euskaldunon komunitatearen egoera larria azpimarratu baino osotasunean. Nahiz badakigun gaur egungo Euskal Herriko euskaldunak bost errealitate administratibo desberdinetan gaudela banatuak, eta oso desberdina dela hauetako bakoitzean daramagun eta eramán dugun bilakabide eta garapena:

- EAEn egoerarik aldekoena
- Nafarroa Garaiko eremu euskaldunekoa, EAEko gune euskaldunenen parekoa eta batez bestekoa baino hobea
- Nafarroa Garaiko erdialdeko eremu mistoan egoera baztertu, kasarrean, baina aurrera
- Nafarroa Garaiko hegoaldeko eremu ‘erdaldunear’ legez kanpo proskribatuak
- Iparralde osoan bezala orain arte.
- Gainera, hizkuntza administrazioko 5 egoera hauetako bakoitzaren barrenean ere, argi eduki eta ulertu behar dugu bakoitzean ditugun egoera soziolinguistiko oso desberdinen arteko aldeak, lurralde euskaldunago, ia guztiz erdaldun edota erdizkakoen artean. Soilik horrela ulertu ahal izango ditugu bakoitzean daramagun garapen prozesuen abiadura eta ezaugarriak. EAEko hiru Lurralde Historikoen artean, eta hauetako bakoitzaren barruan. Iparraldean, kostalde etorkinez beteagoaren (eta gero eta areago barrualde ere), eta adineko barrualde oraindik ere nahikoa euskaldunaren artean, baina zeinetan aspaldi huts egin duen jada transmisioak hainbat belaunalditan, eta Maule...
- Ez da, ez dugunik Euskal Herria bere osotasunean ulertu behar / hartu behar. Baina ezarian bezala etengabe bost eremuak batean nahasteak, ezer ongi ez ulertu ahal izatera garamatza. Inora ez. Ezin bakoitzerako *irabazteko* estrategia eraginkorrak asmatu ahal izan horrela. Ezpada, soilik, edo nagusiki, Euskal Herri osoko datuen

ganean negarrez jardutera inoren errukia erakarri nahian, edota mutur bateko zein bestekoen hainbat jarrera zuritzeko.

c) **Populazio osoen datuak nahasian, adin taldeak bereizi gabe.** Era berean, maiz asko, are lekuan lekuko berezitasunak kontuan hartzen ditugunean ere, edota 2 eta 16 urte bitarteko belaunaldi gazteenen pisua ere kontuan hartuta, gero nahasian zabaldu ohi ditugu populazio osoei dagozkien datuak, berriro urrikgarri baino azaldu ezinda populazio osoaren euskalduntze abiada faltan, Hegoaldeko piramide demografiko gerri estua ahaztuta. Erakutsi ordez sekulako alde dagoela batez ere EAEn, baina baita Hegoalde osoan ere:

- 1980 eta are 1985 bitartean jaiotako belaunaldien artean:
 - Oso proportzio txikian eskolatuak euskaraz –ia batere ez–
 - Familia transmisio tasa baxuenak ezagutu dituztenak

Eta aldiz:

- 1980/85etik aurrerako belaunaldietan:
 - Jada euskarazko eskolatzeko datu gero eta zabalagoak izan dituztenak
 - Eta zeinen artean ari garen dagoeneko nabarmentzen familia transmisioaren sendotze miragarria.

Bestetik, ohartu behar dugu, Hegoalde osoan ere alde handia dagoela eskolaz kanpotikiko euskalduntze tasetan:

- Frankismoaren amaiera aldean jada belaunaldi helduak direnen artean, garaian jada familia berria sortzen ari direnak edo jada sortutakoak, oro har 1950-1955 baino lehenago jaiotakoak, eta oro har oso euskalduntze tasa baxuak erakusten dituztenak
- Eta aldiz, frankismoaren amaiera urteetara artean ‘gazte’ eta ezkontzaren ‘konpromisorik gabeak’ iristen diren 1960z geroztik jaiotako belaunaldien artean, nahiz hauetako gehienek beren eskola urteak espainol hutsean egin behar izan, bere helduaroko euskalduntze maila askoz altuagoa da aurreko belaunaldietakoa baino.

Ezinbestekoa da beraz belaunaldikako azterketa beti begi aurrean edukitzea nondik gatozen ondo ulertuta norantz goazen argi izateko.

2.1.2. atalean aipatu dugu jada EAeko piramide demografikoaren desoreka. Hala, 2016an:

- 1956 eta 1985 bitarteko 30 urtean jaiotako herritarrak, ondorengoak baino askoz gutxiago euskaldunduak, 983.560 dira.
- Ondorengo 30 urteetan jaiotakoak berriz, 1986 eta 2015 bitartean, euskaldunenak, ez dira 588.597 baino, eta ez dira iristen aurreko 30 urteetan jaiotakoen % 60ra, erdia baino zerbait gehixeago (gainera kontuan izan behar dugu azken 15 urtean jaiotakoen proportzio nabarmena direla Espainiaz kanpo jaiotako etorkinen ondorengoak EAEn jaiotako edo 'Espainiako' beste erkidegoetan).
- Azkenik 1956 baino lehenago jaiotako beste 599.729 herritar apenas euskaldunduak kontuan hartuta, azken 30 urte hauetan jaiotako populazio euskaldunenak hartzen duen 1/4 inguruko pisu demografikoa ez da nahikoa populazio osoaren hizkuntza datu estatistikoaren iraultza eragiteko, nahiz horixe gertatuko den modu naturalenean belaunaldi zaharren eta ugarien hauek desagertzen doazen neurrian natura lege (eta baldin behintzat populazio gaztearen euskalduntze tasak oraingo joeretan mantentzeko gauza baldin bagara).

d) **Espainiaz kanpo jaiotako herritarren eragin demografikoa eta sozio-linguistikoa.** Eta behin eta berriro azpimarratzen gatozen moduan, jabetu behar dugu, Nafarroa Garaian 1995etik aurrera eta 2010 urte ingurura bitartean, eta EAEn batez ere 2000. urtetik, baina 2015era bitartean ere bai (2008z geroztik batez ere 'Espainiako' beste erkidegoetatik bildua), Espainiaz kanpo jaiotako etorkin uholdea, eta etorkin hauen ondorengoak, maiz mugikortasun handikoak Espainia guztian barrena, gure artean ohituraz neurtu ohi dena baino askoz handiagoa dela.

EAeko datu ofizialetan (*Ikuspegi*), orain gutxi arte zenbatzen ziren 'etorkin' gisa –'etorkin atzerritar' esaten zitzaaien–, soilik artean nazio-tasun espainolik eskuratua ez zuten herritarrak, eta kanpo uzten ziren jada eskuratua zutenak –gero eta gehiago; Hegoamerikarren kasuan

nahikoa dute 2 urteko egonaldi erregistratua...–, eta ia erabat hauen ondorengoak...

Orain urtebetetik-edo aukera horren objektibotasun eskasaz jabetuta behin etorkin horiek ‘Espainian’ egonaldi ofizialdu bat eginez gero, iritzia aldatu eta *Ikuspegi* ‘etorkin’ gisa hasi zen zenbatzen Espainiaz kanpo jaiotako herritarrak, geroztik naziotasun espainola eskuratua izan zein ez. Zerbakiak handiagoak ziren. Baina hauen artean ere guztiz kanpo geratzen dira Espainiaz kanpo jaiotako etorkin horiek jada ‘Espainian’ edukitako seme-alaba guztiak –zeinahi erkidegotan–, zeinetako hainbat artean naziotasun espainolik gabeak.

Espainiaz kanpoko etorkinek EAEn edukitako seme-alabek, familiak bertan irauteko asmoa izan duen neurrian, beharbada bertan jaiotako beste familia erdaldun guztien antzeko edo hurbileko bilakabidea izan bide dute bertako hizkuntzez jabetzeko prozesuetan ere, nahiz euskarari atxikimendu txikiagoz seguru asko azken 50 urteak Euskal Herrian bizi izan dituztenen ondorengoek baino, baina....

Baina familia etorkin berri hauen mugikortasun tasa altuak kontuan izanik ordea, maiz Espainiaz kanpo jaiotako etorkinen seme-alabak, jada ‘Espainian’ jaiotakoak izanik ere, ‘atzeritar’ rola bete ohi dute artean gure eskoletan euskarari dagokionean. Nahiz eta gero eta guxtiago, A ereduetan eskolatuak, euskaratik salbuetsiak..., askotan egokitze programa berezien beharrea denbora luzez...

Hirugarren uholdeko etorkin uholde honen eragina neurtzean faktore horiek guztiak hartu beharko ditugu kontuan, eta hain zuzen etorkin hauek populazioaren adin gazteenetan kokatu ohi direnez, gurasoak 20-45 urteak bitartean, eta seme-alabak hortik beherakoen artean, etorkin hauen kopuru ez ofizialek ere eragin handia dute gure belau-naldi gazteenen euskalduntze mailak neurtzerakoan. Hortik ere gure estatistika datuen ‘zuzentze neurrien’ beharra, hauek behar bezala ulertu ahal izateko³⁹.

³⁹ Gure argitaratu gabeko datuen arabera, 2016an EAeko derrigorrezko eskola-adinean dauden Espainiaz kanpo jaiotako ikasleak edota Espainiaz kanpo jaiotako gurasoen seme-alaba ikasleak,

- e) Azken ohartxo bat ***euskararen kale erabileraren neurketen inguruan***. Ez dut esango Soziolinguistika Klusterrak (...) 1989tik aurrera burutu ohi dituen hizkuntzen kale erabileraren neurketak (ik. Soziolinguistika Klusterra 2017a; 2017b), egin behar ez direnik, alferrikakoak direnik, datuak benetakoak ez direnik... Baina niri hasieratik iruditu zaizkit arbitrarioegiak, aleatorioak, ausazkoak, zenbait urtean behin halako egun bakar batean kale bazter bateko begiradatik jasotako datuak. Zernahi gertatu liteke delako egunean, delako orduan, delako gunean, delako eguraldian... era bateko edo beste era bateko herritarrak igaro daitezten, gazteagoak edo zaharragoak, ‘bertakoagoak edo’ edo ‘etorri berriagoak’, azken batean datuen urtez urteko konparagarritasuna adierazgarriegia, baliagarriegia izan dadin.

Oso kanpotik begiratuta bada ere, uste dut oso kontuan hartu beharrekoa dela oro har ‘nor dabilen’ azken urteotan normalean kalean. Euskal Herrian oro har, seguru asko oso herritar tipologia desberdi-

gure derrigorrezko ikaskuntzako ikasle guztien % 20 inguru dira, populazio osoan *Ikuspegik* ematen duen ‘jatorri atzerritarreko’ herritarren kopurua % 8,6 denean -benetan, soilik Espainiaz kanpo jaiotakoena- (gure ustean % 11z goitikoa guztira, % 12 ingurukoa behintzat), eta oro har ikasleen arteko proportzio kasurik altuenetan % 11 aipatu izan denean –ISEI...–. Baina, ‘jatorri atzerritar zuzeneko’ ikasleen bolumena gure derrigorrezko hezkuntza sisteman % 8,6 edo % 11koa izan ordez, benetan % 20 ingurukoa baldin bada, guk frogatu / erakutsi genezakeen moduan –Espainiaz kanpo jaiotakoak eta hauen ondorengo zuzenak, hauetako asko ‘Espainiako’ beste erkidegoetan jaiotakoak–, nor harritu lezake PISA bezalako ebaluazio froga batean aurreko aldietan baino emaitza eskasagoak aurkitzea, gure derrigorrezko eskola sistemak gaur egun ia bakarrik euskaraz lan egiten duenean...? Ez diot oraindik inori entzun berba egiten populazio berezi honen bolumen handiak halako datuetan eduki lezakeen behintzat ‘balizko’ eraginaz. Agian ez da politikoki zuzena izango. Baina nahita edo nahigabe, iruditzen zait kasu honetan ere begiak ixten ari ote gatzaitziona hatz puntekin ukitzen den errealitate bati. Eta errealitateari bere osotasunean begiratu ezean, horren gainean planifikatzen diren neurriak hala moduzkoak izango dira. Kontua ez da orain errua ‘hauei’ edo ‘beste batzuei’ botatzea, baizik eta gure azterketak ahalik eta gehien fintzea, arazo eta kasuistika bakoitzarentzat ahalik eta tratamendu egokienak bilatze aldera. Eta badirudi zentzu honetan doazela B. Sotillosek (2017) *Deia* egunkarian azken ekainean jasotzen dituen *Ikuspegiko* zuzendari G. Morenoren adierazpen zenbait, izenburukotik hasita: *El 15% de los menores de 18 años que residen en Euskadi son de origen extranjero*.

na aurreko mendeko 60, 70 edo 80etan, are 90etan, ibili ohi zen hartatik. Eta nik gaur egun hiru multzo adierazgarri nagusi-edo ikusi uste ditut kalean –nire pertzepzio subjektiboaren karga guztia tar-teko–:

1. **Herritar helduak**, oso helduak: Herritar erretiratuak, adineko etxeoandreak (jada) etxetik kanpo lan egiten ez dutenak..., azken urteetan oro har piramide demografikoan multzo erdaldunen artekoak...
2. Segun eta zein egun eta ordutan, **haurrak**, bakarrik adin batera ezker, edota gurasoren batekin txikiagoen kasuan, hain zuzen erabilera emaitza hoberenak eskuratu ohi ditugun alorra: haurrak bere artean, edota gurasoak hurrekin ari direnean –ezen ez bere artean ari direnean, noiz (oso) helduen multzoko ezaugarrietan sartu ohi diren–.
3. **‘Espainiaz’ kanpoko jatorri zuzeneko herritarrak**, seguru asko berez populazioan duten baino proportzio handiagoetan, bai helduak –guraso izan litezkeenak edo; zaharragoen proportzioa txikia da–, eta baita haurrak eta gazteak ere. Nire ustean ‘bertakoagoek edo’ baino askoz usuago ohi darabiltenak ‘kalea’ elkartzeko leku, egon leku, aise leku gisa, agian etxebizitza baldintza okerragoak ere badituzketelako, eta multzo hauek ere oro har gure gizarteko erdaldunen artekoak...

Eta horiek baldin badira gaur egun gure kaleetako herritar multzo nagusiak, are nabarmenago gainera seguru asko zenbat eta herri edo hiri handiagoetan eta hiriburuetan, ezin gaitu gehiegi harritu gure ‘helduen’ arteko kale erabilera emaitzek gorago ez egiteak azken urteetan –haurrenak bai egin duen gisan–.

Beharbada multzo horietan ‘gazteak edo’ izan litezke gaur egun kalean gutxien dabiltzanak aztertu orduetan, eta berriz gazte hauek lirarteke, haurrak bezala, multzorik euskaldunena.

- Zer erabilera tasa jaso izango genituzkeen azken 30 urtean neurketak –parte bat behintzat– Euskal Herriko unibertsitateetako campu-

setan egin izan bagenu –‘bertakoago edo’ ikasleen artean behintzat, ‘Espainiako’ beste erkidegoetako ikasleak bereizita, Espainiaz kanpotikoak –Erasmusak, Hego Amerikatiko masterretakoak–, 65 urtez goitiko ikasleak...? Zer nolako erabilera eboluzio aurkituko genuke?

- Zer erabilera tasa eboluzio aurkituko genuke ikasle giroetako ostegun, ostiral edo larunbat gauetako parranda inguruetan?
- Eta liburutegi inguruetan gazte hauen azterketa garaiak hurbiltzen direnean?

Nire ustea da asko poztuko gintuzkeela seguru asko azken 30 urtean halakoan artean antzeman genezakeen eboluzioak, jada guraso gazteetan antzematen ari garenaren antzera. Joandakoa jada neurtu ezinda ere, behar bada interesatzen zaigu oraindik halako giroetako neurketekin hastea...

2.3.3.1. Inkestetako datu onberen fidagarritasunaz – Inkestak irakurtzeko moduez

Amaitzeko aipatu nahi dut gure arteko inkesta datu onberen inguruan berriro alde askotatik zabaltzen den / zabaldu nahi izaten den beste eszeptizismo aire indartsu bat, dela posizio euskaltzaleetatik, dela posizio antieuskaldunetatik. Azken hauen adibide izan litezke A. Arteta jaunak 2008an argitaratu *Encuestas falsificadas* edo 2011ko *Falsas encuestas, falsas conciencias* artikuluak. Alde euskaltzaleetik berriz, Artetaren aipatu azkenari erantzun *Sustatuko* A. Sarasuaren 2011ko *Euskararen ezagutzaren inguruan* sarrera, eta honi atxikitako iruzkin eta eztabaida mezuak, oro har, finean Artetaren antzeko salaketak eginez delako inkesten inguruan.

Halako gehienek kontraesan nabaria aurkitu ohi dute herritarrek inkestetan adierazitako euskararen ezagutza maila eta herritar hauek euskara erabiltzeko benetan duketen gaitasunaren artean –zer esanik ez benetako erabileraren aldean–, herritarren euskararen ezagutza maila pasiboaren eta

erabilera aktiboaren artean, zertan seguru duten arrazoi. Gure ingurune soziolinguistikoa, dena da. Eta ezagutzen dugu.

Guk ordea ez dugu orain horretaz jardun nahi. Baizik eta hain zuzen, inkestek neurtzen duten / neurtu nahi duten herritarren ezagutza maila pasiboaz, ulermen maila-edo deitu dezakegunaz. Aldez aurretik jakinik noski, ulermenean ere oso gaitasun maila desberdinak daudela, gaitasun hauek ere erraz herdoiltzen direla erabili gabeen... Euskaldun bihotzekooi ezinbesteko bihurtzen zaigu ondo neurtua izatea gure inguruko herritarren *ulermen maila*, beraiek zaizkigulako koltxoi euskara erabiltzearen igerileku huts/bertera jauzia egin behar dugunean.

Oraintxe aipatu dugu gorago ere, EAEn 1986tik dauzkagun datuek berez duketen erlatibotasun neurriarekin batera, ulergarritasun mailaren datuek 1986tik aurrera bost urtean behin etengabeen erakusten duten igoera konstantea, proportzionala, logikoa, ezustekorik gabea. Ziur herritar inkestatuen artean badela beti hala-hola emandako erantzun proportzioa. Baina hauek benetan multzo esanguratsuak balira, nekeza litzateke datuetan aurkitzen ditugun 1986/1991/1996/2001/2006/2011 bilakaerek segida logiko argi berrari jarraitzea...

Gorago 2.3.2. atalean, 2. taulan, EAEko populazio osoan, eta Espainiaz kanpoko jatorri zuzeneko herritarrak bereizi gabe, eman dugu euskara ***uler-tzaileen*** % **62,80ko proportzioa** (1.331.001 herritar), zeintzuen artean batera bildu ditugun EUSTATen zentsuetako datuetan (EUSTAT, 2017c), bai bere burua:

- ***Euskaldun*** aitortzen duten herritarrak: % **37,24 (789.439)** herritar); zeintzuen artetik aitortzen duten bere burua:
 - *Alfabetatu*: % **30,00 (635.893)** herritar)
 - *Erdizka alfabetatu*: % **5,48 (116.081)** herritar)
 - *Alfabetatu gabe*: % **1,77 (37.465)** herritar); eta
- ***Ia-euskaldun*** aitortzen duten herritarrak ere: % **25,55 (541.562)** herritar), zeintzuek ere hiru multzotan bereizten duten bere burua:
 - *Alfabetatuak*: % **15,34 (325.091)** herritar)

- *Alfabetatu gabeak*: % 3,80 (80.558 herritar), eta
- *Pasiboak*: % 6,41 (135.913 herritar)⁴⁰.

Fidagarriak ote dira *ulertzaille* datu hauek? Zenbateraino?

2.3.3.1.1. 2011ko zentsuko datuak eta 2010eko Eusko Jaurlaritzako *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak* ikerketa laneko datuak parez pare

Eusko Jaurlaritzak 2011ko urtarrilean argitaratzen ditu (2011a; 2011b) *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak* ikerketa lanaren emaitzak. Telefono bizidun inkesta, EAEko 15 urte edo gehiagoko 1.806 herritarri egina 2010eko abenduaren 16 eta 21aren artean. Jaso berri ditugun EUSTATEN 2011ko *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsutiko* datuak berriz (EUSTAT, 2017c), 2011ko urtarrilaren lehenengo egunari dagozkio. Denek eduki lezakete bere errore tarte, baina bateko eta besteko zenbait datu parekatzeak eman liezaguke argitasunik batzuen zein besteen fidagarritasunaren inguruan.

Euskara: erabilera, jarrerak, politikak ikerketaren landa lanean ondoko galdera egiten zitzaizen telefonoz espainolezko aldaeran 15 urte eta gehiagoko EAEko 1.806 herritarri eta halako erantzun proportzioak jasotzen (Eusko Jaurlaritzak 2011b, 2; 21; 1.806 inkesta, lagin errorearen estimazioa $\pm 2,35$ ekoa % 95,5eko konfiantza mailarako, eta $p=q=0,5$):

- *Respecto de su conocimiento y uso del euskera, ¿podría indicarme si entiende*
 - *Bien* (% 29)
 - *Bastante bien* (% 16)
 - *Algo* (% 32)
 - *Nada* (% 22)
 - *Ns-Nc* (% 0)⁴¹.

⁴⁰ Bere burua *erdaldun* aitortzen duten herritarrek, h.d. ez *euskaldun*, ez *ia-euskaldun*, % 37,20 dira (788.585 herritar).

⁴¹ Euskarazko aldaeran (Eusko Jaurlaritzak 2011a, 2; 21): *Zure euskararen ezagutza eta erabilerari dagokienez, nola ulertzen duzu euskara: Ongi, Nahikoa ongi, Zertxobait, Ez ez? Ed-Ee.*

Hala, herritarren:

- % **45** inguruk aitortzen zuen euskara *ongi* edo *nahikoa ongi* ulertzen zuela
- % **22k** *ezer ez*, eta beste
- % **32k**, neurtzen askoz zailagoko den *zertxobait*.

Goian eman ditugun EUSTATEko 2011ko datuetan jasoak zeuden 2-14 bitarteko haur/gazteen datuak ere, populazio lagin euskaldunenarenak. Soilik 15 urte eta gehiagoko herritarren datuei erreparatuta berriz, herritarren:

- % **58,48k** aitortzen zuen bere burua *ulertzaille*-edo, zeinen artean:
 - % **31,90k** *euskaldun* aitortzen zuen bere burua, eta
 - % **26,58k** *ia-euskaldun*, eta
- % **41,51** herritarrek berriz beste gabe aitortzen zuen bere burua *erdaldun*.

Bi galdeketetako datuak parekatuz seguru asko eratorri genezake zenbait ondorio interesgarri EAeko 2011ko urtarrilaren 1aren inguruko 15 urte eta gehiagoko herritarren inguruan. Hala:

- a) Bere burua *erdalduntzat* ematen duten % **41,51** herritarretatik:
 - Soilik erdiek edo, % **22k**, erantzuten du ez duela euskara *batere* ulertzen,
 - Ia beste erdiek, % **19** inguruk berriz, *zertxobait* ulertzen duela erantzuten du, nahiz bere burua *erdaldun (huts)*-edo jo.
- b) Zentsuan bere burua *euskaldun* eta *ia-euskaldun* aitortzen duten % **58,48** herritarretatik berriz:
 - % **45ek** esaten du (h.d. bere burua *euskaldun* edo *ia-euskaldun* aitortzen duten % 58,48 herritarren 3/4ak –% 77k–) euskara *ongi* ulertzen duela (% 29) edo *nahikoa ongi* (% 16); aldiz,
 - Herritarren % **13** inguru ausartzen da bere burua *ia-euskalduntzat* aitortzen (h.d. bere burua *euskaldun* eta *ia-euskaldun* aitortzen du-

ten % 58,48 herritarren laurden eskasa –% 23–), aldi berean aitortuz ez duela euskara ez *ongi*, ez *nahikoa ongi* ulertzen, baizik eta *zertxobait*. Eta ez da erraza jakiten zenbat izan litekeen ulertzen duen *zertxobait* hori aldi berean bere burua *ia-euskalduntzat* aitortzen duenean –zehazki, *ia-euskaldun alfabetatu*, *alfabetatu gabe* edo *pasibo*–.

c) Hala, herritar kopuruak beste nolabait berrantolatuz, esan genezake, EAEko herritarren:

- % **45ek** aitortzen duela aldi berean bere burua:
 - *Euskaldun* edo *ia-euskaldun*, eta
 - Euskara *ongi* edo *nahikoa ongi* ulertzen duela.
- % **13** inguruk aitortzen du bere burua:
 - *Ia-euskaldun*, nahiz agertu
 - Euskara soilik *zertxobait* ulertzen duela –eta ez behintzat *ongi* edo *nahikoa ongi*–
 - H.d. euskara *zertxobait* ulertzen dutela aitortzen duten % 32 herritarren arteko 10etik 4 inguruk –% 40,6–, aitortzen du bere burua *ia-euskaldun*.
- % **19** inguruk aitortzen du bere burua
 - *Erdaldun*, nahiz eta aldi berean aitortu
 - Euskara *zertxobait* ulertzen duela –baina ez *ongi* edo *nahikoa ongi*–
 - H.d. *zertxobait* ulertzen dutela aitortzen duten % 32 herritarren arteko 10etik 6 inguruk –% 59,4–, aitortzen du bere burua hala ere *erdaldun (huts)*-edo.
- % **22k** aitortzen du bere burua
 - Guztiz *erdaldun*-edo, eta
 - Ez duela *ezer* ulertzen euskaraz –ezta *zertxobait* ere–.

d) Euskara gutxienez **zertxobait ulertzen dutela** dioten herritarrak guztira % 78 dira, zeinetako:

- % 58,48k aitortzen duen bere burua *euskaldun* edo *ia-euskaldun*, eta
- % 19 inguruk *erdaldun*.

Eta,

- % 45ek euskara *ongi* edo *nahikoa ongi* ulertzen duela, eta
 - % 33k soilik *zertxobait* –ez behintzat *ongi* edo *nahikoa ongi*–, nahiz hauetako:
 - % 13 inguruk bere burua *ia-euskaldun* aitortzen duen hala ere. Eta beste:
 - % 19 inguruk *erdaldun*.

Eta datu hauetatik abiatuta:

- Ezin da inondik pentsatu EAEn 2011n 15 urte edo gehiagoko herritarren euskara ulertzaileen kopurua *zertxobait* ulertzen duten % 78 herritarrak direnik, edo hurbileko –eta serio ez du inork halakorik aldarrikatzen–.
- Eta euskara batere ulertzen ez duten herritarrak soilik % 22 baldin badira,
 - Nahiz bere burua *erdaldun* aitortzen dutenak % 41,51 izan, eta aldiz
- Euskara *ongi* edo *nahikoa ongi* ulertzen dutenak % 45, baina
 - Bere burua *euskaldun* edo *ia-euskalduntzat* ematen dutenak % 58,48
 - Nahiz hauetako % 13 inguruk aitortu ez duela euskara *ongi* edo *nahikoa ongi* ulertzen...

Balirudike bi modu nahikoa desberdinetan eginiko bi galdeketa lan haue-
tatik eratorritako datuak nahikoa bateragarriak direla, eta seguru asko hala
nahikoa fidagarriak bere horretan. Eta ez lirudikeela lekuz kanpokoegia jo-
tzea % 58,48koa ulertzaile proportzioa –*zertxobait* ulertzen dutela aitortzen

duten % 78 eta *ongi* edo *nahikoa ongi* ulertzen dutela aitortzen duten % 45 herritarren arteko kopurua—, % 58,48 horiek jotzen badute bere burua *ia-euskaldun* dela *ia-euskaldun alfabetatu*, *alfabetatu gabe* edo *pasibo*.

2.3.4. *Zenbat gara ordea euskaldunon komunitatean euskaldun bihotzeko, konpromiso etikotarako prest...?*

Hurbilpenezko bi galdera behintzat egin genitzake, interesgarri:

1. Zenbat gara gaur egun benetan euskaraz bizi garenok, euskaraz jakinda euskaraz bizi nahi eta ahalean bizi garenok, euskaldunon komunitate?
2. Horietatik zenbat izan gaitzke prest aipatu konpromiso etiko / zin egitearen 3 puntuak betetzeko?
 - Euskaldunarekin beti euskaraz.
 - Euskara ulertzen duenarekin beti euskaraz.
 - Euskara jakin behar lukeenarekin ere (beti) euskaraz.

Lehena betetzeko? Bigarrena betetzeko? Hirugarrenean abiatzeko?

Egia esan, nik ez dakit, eta ez zait ere batere erraza egiten ideia garbirik egitea, ez galdera baten ez bestearen erantzunen inguruan, modu askotako datuak nahastu genitzakeelarik.

2.3.4.1. Hainbat kopuru zenbaki Euskal Herrian euskaraz bizi gaitzkeenon inguruan

Zenbait datu (eta galdera) segidan, zertxobait hurbildu gaitzaketenak euskaldunon komunitatearen dimentsio errealetara (ondoko aipu gehiengotan azpimarrak gureak dira, eta hainbatetan eragin ditugu tipografia aldaketak ikusgarritasuna erraztearren):

- **Euskal Herriko biztanleak:** $\approx 3.000.000$
- **Euskara ulertzen du:** $> 1.500.000$ ($> \% 50$)

- **Euskal hiztun:** ≈ 900.000 ($\approx \% 30$)
- **Erdaldun huts:** $< 1.500.000$ ($< \% 50$)
- **Euskara bakarrik lehen hizkuntza:** ≈ 500.000 ($\approx \% 16,67$)
- **16 urtetik gorako euskarazko hedabideen kontsumo unibertsoa:**
- **Elebidunak** (ondo hitz egiten dute euskaraz eta erdaraz) **665.800** lagun (Arrieta 2008, 142 -2006ko IV. *Inkesta Soziolinguistikoa* oinarri) [**714.000** (Eusko Jaurlaritza, 2013 – V. *Inkesta Soziolinguistikoa – 2011*)].
- **Elebidun hartzaileak** (euskaraz ondo mintzatzen ez badira ere, ondo ulertzeko gai direnak) **397.900** (Arrieta 2008, 142 -2006ko IV. *Inkesta Soziolinguistikoa* oinarri) [**388.000** (Eusko Jaurlaritza, 2013 – V. *Inkesta Soziolinguistikoa – 2011*)].
- Beraz, **euskarazko produktuak kontsumi ditzakete** naturalki-edo **1.063.700** lagunek Euskal Herrian. Ikus-entzunezko hedabideen kasuan, edota tokian tokiko egunkari eta aldizkarien kasuan, hau izan liteke merkatu potentziala... (Arrieta 2008, 142 -2006ko IV. *Inkesta Soziolinguistikoa* oinarri) [**1.102.000** (Eusko Jaurlaritza, 2013 – V. *Inkesta Soziolinguistikoa – 2011*)].
- «... euskarazko hedabideen kontsumoaren [...] unibertsoa osatzen dutenak dira EAEko eta Nafarroako eremu euskalduneko eta mistoko (eta Iparraldeko bost udalerritako) 16 urte edo gehiagoko euskaldunak eta euskarazko prentsa ondo ulertzeko eta irrati/telebistako programak euskaraz nahiko ongi edo ongi ulertzeko gai direla dioten euskaldun hartzaileak: guztira, **690.250** pertsona. Zehatz esanda, azterketa demolinguistikoetako tipologietan «euskaldunak» diren guztiak eta «euskaldun hartzaile» direnen $\% 10$.» (P. Baztarrika 2015, 126).
- **Euskara darabil / hitz egiten du egunero** (*zertxobait, nahikoa, asko, beti*):
 - **EAE**n (2011ko *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua* - EUSTAT):
 - **Etxean euskara bakarrik 298.622** herritarrek ($\% 13,70$ ek).

- **2 urte edo gehiagoko 288.900ek** (% 13,63), zeinetako **284.639** euskaldun, eta 4.261 ia-euskaldun.
- **Etxean euskara eta espainola** darabilte **163.378** herritarrek (% 7,50ek).
 - **2 urte edo gehiagoko 159.066ek** (% 7,50), zeinetako 138.546 euskaldun, eta 20.520 ia-euskaldun.
- **Etxean euskara bakarrik edo euskara eta espainola** darabilte **462.000** herritarrek (% 21,20ek).
- **EHN** (2011, V. *Inkesta Soziolinguistikoa*, Eusko Jaurlaritzza 2013):
 - **16 urte edo gehiagoko herritar guztien artetik:**
 - **Euskaraz erdaraz baino gehiago** egiten du **262.251** herritarrek (% 9,9k).
 - **Euskaraz erdaraz beste** egiten du **164.238** herritarrek (% 6,2k).
 - **Euskaraz erdaraz beste edo gehiago** egiten du **426.489** herritarrek (% 16,1ek).
 - **16 urte edo gehiagoko euskaldunen artean:**
 - **Euskaraz erdaraz baino gehiago** egiten du euskaldunen % 36,8k (262.752).
 - **Euskaraz erdaraz beste** egiten du euskaldunen % 22,6k (161.364).
 - **Euskaraz erdaraz beste edo gehiago** egiten du euskaldunen % 59,4k (424.116).
- **Euskaraz lan egiten dugu egunero** (\approx euskalgintza?) (euskal prentsa, irrati, telebista, irakaskuntza, euskaltegiak, euskararen industriako enpresak, funtzionarioak, bestelakoak...). Zailagoa dugu kopuru global bat iristen, baina badakigu:
 - «Jadanik **euskarazko komunikazio-esparruan 1.000** langiletik oso gora ari garela kontuan hartuta, ohiko kultur ikuspegitik atera eta

berezko ekonomi esparru gisa hartu beharko genuke gure sektorea, beste sektoreen moduan (automozioa, burdingintza...)» (J.M. Irázusta, ap. Eusko Jaurlaritza 2008a, 193).

- «Euskaraz ari den ia **1.000 kazetari** dago Euskal Herrian. Horiek guztiak artikulatu ezker, ez dago Murdoch edo Polanco-rik gurean horrenbeste baliabide jar ditzakeenik.» (M. Irizar, ap. Eusko Jaurlaritza 2008a, 206).
- **EAEn (2014/15 ikasturtea)** 43.837 irakaslek dihardu, araubide orokor -42.606-, zein bereziko -1.231- irakaskuntzetan, publiko -28.889-, zein pribatuetan -14.948-, unibertsitatez kanpoko mailetan -36.788-, zein unibertsitate ikasketetan -5.818-. Denera **30.000 irakasletik gora** (irakasle guztien % 68,44tik gora) izan litezke EAEn bere klaseak (guztiak edo batzuk behintzat) egunero euskaraz ematen dituztenak (EUSTAT, 2017d).
- **EAEn (2014/15 ikasturtea)** 486.870 ikasle daude, araubide orokor -452.264-, zein bereziko -34.606- irakaskuntzetan, publiko -288.825-, zein pribatuetan -198.045-, unibertsitatez kanpoko mailetan -419.810-, zein unibertsitate ikasketetan -67.060-. Denera **300.000 ikasletik gora** (ikasle guztien % 61,62tik gora) izan litezke EAEn bere klaseak (guztiak edo batzuk behintzat) egunero euskaraz hartzen dituztenak (EUSTAT, 2017d).
- **Euskara entzuten du egunero hedabideetan** (*zertxobait, nahikoa, asko, beti*): **170.000** herritarrek?
- «**Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea, Bizkaia Irratia, Arrate Irratia, Segura Irratia...** eta beste irрати euskaldun [nagusiki euskaldun] batzuen entzuleak elkartz gero **170.000 irрати-entzule egunero** [astelehenetik iganderako batez bestekoan].» (J. Beloki, ap. Eusko Jaurlaritza 2008a, 147).
- «**Aldi bereko irрати-entzule** euskaldunen kopuruari erreparatuz gero, goizeko 9etatik 10ak artekoa izan liteke ordurik oparoena eta hor, **60.000** euskaldun daude **aldi berean euskarazko emaldiren bat entzuten**. Euskaldungoaren % 10a. Kontuan har-

tzeko kopuruak dira.» (J. Beloki, ap. Eusko Jaurlaritza 2008a, 147).

- «2007ko apirilaren 16an, adibidez, **156.000** euskaldunek ikusi zuten **Goenkale**. Eta apirilaren 22ko **Kutsidazu**, **Ixabel** berriz **168.000** ikusle euskaldunek. Adin guztietakoak ikusle, gazteak ere bai.» (J. Beloki, ap. Eusko Jaurlaritza 2008a, 146).
- «**Merkatu potentziala euskarazko telebistarentzat EAEn: 571.000 ikusle.**» (O. Kruzeta, ap. Eusko Jaurlaritza 2008a, 253).
- «**Irratiak**: irrati publikoei dagokienez, **Euskadi Irratiak 133.181 entzule** ditu, eta **Gazteak**, berriz, 16 urte edo gehiagoko **112.797 entzule** (kontuan izatekoa da, *Gaztearen* entzule asko 16 urte baino gutxiagokoak direla).
- **Tokiko irrati pribatuei** dagokienez, berriz, **Arrate Irratia** eta **Bizkaia Irratia** dira entzule gehien dituztenak, **10.943** eta **7.253**, hurrenez hurren. Ondoren dator **Euskalerrria Irratia**, **5.362 entzule-rekin.**» (P. Baztarrika 2015, 128).
- «**Telebistak**: **ETB 1ek 253.385 ikus-entzule** ditu, eta **ETB 3k, 25.554 ikus-entzule**. Kontuan izan behar da, ETB 3ren ikus-entzule asko, gehienak seguruenik, 16 urtetik beherakoak direla.
- **Tokiko telebista pribatuei** dagokienez, berriz, **Hamaika TB** da audientzia altuena duena, **5.420 ikus-entzule**, eta hurrena dator **Goiena TB**, **2.143 ikus-entzulerekin.**» (P. Baztarrika 2015, 129).
- «Denok dakigu ikus-entzunezkoen kontsumoa prentsarena baino askoz ere altuagoa dela eta euskaldunon artean ere berdina da, baina euskarazko produktuen kontsumoa aztertzen hasitakoan, irrati eta telebistaren kontsumoa ez da euskarazko prentsa kontsumotik hainbeste urruntzen. Eta honek kezka sortzen digu, **euskarazko hedabideak naturaltasunez eta maiztasunez kontsumitzen dituztenak 100.000tik behera ez ote diren.**» (Arrieta 2008, 142).

14. irudia

Hego Euskal Herria	Ikus-entzule kopurua (CIES 2006)	Euskaldunen	Euskaldun eta ia euskaldunen
Euskadi Irratia	82.000	% 14,13	% 7,97
Euskadi Gaztea	53.000	% 8,61	% 5,15
ETB1	213.000	% 36,72	% 20,71
ETB1 ordutegi ikusienean	80.000	% 13,79	% 7,78

- **Euskara irakurtzen du egunero** (*zertxobait, nahikoa, asko, beti*): Zentzuzkoak?
 - «**BERRIA** edo aldizkari eta prentsa espezializatua irakurtzeko gaitasuna dutenak 665.800 baino ez lirateke izango.» (Arrieta 2008, 142).
 - «Eusko Jaurlaritzaren HPS-ren ikerketan irakur daiteke [Euskarazko hedabideak, 2006 –argitaragabea nonbait–] gaur egun EAEn 16 urtetik gorakoaren artean **613.000** lagunek **euskaraz irakurtzeko gaitasuna dutela** (HPS 19), baina benetan hori al da prentsa idatziaren publiko potentziala? / Datuek zeharka baina sendo islatzen dute idatzizko prentsaren publiko potentziala zinez kopuru hori baino txikiagoa dela.» (Zubiri, Retortillo, Aierdi 2008, 93).
 - «**[E]gunkari irakurle euskaldunak 330.000 inguru izan daitezkeela** [sic]ondoriozta daiteke.» (Arrieta 2008, 142).
 - «**Merkatu potentziala euskarazko prentsarentzat EAEn: 333.000 irakurle.**» (O. Kruzeta, ap Eusko Jaurlaritza 2008a, 253).
 - «Inkestaturen % 22k ez du inolako egunkaririk irakurtzen (gogora dezagun: euskaldunek eta euskaldun hartzaileen % 10ek –euskal-

dun hartzaile izanik prentsa ondo ulertzen dutela edo euskarazko irrati/telebista ondo edo nahiko ondo ulertzen dutela diotenak-osatzen dutela inkestaturen unibertsoa). / Euskarazko irakurle potentzialen % 70,2k (484.871) ez du inoiz ere euskarazko egunkariarik irakurtzen.

- % 29,8 (205.379) da **euskarazko egunkariaren bat egunero edo astean hiruzpalau aldiz edo noizean behin irakurtzen duena**. Kontuan hartzekoa da, CIESen 2014ko datuen argitan, bere ikerketa-unibertsoan, EAEn egunkariaren bat egunero irakurtzen dutenak («atzo» irakurri zutenak) 893.000 direla.» (P. Baztarrika 2015, 129).
- «Nolanahi ere, **ez beti denak eroso-eroso**. *Berria* eta *Hitza* aldizkariaren irakurlegoarena da nabarmenena: *Berria*-ren irakurleen % 46ak dio erraztasun handiagoa duela gazteleraz irakurtzeko. *Hitza*-ren irakurleen % 55ak dio gauza bera. *Argia* eta beste aldizkari espezializatuen kasua kenduz gero, euskaldun askok egiten du aitormen hori: euskaraz baino erosoago irakurtzen duela gazteleraz». (J. Beloki, ap. Eusko Jaurlaritzza 2008a, 148).
- **Euskaldunon egunkaria** zena, batez besteko **salmenta** egunero:
 - 1994: **11.560** (Diaz de Tuesta ≈1996-7, 5-6).
 - 1995: **12.188** (Diaz de Tuesta ≈1996-7, 5).
- **Euskaldunon egunkaria** batez besteko **irakurleak** egunero:
 - 1991: **27.000** (Diaz de Tuesta ≈1996-7, 7).
 - 1995: **17.100** (Diaz de Tuesta ≈1996-7, 7).
 - 1996: **32.000** (Diaz de Tuesta ≈1996-7, 7 –CIES–).
- **Berria** egunkariaren batez besteko **irakurleak** egunero (2008-1, CIES): **69.000** (Elebidunen % 11,2; Elebidun eta elebidun hartzaileen % 6,95) (Arrieta 2008, 141).

- **Berria** egunkariaren **tirada** (2010): **16.400** (Eusko Jaurlaritza 2011c, 79).
- **Berria** egunkariaren **harpidedun** (2015): **9.344** (M. Otamendi, Euskaltzaindia, 2015 –*Jardunaldian* emaniko datua, *kronikan* jaso ga-bea–).
- **Berria** egunkariaren batez besteko **salmenta** egunero (2015): **12.800** (M. Otamendi, ap. Euskaltzaindia 2015, 113).
- «**Berriaren irakurleak**, paperean eta interneten irakurri dutenak batura, **36.644** dira.» (P. Baztarrika 2015, 128).
- **Argiak** eta **Asteleheneko Goienkariak** **5.000**tik gora **harpidedun** dituzte. (M. Irizar, ap. Eusko Jaurlaritza 2008a, 211).
- **Argia**: «CIES-en komunikabideetako audientziaren 2012ko lehen ikerketaren arabera, ARGIA aldizkariak **57.000 irakurle** ditu, **51.000 EAEn** eta **6.000 Nafarroan**.» (Argia, 2012).
- **Argia**: **12.800 ale** argitaratzen bide ditu (2016) (sarean bildua).
- Aldizkari espezializatuen artean, **Aizu** da irakurle gehien dituen, **2.503 irakurle**, eta ondoren dator **Elhuyar**, **1.947 irakurlerekin**.» (P. Baztarrika 2015, 128).
- **Herria** astekaria (Iparraldea): **3.000 ale** inguru kaleratzen ditu (Wikipedia, 2015).
- «Euskarazko **herri-aldizkarien hedapen eta zabalkundeari** buruz egindako ikerketen arabera, aldizkariok argitaratzen duten ale bakoi-tza hiru-lau lagunek irakurtzen dute. Hortaz, bada, euskarazko herri-prentsak zenbakiko kaleratzen dituen **125.350 aleak** **375.000 lagun inguruk irakurtzen dituzte**: bi euskaldunetik batek irakurtzen du euskarazko herri-prentsa, alegia. Euskarak inoiz lortu duen irakurle-kopururik handiena.» (Diaz de Tuesta ≈1996-7, 13).

15. irudia

Euskarazko herri-prentsa maiztasun eta tiradaren arabera
1996an

Maiztasuna	Tirada	Aldizkariak
Astekariak	35.650 ale	8
Hamaboskariak	24.500 ale	7
Hilabetekariak	53.700 ale	23
Beste batzuk	1.500 ale	14
Guztira	125.350 ale	52

Iturria: ... aldizkariak eurek emandako datuak, José Félix Díaz de Tuestak landutakoak

- «Datu hauek osatzearen, eta **tokiko prentsaren kontsumo-datuak** handiagoak direla ikusteko ikus dezagun azken taula:

16. irudia

Hitza argitaratzen den eskualdeetan	Ikus-entzule kopurua (CIES 2006) 1	Euskaldunen	Euskaldun eta ia euskaldunen
HITZA irakurleak atzo	77.000	% 34,57	% 23,60
HITZA tartetako irakurleak	198.000	% 89,18	% 64,91
Euskal Autonomia Erkidegoa			
Tokiko aldizkariak	193.000	% 31,60	

(M. Otamendi, ap. Eusko Jaurlaritz 2008a, 264).

- «**Eskualdeko Hitzak 15.976 irakurle** ditu.» (P. Baztarrika 2015, 128).
- **Tokiko aldizkariak** (aipatuak –*Goiena, Ttipi-ttapa, Anboto, Eta Kitto, UK, Uztarria, Barren, Aiurri*– denera): **68.572 irakurle**. (P. Baztarrika 2015, 128).

- Nolanahi, kopuru hauei guztiei erantsi beharko genizkieke egunero euskarazko letra artean lanean diharduten ikasle/irakasle gorago aipatuen kopuru haziagoak: **30.000 irakasletik gora / 300.000 ikasletik gora.**
- «**Euskal literaturaren irakurle kopurua** eta irakurleen ezaugarriak funtsezkoak dira kultur eremu honentzat, baina ez dago emaitza doituak eskaintzen dituen berriazko ikerketarik, salbu eta gazteen irakurketa ohituren ezaugarriei buruzkoa eta eskoletako literaturaren irakaskuntzari buruzkoa. Irakurleen errealitateari argazkia atera ahal izateko aztertu ditut egoera soziolinguistikoari, kultura-ohiturei eta irakurketa-ohiturei buruzko zenbait ikerketa, zeren, ikuspegi kritiko batetik analizatzen baditugu, zeharka isla baitezakete euskal literaturaren irakurleak zenbat eta nolakoak diren. Emaitzen izaera hipotetiko den arren, errealitatera hurbiltzeko balio dute:
 - [O]hiko irakurle sutsuenak 15.000-20.000 inguru lirerateke,
 - [O]hiko irakurle moderatuak 40.000 inguru, eta
 - [T]artekakoak une jakinetan 100.000-150.000 (aurrekoak barne).

Gehiengo zabala

- Gipuzkoan eta Bizkaian bizi da, batik bat lehenengoan, eta,
- Ziur aski, irakurle kopurua handiagoa da **emakumezkoen artean,**
- **25-54 urte artekoetan,** eta, agian,
- **Unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.»** (Zubiri 2013, 51).
- **Denera: Zenbat hedabide kontsumitzaile ohiko?**
 - «Gainera, euskal hedabide mota guztiak ez dira **euskal hedabideen kontsumitzaile** guztietara iristen. Beren kopuruak sakabarnatuta daude. CIESen datuen arabera [2007] (ikus 1. Taula [19. irudia]):
 - EAEn, oro har, **irratia eta telebista 170.000na** [sic] inguru kontsumitzaile izango lituzkete.

- Eguneroko **prentsak** 123.000 kontsumitzaile lituzke.
- **Internetek** 23.000 kontsumitzaile lituzke.
- Eta, azkenik, **argitalpenek** 284.000 kontsumitzaile lituzkete.

17. irudia

Euskal hedabideen kontsumitzaile kopurua eta hedabide mota bakoitzaren ehunekoa EAEn hedabide motaren arabera, 2007 (kopuru absolutuak eta ehuneko bertikalak)

Hedabide mota	Kontsumitzaile kopurua	Ehunekoa
Argitalpenak	284.000	36,4
Irratia	173.000	22,2
Telebista	169.000	21,7
Eguneroko prentsa	123.000	15,8
Interneta	23.000	2,9
Irismena guztira	450.000	57,7
Euskaldunak	780.000	

Iturria: CIES

(Zubiri, Retortillo, Aierdi 2008, 85-6).

- CIESen arabera [2007] (ikus 3. Taula [20. irudia]), honakoak dira **gehien kontsumitzen diren hedabideak** [...]. Eusko Jaurlaritzaren HPSk egin duen ikerketan ere [*Euskarazko hedabideak*, 2006 –argitaragabea nonbait–] hurrenkera bera errepikatzen da, nahiz eta kopuruak, neurtzeko modu ezberdinak direla eta, aldatu egiten diren.

18. irudia

Euskal hedabideen kontsumitzaile kopurua EAEn hedabidearen arabera, 2007 (kopuru absolutuak)

	CIES	HPS	
		Atzo	30 min <
ETB1	163.000	319.000	202.300
Euskadi Irratia	84.000	105.200	64.500
<i>Hitza</i>	78.000	93.900	49.100
<i>Berria</i>	62.000	90.400	46.800
Euskadi Gaztea	59.000	73.600	44.600

Iturria: CIES eta Eusko Jaurlaritzaren HPS

(Zubiri, Retortillo, Aierdi 2008, 87).

- CIESen arabera [2007] (ikus 4. Taula [21. irudia]), **euskal hedabideen kontsumitzaile** kopuru handiena Gipuzkoan dago (%47,9), ondoren Bizkaian (%43,7) eta azkenik Araban (%8,3).

19. irudia

Euskal hedabideen kontsumitzaile kopuru absolutua, erlatiboa eta irismena herrialdearen arabera 2017 (kopuru absolutuak eta ehuneko bertikalak)

<i>Herrialdea</i>	<i>Kopuru absolutua</i>	<i>Kopuru erlatiboa</i>	<i>Irismena</i>
Araba	65.000	8,3	37,9
Bizkaia	341.000	43,7	47,4
Gipuzkoa	374.000	47,9	70,5
GUZTIRA	780.000	100	57,7

Iturria: CIES

(Zubiri, Retortillo, Aierdi 2008, 87-88).

- CIESen arabera (2007) (Zubiri, Retortillo, Aierdi 2008, 88 –moldatua–):
 - Euskal hedabideen **kontsumitzaile kopuru handiena** –% 39,3–, **10.000 eta 50.000 biztanle arteko udalerrietan** dago (307.000 kontsumitzaile; % 62,0ko irismena –hirugarren altuena–).
 - % 25 bizi da **hiriburuetan** (195.000 kontsumitzaile; % 41,5eko irismena –txikiena–).
 - % 16,3 bizi dira **5.000 biztanletik beherako udalerrietan** (127.000 kontsumitzaile; % 68,6ko irismena –altuena–).
 - % 12,0 bizi da **5.000 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan** (94.000 kontsumitzaile; % 66,1eko irismena –bigarren altuena–).
 - Eta % 7,4 berriz **50.000 biztanletik gorako udalerrietan** (57.000 kontsumitzaile; % 51,42ko irismena –bigarren txikiena–).
- «Norbera beti da, komunikazioaren soka-saltoan, batzuetan sokari eragiten diona eta besteetan soka-saltoan dabilena. Eta jolas horretan, hartzaile eta emaile, **euskarazko hedabideen soka-saltoan leial xamar bizi garen euskaldunon kopurua**, hor nonbait dabil beti, izan telebista, izan irratia ala prentsa, **170.000ren** inguruan.» (J. Beloki, ap. Eusko Jaurlaritza 2008a, 147-8).
- «Nolanahi ere, **euskarazko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko hedabide ezberdinen merkatuan, egunero, 170.000** arima leial jira-biran dabilz-kigula ziurtatzea, neuri behintzat oso ganorazkoa eta kontuan hartzekoa iruditzen zait. Kontuak egiten hasita: astegun goiz bateko 10:00ak inguruan **60.000ren** bat [sic] entzule biltzen dituzte euskarazko irratiek [*Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea, Bizkaia Irratia, Arrate Irratia...*], beste **18.000/20.000** inguru ETB1 ikusten dutenak..., aldi berean ikastetxe-maila ezberdinetan euskaraz ikasten ari direnak [haur, gazte eta heldu] **200.000tik** gora direnean. Inoiz ez bezalako komunikazio-esparru zabalak.» (J. Beloki, ap. Eusko Jaurlaritza 2008a, 149).
- «Gaur egun telebistak dauka publiko potentzial handiena, ondoren irratiak eta azkenik prentsa idatziak. Hizkuntza gutxiagotu baten kasuan hedabide moten arteko ezberdintasuna nabarmenagoa da: iku-

sentzutezkoa errazago iristen da, soilik entzutekoa dena ez da hainbeste iristen eta idatzizkoak dauka publiko potentzial txikiena. / Ondorioz, telebistaren arrakasta egoera honetan legokiokeena baino txikiagoa da, irratia erdibidean dago eta prentsa idatziarena, berriz, itxuraz dirudiena baino handiagoa da.» (Zubiri, Retortillo, Aierdi 2008, 93).

- «**Euskal hedabideen kontsumitzaileen nukleoa** zehazte aldera baliagarria izan liteke CIESen *Euskarazko komunikabideen polikontsumoari buruzko azterlana*. Ikerketa honetan euskal hedabideak kontsumitzen direnetz kontuan hartuz eta kontsumitzaileen artean zenbat hedabide kontsumitzen dituzten aintzat hartuz honako tipologia eraiki dute:
 - **Ez-kontsumitzaileak** (EAEko euskaldunen % 42,4).
 - **Ez oso kontsumitzaileak** (EAEko euskaldunen % 31,2).
 - **Kontsumitzaile ertainak** (EAEko euskaldunen % 16,9).
 - **Kontsumitzaile handiak** (EAEko euskaldunen % 9,5).
 - CIESen emaitzen arabera, **kontsumitzaile ertainak 131.000** lagun lirateke.
 - **Kontsumitzaile handiak**, berriz, **74.000** lagun.

Hortaz,

- **Nukleo sendoena 74.000** kontsumitzaile hauek osatuko lukete.
- Ikerketa honen arabera, kontsumitzaile handien **perfila** honakoa da:
 - **36 eta 65 urte artekoak,**
 - **Estatus altua edo ertain-altua,**
 - **Gipuzkoarrak batez ere eta**
 - **50.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi dira eta**
 - **Unibertsitate ikasketak** dituzte.
- **Nukleo zabalagoan** sartuko litzateke **131.000** kontsumitzaileen multzoa.
- CIESen emaitzen arabera, kontsumitzaile handien eta ertainak barne hartuko lituzkeen multzoaren **perfila** honakoa litzateke:
 - **36 eta 65 urte artekoak,**

- **Gipuzkoarrak,**
- **10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietakoak eta**
- **Elebidunak.**» (Zubiri, Retortillo, Aierdi 2008, 95-96).
- «Nolanahi ere, kontsumitzaile ertain eta handientzat aipatu ditugun **perfil** hauek joera orokorrak dira. Oso baliagarriak dira joera nagusiak ikusteko. Baina, halaber, oso interesgarria da kontsumitzaileak hedabidez hedabide ikertzea zeren modu horretan ikus baikenezake nukleo horretan, kontsumitzaile handiak eta ertainak kontuan hartuz, ezauzgarri ezberdinak dituzten azpimultzoak daudela...

20. irudia

Euskal hedabideen kontsumoa EAEn hedabide motaren eta ikasketa mailaren arabera, 2007 (ehuneko bertikalak)

<i>Ikasketa maila</i>	Guztira	Eguneroko prentsa	Irratia	Telebista	Argitalpenak	Internet
Oinarrizko baino guxiago	4,5	2,8	5,8	8,2	2,6	1,1
Oinarrizkoa	14,6	14,6	16,2	20,1	13,4	3,7
Oinarrizko Batxilergoa / LH	18,3	12,7	13,9	15,9	17,2	10,4
Goi mailako Batxilergoa / BBB	27,7	26,0	29,7	25,8	27,8	19,4
Unibertsitarioa	35,0	43,8	34,3	30,0	39,1	65,4
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Iturria: CIES

(Zubiri, Retortillo, Aierdi 2008, 96).

- Berriro ere politikoki zuzenegia izango ez bada ere, nik uste dut erraz erantsi lekiekeela profil ezaugarri hauei guztiei, kontsumitzaile handiak eta are ertainak, oro har, **ezker abertzalearen hurbilekoak** ote diren.

- **Denera: Hizkuntza erkidegoaren nukleoa, erdigunea... Zenbat ote gara?**
 - «... biziraupenaz ari garelarik, erabilgarria izan liteke euskararen hizkuntza erkidegoa zirkulu kontzentrikoz osatutako fenomeno bezala aztertzea. Erkidegoaren erdigunean nukleo bat legoke eta bere inguruan zirkulu kontzentrikoak egongo lirateke. **Nukleoa, hizkuntza erkidegoaren gune dinamikoena** litzateke, euskararekiko atxikimendu handiena luketenak (atxikimendu praktikoa, ez sentimentala). Nukleoa ezinbestekoa da erkidegoaren sendotasunerako, beronen bizi indarrak eta dinamikotasunak nabarmen baldintzatzen dute erkidegoaren bizitasuna. Baina zirkulu kontzentrikoak ere ezinbestekoak dira, batik bat bizirauteko zabaltzea derrigorrezkoa duen hizkuntza gutxiagotu batentzat. Euskararen hizkuntza erkidegoak nukleo sendoa eta ahal bezain zabala behar du eta, halaber, zirkulu kontzentrikoetara hedatzeko gaitasuna behar du.

Bada, **euskal hedabideak nagusiki nukleora iristen dira**. Nukleoaz kanpoko zirkulu kontzentrikoetan eragin txikia dute. Eragina txikitu egiten da nukleotik urrundu ahala. 6. Taulan ikus dezakegunaren arabera [23. irudia],

- Euskal Herrian oro har soilik euskaldunen % **17,3ak du lehen hizkuntza euskara**.
- Aitzitik, **euskal hedabideak kontsumitzen dituztenen artean gehiago zabalak euskara du lehen hizkuntza**. *Hitza, Berria* eta Euskadi Irratia kontsumitzen dituztenen artean hamarretik zortzi inguru dira. ETB1 eta Euskadi Gaztea kontsumitzen dituztenen artean, berriz, hamarretik sei eta zazpi artean dira.

Baldin eta norbanako bat hizkuntza erkidego baten nukleoan edo zenbatgarren zirkulu kontzentrikoan dagoen definitzeko **lehen hizkuntza zein den kontuan hartzen badugu**, esan genezake **euskal hedabideak batik bat euskararen hizkuntza erkidegoaren nukleoan edo nukleotik hurbil daudenek kontsumitzen dituztela**.

Euskararen hizkuntza erkidegoaren nukleoan nor kokatu erabakitzea ez da lan erraza eta, erreferentzia bakarra euskaldunen lehen hizkuntza bada, norbanako bat nukleoan kokatu behar denetz erabakitzea are eztabaidagarriagoa da, baina gutxienez beste ikerketa bateko datuek islatzen duten bezala [Aierdi eta beste: *Bertsolaritza, tradizio modernoa*, EHU-UPV, 2007], 6. Taulan [23. irudia] ikus ditzakegun datuek ere erakusten dute **lehen hizkuntzaren erreferentzia ez dela nahikoa baina baliagarria dela** zenbait joera islatzeko. Izan ere, itxura denez **lehen hizkuntza euskara dutenek euskararen hizkuntza erkidegoaren nukleoan edo nukleotik hurbil egoteko probabilitate handiagoak dituzte**. Beren kontsumo ohituretan nabarmen islatzen da hori. Orain aztergai dugun eremuan, esate baterako, oso argi ikusten da lehen hizkuntza euskara dutenek askoz gehiago kontsumitzen ditzutela euskal hedabideak. Fenomeno honek gaur egungo hizkuntza transmisio prozesuaren gorabeherak islatzen ditu. [...]

21. irudia

Euskal Herriko biztanleak lehen hizkuntzaren arabera eta euskal hedabideen kontsumitzaileen lehen hizkuntza EAEn hedabidearen arabera, 2007 (ehuneko bertikalak)

<i>Lehen hizkuntza</i>	<i>EHn 16 urte < (2001)</i>	<i>ETB1</i>	<i>Berria</i>	<i>Hitza</i>	<i>Euskadi Irratia</i>	<i>Euskadi Gaztea</i>
Euskara	17,3	67,0	75,0	84,0	75,0	60,0
Gaztelania	77,7	26,0	20,0	10,0	19,0	30,0
Euskara eta gaztelania	5,0	7,0	6,0	6,0	6,0	10,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

(Zubiri, Retortillo, Aierdi 2008, 87-88).

- «Nolanahi ere, azalpen honetan ez **genituzke nahastu nahi hizkuntza erkidegoaren nukleoa eta euskal hedabideak kontsumitzen dituztenen nukleoa**. Bi nukleo ezberdin dira. Gure hipotesia honakoa da: euskararen hizkuntza erkidegoaren nukleoko kideek osatzen dute euskal hedabideen kontsumitzaileen nukleoa. Baina horrek ez du esan nahi hizkuntza erkidegoko kide guztiak euskal hedabideen kontsumitzaile handiak direnik, ezta euskal hedabideen kontsumitzaileen nukleoan ez dagoenik euskararen hizkuntza erkidegoko kide ez diren biztanleak ere.» (Zubiri, Retortillo, Aierdi 2008, 95).
- «Eusko Jaurlaritzaren HPSk 2008an argitaratu gabeko Euskal Hedabideak EAEn txostenean oso argi azaltzen da (Eusko Jaurlaritza 2008b, 22): **Euskararen hizkuntza erkidegoa** zirkulu kontzentrikoz osatutako fenomeno bezala begiratzen badugu, esango genuke, batetik, **nukleoa** txikia dela (100.000 lagun inguru) baina euskararen biziraupenerako ezinbestekoa dela hau elikatzea, eta bestetik, nabarmenduko genuke euskararen hizkuntza erkidegoan periferia osatzen dutenen kopurua nukleoarena baino askoz handiagoa dela eta euskararekiko atxikimendua oso txikia dela geruza gehienetan baina periferia elikatzea eta nukleorantz erakartzea ere ezinbestekoa dela euskara normalizatzeko.» (Aiestaran 2010, 67).

Amaitzeko, nola lotu genitzake kopuru hauek guztiak? Zer esan nahi dute zenbakiok? Zenbat euskaldun bihotzeko gaude, euskaraz jakinda euskaraz bizi nahi eta ahalean euskaraz bizi garenak, edota berehala bide horretan abiatzeko prest gaudekeenak?

- Gehienera ere orain urtebete lagun preziatu batek iragartzen zizkidan *Erlea* aldizkariak helburutzako ematen dituen 1.700ak?
- Egunkari, astekari nagusien harpidedun izan gaitezkeen 10.000/15.000 inguruak?
- Arrietak eta Otamendik iragartzen dizkiguten «euskarazko hedabideak naturaltasunez eta maiztasunez kontsumitzen dituzten 100.000tik beherakoak?»
- J. Belokik euskararen eguneroko kontsumoko igartzen dituen 170.000ak?

- Edota agian 500.000 inguru ere bai, irabaziak eta galerak kontuan, euskara familiako lehen hizkuntza bakar gisa jaso dugun herritar kopuruaren inguruan?
- 500.000 baino gehiago ere bai, azken 30/40 urtean, batez ere EAEn, baina are Nafarroa Garaian ere, lortzen ari garen irabazien errentan?
- Esan nahi ote dute ezer urtero **Kilometroak, Ibilaldia, Araba euskaraz, Nafarroa Oinez, Herri Urrats** festek inguratu ditzaketen 100.000 herritarren kopuruek?

Edo azkenean ez da gure imajinazioaren engainu hutsa baino izango euskaldunon komunitatea indartzeko aukera? Are euskaldunon komunitatea bera benetan? Dozena erdi lagun txororen kontua? Nahi eta ezin? Arrautza zuringo harrotu berria, *soufflé* lehortu gabea, berehalako batean bertan behera etorriko dena, urtu beste aukerarik ez dugun elur epel?

Eta izan ere, hortxe gaude. Asmatu ala hil.

Azken 40/50 urtean baliabide berri asko lortu dugu jartzea hainbat leku eta esparrutan euskaldunon komunitatearen esku. Eta emaitza onak izatea ere bai, batez ere EAEn eta Nafarroa Garaiko eremu euskaldunean. Hortik gure esperantza piztua, are Iparralderako eta Nafarroa Garaiko erdi eta hegoaldearako ere. Eta ezinbestekoa dugu hauetara ere zabaldu ahal izatea EAEn eta Nafarroa Garaiko eremu euskaldunean jada eskuratu ditugun baliabideak. Eta guztietara ere baliabide berriak, gutxienez euskaldunon komunitateak ere lortu arte gure lurreko erdal komunitateek dituzten adinako eskubideak.

Baina bide horretan, eta besteak beste, ezinbestekoa dugu euskaldunaren konpromiso pertsonala bilatzea eta sustatzea. Eta agian ez da horren garrantzizkoa aipatu dugun bigarren galderaren erantzuna eskuratzea (Zenbat euskaldun ote gara prest aipatu konpromiso etiko / zin egitearen 3 puntuak betetzeko?), baizik eta dagoenekotik lan etengabea egitea konpromiso etiko hori / zin egite hori zabaltzen eta betetzen, mailaz maila, pertsonaz pertsona, eta batez ere gure gazteen artean, hor dugunez etorkizuna. Berririo aipatuko dugu:

1. Ziurtatuz lehenik euskaldunari beti euskaraz egingo diogula, honek zernahi egiten digularik ere.

Eta areago, Hegoaldean askori zaila zaiguna, euskañolik gabe jardutea. Ahal dugunok behintzat, ezin dugu jardun esaldi bat euskaraz eta bost espainolez/frantsesez. Behingoz hasi beharko dugu gure txisteak, txantxak, ironia eta *boutadeak* ere euskaraz egiten, espainolaren (/frantse-saren) glotofagia aseezinari momentuero bide ematen, gure errazkeria, utzikeria medio. Zenbat gauza berri bitxi asmatuko dugun ezinbestean euskaraz euskañolik (/...) gabe!

2. Bigarrenik, zailago dirudiena, beti euskaraz egiten euskara ulertzen duenari, honek zernahi egiten digularik ere.

Are askotan gure hizkuntza maila hainbat moldatu beharko badugu ere. Hasieran bitxi egin lekiguke halako elkarrizketa asimétriko eta elebidunean jardutea. Lehen aldietan baino ez. Berehala eskertuko digu gure solaskideak, eta areago, bera ere berehala hasiko zaigu bere euskara apurrarekin saiaturen eta lotsagabetzen behin eskaini/onartu diogularik berak finean horrenbeste desio izan duen euskaldunon klubeko partaidetza.

Eta baita ere guraso eta seme-alaben arteko esparru berria zabaltzen, denon laguntzaz, eta gurasoen beraien eztenkadaz. Eskolan/kalean ongi euskalduntutako seme-alabak bultzatuz, ausartaraziz, lotsagabetuaraziz euskaraz egin diezaieten guraso elebidun hartzaile ia-euskaldun eta euskaltzale horiei. Alderantziz jazo zitzaigun gure aurreko belaunaldietan, seme-alabak erdaraz egiten guraso euskaldunei. Eta horri ere eman diezaiokegu buelta denon artean. Hastea da irabaztea.

3. Hirugarrenik, eta guztietan zailen, euskaraz egiten, eta euskaraz soilik, gure herrian euskara jakin behar lukeen guztiarekin, horrek *stress/distress* soziala eragingo badigu ere. Hartuko ote du EHEk bere gain atal honetako ardura ere?

Beharbada ez dio hainbeste inporta zehatz jakitea zenbat garen konpromiso honetan. Garrantzitsua da gero eta gehiago izan gaitezen. Berehala



duelako eragina gure inguruan. Eragina bertan hasten delako sentitzen gu euskaldunon inguruan mugitzen den komunitate euskalduna, eta komunitate elebidun hartzaile ia-euskalduna ere, eta komunitate erdalduna ezinbestean... Eta beste biderik ez dagoelako. Eta gazteetan daukagu esperantza eta gazteetara zabaldu behar dugu mezua eta erronka.

Eta guraso gazteetara, euskara familiako lehen hizkuntza gisa transmititu diezaieten seme-alabei.

Gaur egungo Hegoaldean bizi dugun bertako / bertakoago / etorkin / etorri zahar / etorri berri nahastearekin, zein bikote guraso berrik ez dauka bere jatorrian arbaso euskalduna zeini heldu bere euskal senean? Denok izan gaitzke euskaldun eta jatorri euskalduneko.

2.3.4.2. Baina eta uste dut bide onetik goazela, eta gainera gero eta hobeto ari garela seguru asko

Azken boladan asko ari garelako antzeko ekimenak zabaltzen. Topaguneak bultzatutako *Zergatik ez?* tailerrak (Kataluniako *Tallers per la Llengua* diseinatutako *Taller per al foment dels usos interpersonals en Llengua Catalana* tailerrean oinarri hartuta), EMUN enpresaren *TELP* tailerrak (Ferran Suay valentziar eta Gemma Sangines bilbotarraren Valentziarako asmatu-*Taller d'espai lingüístic personal*-en bidetik) eta hauen 2015eko *Irten hizkuntzaren armairutik* liburua (berriro Ferran Suay eta Gemma Sangines *Sortir de l'armari lingüístic* liburuaren egokitzapena –EMUN, 2015–), Lutxo Egiak 2015eko ekainean Bilbon garatutako *Transitoak* izeneko performancea, Donostiako Egiako auzoko *ℓ– Egian euskaraz bizi nahi dugulako* ekimena, eta honen harira hainbat lekutara zabaldu diren eta ari diren antzeko esperientziak (Donostiako Piratak, Añorga, Hernani, Lasarte-Oria, Astigarraga, Intxaurren Gipuzkoan; Agurain Araban, Arrigorriagan Bizkaian –ik. 15. irudia, *Nik bai! Nirekin bai!*–, ...). Taldearen arrimuan halako ekimenek asko animatu gaitzakete euskaldun bihotzekook gure ekinbehar eta konpromiso pertsonaletan aurrera egiten.

Eta ekimen bakoitzak bere ikur propioa sortu beharrik gabe (EAEko Osakidetza , Eusko Jaurlaritzaren , ...) edo sortuta ere horiekin batera, nik,

frankismo garaiko haiek legez, Villasanteren harian (Villasante 1988, 32-3), eta Galesen bide dagiten moduan, jarraitzen dut pentsatzen mesede egingo ligukeela halako ikur bateratu bat aukeratzeak euskaldunon komunitatearentzat, pertsona erraz identifikatuko gaituena euskaldunon komunitatearen parte, euskaraz bizitzeko prest gaudenon parte, gure / norberaren konpromisoa sendotu eta erraztuko diguna euskaraz jakinda ahalean euskaraz bizitzeko, eta gizarteari lotsagabe erakutsiko diona eredu gure / norberaren konpromisoa.

2.3.4.2.1. *Euskaldun bihotzekoon agergerria* kanpaina

2010. urte inguruan abiatu (ge)nuen hurbileko taldetxo batean *Euskaldun bihotzekoon agergerria* kanpaina, Villasanteren aipatu hitzak ere gogoraraziz (1988, 32-3), ^{ni euskaraz zu?} ^{nik zuk?} lemarekin eta 25. irudiko ikurrarekin (ik. kanpainako webgunea eta bertan erantsitako garaiko dokumentu guztiak –tartean jada aipatu *Konjurazio agiria* izenekoa ere–), zabal azalduz halako konpromiso baten inguruko hainbat zertzelada, eta euskara guztiak, zeinahi euskara lotsarik gabe animatuz (ik. 25-26 irudiak), euskara txar bakarra, egiten ez dena delakoan.

22. irudia



23. irudia



Berdin izango dio aukeraturiko zeinua zein den, ahalik eta ikusgarriena, adierazgarriena... Konpromisoak behar du izan pertsonala: *Euskalduna naiz, eta harro nago!* Eta hori da agerian adierazi nahi duguna: *Nik euskaraz. Zuk zer?*

2.3.5. *Euskaldunon komunitatea indartu, trinkotu, harrotu... Are gehiago? Nola?*

Ez dago formula magikorik. Badakigu.

Urteak daramatzagu euskaldunon komunitatea indartu, trinkotu, harrotu beharraren leloa haizatzen eta errepikatzen. Eta azken 40/50 urteotan ez dira gutxi izan bide horretan egin ditugun aurrerapenak. Euskara batua, ikastolak, aldizkariak, argitalpenak, euskaltegiak, euskara legeak, telebistak, irratiak, egunkaria, euskara elkarteak..., hainbeste gauza... Kontua da beti behar dugula gehiago, *irabazi arte*. Egunero borroka bizian, Iparraldean frantses hizkuntzarekin (eta bere 284 milioi hiztuneko ahalmenarekin), espainolarekin Hegoaldean (eta honen 567 milioi hiztuneko ahalarekin), biak ere gure artean ezin sakonago errotu eta adarkatuak. Beti gaude beharrean. Euskaldunon komunitatea areago indartu eta trinkotu beharrean. Kontua da egunero bide berriak asmatzen jarraitzea, egunero sortzen zaizkigun erronka berrien aurrean, eta hauetako bakoitza aukera berri bihurtzea.

Eta oraingoz ez dirudi gure ahalegin makalena izan denik esaterako Internet sarean edukitzea lortzen ari garen presentzia, hor ere egunero ditugun arren desafio berriak. Gu, hizkuntza zaharraren jabe, lortzen ari gara mundu berrian leku egitea gure neurrian. Beste askok baino hobeto. Eta beste askok baino nekezago. *Hizkuntza larreko, noranahiko, jakite hegoek igoa*, Lizardiren amets. Baina-eta egunero dugu mugitu beharra *bultzia* galduko ez badugu. Aliziak Erregina Gorriaren Ispiluz Bestaldeko Erresuman bezalaxe, korri egin leku berean iraun ahal izateko atzeratu gabe. Eta aurrera egin nahi izanez gero, bi aldiz lasterrago egin behar korri (Carroll, 1871 – euskaraz Lopez Gaseniren edizioa–).

Euskalduna naiz, euskaraz bizi naiz, Euskaldunon Komunitatearen parte naiz, eta harro nago! Eta hemendik aurrera ere nola jarraitu genezakeen asmatzeko ez da seguru asko bide txarrena izango ahalik eta hobetoen eza-

gutzen jarraitzea non gauden eta zein lur zapaltzen dugun. 600.000 hiztun inguru euskara lehen/familia hizkuntza jaso dugunak, 1.500.000 herritar inguru jada guri euskaraz ulertzeko bederen gai garenak, eta ordea 3.000.000 herritarren itsasoan urtuak, beste 1.500.000 herritar euskara (ia) tutik ere ulertzen ez duena alboan –eta zoritxarrez okerrago askotan bate-re ulertu nahi ez diguna–. Bi estatu etsaietan banatuak, 66 milioi herritar frantses, 46 milioi herritar espainol...

Itsaso nahasi hori guztia ongi ulertu beharra daukagu gure etorkizun euskalduna ziurtatuko badugu olatu eta korronte artean. Eta batez ere gure gazteen pertzepzioa eta ikuspegiak ezagutu, beraien esku dugunez geroa. Eta horretarako hoberena, zuzenean beraiei galdetzea ere bai. Eta egia esan, uste dut azken boladan ere ez gabiltzala bide txarrenak urratzen gure lurraldeen ikerketa, azterketa eta ezagutza soziolinguistiko gero eta zehatzagoaren bidean. Jada aipatu Eusko Jaurlaritzako EUSTATEk biltzen dituen 1986tiko *Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika* eta 1996tiko *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuetako* datuen ustiaketa zorrotzarekin jarraituz, eta Eusko Jaurlaritzaren (eta besteren) 1981etiko *Mapa Soziolinguistiko* eta 1991tiko *Inkesta Soziolinguistikoez* gain, beste batzuk behintzat aipatzeagatik, niri ez zaizkit iruditzen bide okerrenetatik abiatuak E. Amorrortu, A. Ortega, I. Martinez de Lunak eta kideko beste hainbatek azken urteetan abiatutako ikerketa bideak (ik. besteak beste bibliografian, Amorrortu eta Ortega 2009, 2010, 2011; Amorrortu (eta beste) 2009; Eusko Jaurlaritza 2015a, 2015 b, 2015c –EGOD egitasmoa–; Martinez de Luna 2013; Ortega eta Amorrortu 2010; Ortega (eta beste) 2013, 2014, 2015; 2016; Urla (eta beste) 2016, eta argitaratzeko).

2.3.5.1. Hizkuntza identitatea. Euskara da euskaldun egiten gaituena⁴²

Baina esan nahi digutena esanda ere, gaitzetsi ere nahi digutena gaitzetsita ere, gure *euskal identitatea* indartzen jarraitzea da modu bakarra. Soilik

⁴² Oskorri taldearen 1982ko *Adio Kattalina* diskoko ‘Euskal Herriaren Euskaraz’ kantak ere ederki gogorarazten digun moduan.

binomio identitario horrek ekarri gaitu honaino eta iraunarazi digu herri gisa. Eta soilik identitate horrek eramango gaitu aurrera, iraunaraziko digu. Ez besteak baino gehiago garelako. Baina ez besteak baino gutxiago ere. Besteak adina. Gu *euskaldun*. Ez dugu euskaraz hitz egiteko, euskaldun sentitzeko beste arrazoirik, gure *nortasun euskalduna* baino, eta gure hizkuntza nortasun honen bihotzean, euskara, gure arbasoekin eta gure historiarekin lotzen gaituena. Ez daukagu besterik munduari eskaintzeko. Gure hizkuntza, eta hizkuntza horretan bizi garen hiztunok orain arte sortu duguna eta hemendik aurrera ere sortu genezakeena. Gaur egungo globalizazio garai *likidoetan*, kaltegarri ere aldarrikatzen da herrion eta pertsonon alderdi *identitarioak* harrotzea. Soilik herri txikietakoak ordea. Herri handietakoek ez dute laguntza gehiegirik behar izaten beren artean borrokan ageri ez diren bitartean. Guk utzi behar omen diogu gurea prezatzeari..., berehala beraiena are gehiago prezatzeko, hori bai.

Guk ezinbestekoa dugu gure euskal identitatea sustatzen jarraitzea, eta identitate hori hizkuntzarekin lotzen jarraitzea, daukagunarekin. Bestela gureak egin du, eta badakigu.

Nola jarraitu identitate hori sendotzen? Bada, orain arteko moduan:

- Euskaldunona propioa den guztia euskaraz sustatzen
 - Etengabe jarraituz euskaraz berria sortzen, musika, dantza, hip-hop-a, rap-a, zernahi..., zientzia, literatura, enpresa, bertsoa, aurrerakuntza..., eta
 - Iruditzen zaigun guztian ere euskarara ekarriz munduan interesgarri aurkitzen dugunetik.

Oso interesgarriak dira, gure identitate(ar)en eta hauen balioen gaineko hausnarketak bideratzeko, gure herrikideen eta bereziki gazteen arteko identitateen pluraltasunaz jabetzeko, eta hauek gure euskaldunon komunitatea indartzeko asmoetan jokatu lezaketen rolez hausnartzeko, gure arteko ondokoen antzeko lanak –besteak beste, behintzat–: Romay, Garcia-Mira, Azurmendi 1999; Garcia 2001a, 2001b; Loinaz 2002; Amorrortu 2003; Hernandez 2005; Pujolar 2008; Azurmendi, Larrañaga, Apalategi 2008a, 2008b; Azurmendi, Martínez de Luna 2011.

2.3.5.2. Gure historia eta gure mitoak ikertuz, eztabaidatuz, zabalduz, ezagutaraziz...

Ez besteenak baino hobeak direlako, jakingarriagoak... Baizik, gureak direlako. Eta gureak ezagutaraziz, guk eta gure arbasoek euskaraz sortu eta garatu dugun historia ikertuz, eztabaidatuz, zabalduz bakarrik egin geniezaiokeelako ekarria gizarteari, humanitateari... Zeinek emango du hemengoen berri, guk ez badugu? Eta gainera, ez da hain beharrezko egia absolutuak edukitzea, zabaltzea gure iraganaz –ezinezkoa bestalde sekula iritsi ezin gaitzekenez iragana osorik ezagutzera–. Ez dugu inor ezertan doktrinatu nahi. Nahikoa dugu eztabaida piztearekin, interesa sortzearekin gurearen inguruan, gero eta gehiago ezagutzeko grina sortzearekin...

Bide horietan bereziki iruditu zaizkit ezin eredugarriagoak Joseba In-txausti eta Eusko Jaurlaritzaren 1990eko *Euskara, euskaldunon hizkuntza* haren bidetikoak, Xamarren *Orhipean*, *Euskara Jendea*, Kike Amonarrizen EITBko *Tribuaren berbak*, ... Denak ere euskaraz mintzatu den herriaren harrotasuna zabalduz, eta gure balizko historia –inoiz, inon, inola erabat ezagutzerik ez duguna– ikertuz, eztabaidatuz eta gurekin lotuz iraganean euskaldunokin zerikusia izan zezakeen guztiarekin. Egin genezake gidoitxo bat euskaldunok lur honekin eta gizateriarekin lotu izan gaituzten, edo lotu ahal izan gaituzten hainbat garairen inguruan, inongo ikuspegirik ezarri nahi gabe, nahikoa baitugu gu baino lehenago lurrotan bizi izan diren giza-kien inguruko interesa piztearekin.

2.3.6. *Baina nahikoa ote dugu gure iraganeko identitatea euskaldunon komunitatea trinkotzeko? Ez, ezta?!*

Garbi daukagu ezetz. Eta horretatik ere gure azken 50 urteetako eguneratze saiakera guztiak. Gure iragana ongi ezagutzeak/ezagutarazteak zalantza gabe lagunduko digu, orain artean bezala, euskaldunon komunitatea trinkotzen. Gure identitate altxorra. Ezinbestekoa dugu. Baina horrek ez gaitu denok aseko. Euskaldunon komunitatearen abantaila handienak iraganean kokatzen baditugu, arazo handi bat daukagu etorkizunean.

Irlandako gaelikoak gurea baino askoz iragan loriatsuagoa du bere VI-XI. mendeak bitarteko literatura mitologiko eta legendario saga zikloen ingurutik eta... Baina hala ere XX. mendeko *Ghaeltachtak* gaeliko elebakar gorde nahi izateko ekimen guztiak izan dira alferreko. Gaelikodun elebakarrei ere iraganak ez zien jaten ematen. Eta ezin zuten batere etorkizun loriatsurik bereganatu XVIII. mendetik aurrera ingelesez mugitzen hasten den mundutik baztertuta.

Hegoaldeko (eta are Iparraldeko) euskaldunek ere, etorkizunik ez zuten bezala erromantzeetatik kanpo XI. mendetik aurrerako Iberiako penintsulan zabaltzeko. Gaztelania, erromantze nafar-aragoi-errioxarra... hartu zituzten lagun [Ez al genituen bada euskaldunok gerok horretarakoxe sortu erromantze horiek...?]. Are gutxiago izango zuten etorkizunik XVI. mendetik aurrera zabaltzen den ‘mundu berrian’ espainolaren bitartez ez bazen. Iparraldeko euskaldunek ere munduan etorkizunik ez zuten bezala XVII. mendetik aurrera frantsesez ez bazen (edota askok ongi ezagutzen zuen espainolaren bidez...).

Gaurko herritarroi ere, eta are gutxiago gazteei, ez zaigu nahikoa euskararekin. Euskal elebakarra gaur egungo munduan ezin da *gizajo koitadua* baino izan. Are euskaldun ezin aktiboagoak bagina ere, orain euskaraz nola edo hala jardun dezakegun 1.500.000 hiztun aktibo + hartzaile guztiak, gaur egungo Euskal Herrian bizi garen 3.000.000 herritarrak bagina ere euskaldun, ezin eskaini ahal izango genieke gure herritarrei, gure gazteei, gure identitate eta kidesasun sentimenduaz gain, gure arteko beste bi hizkuntza nagusiek eskaintzen dietenaren milarena ere.

Nola lehiatuko gara... ?

- Frantsesarekin:
 - 284 milioi hiztun inguru munduan
 - 80 milioi hiztun jatorrizko
 - 212 milioi hiztun inguru eguneroko-edo hizkuntza erabiltzaile
 - Hizkuntza ofiziala 29 estatutan munduan eta nazioarteko hainbat erakundetan...

- Edo espainolarekin:
 - 567 milioi hiztun inguru munduan
 - 472 milioi hiztun jatorrizko
 - Hizkuntza ofiziala munduko 20 estatutan eta nazioarteko erakunde askotan
 - AEBetako 2. hizkuntza nagusia
 - Derrigorrezko ikasketa hizkuntza Brasilen...

Nola lehiatuko gara zuzenean euskaratik hizkuntza biok eman dezaketenarekin? Euskarak, euskaldunok, gaur egun ezin gara zuzenean euskaratik beste gabe lehiatu espainolarekin, frantsesarekin. Ezin izan garen bezala azken 300/500 urtean...

Eta hori gure herritarrek, gure gazteek, egunero, segundoero ikusten/sentitzen/sufritzen dute. Etxetik –edo bestela– euskal identitatea garatua duen euskaldunak, eutsiko dio euskarari –edo ez.– Baina izatez gerotan ere, espainolarekin edo frantsesarekin batera. Baina eta euskal identitate hori hain garatua ez duen euskaldun gazteak, herritarrak...? Zer eskaintzen diegu guk euskaratik azken 25, 30, 40 urtean derrigorrezko heziketaren bidez, edo euskaltegien bidez, eta sekulako denbora eta ekonomia ahalegina egin ez euskarara hurbiltzea lortu dugun gazte/herritar horiei guztiei? Zer diote beraiek behin euskara bereganatu dutenean?

Nahikoa da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu batera hurbiltzea, zeinahi institututara ia. Agian, euskara etxetik ez zekiten ikasle horiek, aurretik euskal identitate handirik ez zutenek, ikasi dute euskara eskolan, eta berehala konturatu dira eta esan dute:

— *A! Hau paradisua! Zein ondo orain jada euskararekin! Zein ongi orain euskara dugula! Salbatuak gaude. Ez dugu jada ezer besterik behar!*

Hori esaten al dute? Agian hori nahi genuen esan zezaten, sentitu zezaten?

Euskal identitate sentimendu argirik ez duten gazteek ez dute hori ikusten / sentitzen / esaten. Ezin dute hori ikusi / sentitu / esan. Are euskal identitate

sentimendu argiaren jabe diren gazteak ere, bihotzeko euskararen jabe direlarik ere, ez dira sentitzen, ezin dute sentitu euskararekin askoz ere hizkuntza tresna hobe eta munduarekin komunikatzeko, mundua ezagutzeko, espainola edo frantsesa baino. Euskara izango da berea / gurea, baina mundua ez dabil euskaraz. Eta gure gazteak euskara hutsarekin utzi nahi izatera, zuzenean botatzen ditugu espainolaren eta frantsesaren mende.

Ezin gara euskara hutsetik zuzenean lehiatu espainolarekin edo frantsesarekin. Borroka hori galdua dugu. Espainola eta frantsesa askoz ere tresna hobeak dira munduarekin komunikatzeko euskara baino. Ez intrintsekoki hala direlako berez. Baina bai historia dena delako eta ingurumaria dena delako gaur egun. Irlandako gaelikoa ere ezin lehiatu da munduan nagusi den ingelesarekin. Nola! Aldez aurretik zuen borroka hori galdua. Guk bezalaxe. Horregatixe etorri gara gu ere indarra galtzen azken mende guztioan zehar espainolaren eta frantsesaren aldean.

Eta orain, lekua galtzen jarraitu nahi ez badugu, pixkanaka lurra irabazten joan nahi badugu, ez dugu hori lortuko euskara espainolari edo frantsesari kontrajarriz. Frantsesari eta espainolari gaur egun kontrajarri geniezaiekeen bakarra, zorionez, ingelesa da. Eta ingelesa bihurtu behar dugu gure aliatu lehena. Ja. Jada.

3. Hirugarren gidalerroa: Euskara + ingelesa dugu irtenbide bakar

Ezen behar dugu hizkuntza bat munduratzeko. Latina behar izan genuen Erromaren garaian, eta erabili genuen. Espainola eta frantsesa behar izan ditugu azken mendeetan eta erabili ditugu. Orain ordea, jada espainol eta frantsesaren itsaso orojaleak inguratuta eta urtuta gauzkan honetan, auto-immolazio zuzena baino ez da guretzat lehentasunez hizkuntza hauek aukeratzen eta erabiltzen jarraitzen baldin badugu mundura irteteko, mundua ezagutzeko, mundua geureganatzeko, eta geure burua munduan saltzeko. Beti ibiliko gara espainolen eta frantsesaren atzetik.

Gure abantaila da gaur egun dagoeneko ez espainola, ez frantsesa ez direla mundua mugitzen duten hizkuntzak, nahiz oraindik gure aldean erral-

doi ikaragarriak izan. Baina bi hizkuntza hauek munduan oraindik garrantzikoak baldin badira da errentetatik bizi direlako, aurreko mendeetako hala-moduzko herentzien ondorio. Gaur egun mundua ingelesez mugitzen da. Ekonomia eta merkataritza ingelesez mugitzen dira. Zientzia ingelesez zabaltzen da. Aurrerapena ingelesez dator. Turismoa, gizartearen arteko elkartrukea... ingelesez bideratzen dira. Hedabideak, telebista, zinema, serieak... Berri eta erakargarri den guztia, edo ia, dator ingelesez eta ingelesaren bidez.

Ingelesa:

- 1.500 milioi pertsona inguruk darabil munduan
- 400 milioi inguruk jatorrizko hizkuntza gisa
- Beste 400 milioik bigarren hizkuntza gisa
- Eta beste 700 milioi pertsona inguruk 'atzerriko' hizkuntza gisa
- Ia 100 herrialde eta estatutan da hizkuntza ofizial (munduan, Nazio Batuen Erakundean 193+3 estatu dira guztira)
- Eta nazioarteko erakunde, gehiago edo gutxiago, guztietan.

Soilik ingelesarekin bat eginda, ingelesa aliatu erabilia lortu genezake gure bizitzetan, euskaldunon bizitzetan, ez (hain) ezinbestekoa izatea frantsesa edo espainola. Ingelesa baldin badaukagu, zenbat eta ingeles gehiago daukagu, orduan eta lehenago eta errazago iritsiko gara mundura, ekonomiara, merkatura, zientziara, aurrerapenera, informaziora, munduak partekatzen duen hartara guztira... , espainolaren / frantsesaren zain egon beharrik gabe. Euskaraz gain ingelesa baldin badaukagu, zertarako beharko dugu espainola edo frantsesa errealitate horietara guztietara lehen eskutik hurbiltzeko?

Euskara eta ingelesa askoz gehiago dira, euskara eta espainola edota euskara eta frantsesa baino.

EUSKARA + *ingelesa* > EUSKARA + *espainola*

EUSKARA + *ingelesa* > EUSKARA + *frantsesa*

Ingelesa da gure aliatu naturala, eta berak bakarrik lagundu diezaguke ondoko glotofagia espainol eta frantsesaren aurka. Espainola eta frantsesa ezin dira lehiatu ingelesarekin, ez dira (ia) ezer ingelesaren aldean gaur egungo munduan, etorkizuneko munduan. Gu ingelesarekin aliatzen baldin bagara, gure umeez euskara ongi baldin badakite lehen (edo bigarren) hizkuntza bezala, eta ingelesez ongi moldatu daitezten lortzen badugu (beste) bigarren hizkuntza bezala, ez dute jada gure ondoko hizkuntza glotofagikoen (horrenbesteko) mendekotasunik, ez beharrik, izango. Ingelesaren parean, frantsesaren edo espainolaren ahalmenak, ezerezean geratzen dira. Ez diezaiegun bada heldu espainolari eta frantsesari munduratzeko eta gure etsaiari lagundu. Heldu diezaiegun ingelesari, gure etsaien etsaiari!

Ingelesa geureganatzen ez dugun neurrian, kondenatuak gaude, munduan ibiltzeko (are etxetik irten gabe ere) ingelesez egin ahal izango genukeen guztia, espainolez edo frantsesez egitera. Hori bai, beranduago, okerrago, nola edo hala itzulia, beti estatu espainolaren eta frantsesaren interesen arabera filtratua, eta bide batez gu bihurtuta espainolaren eta frantsesaren merkatu potentzial hoberena, gure hizkuntza glotofagiko zuzenon beharrik handiena dugunak, sustatzaileak eta defendatzaileak, bestela ez dakigulako munduan zer jazotzen den. Eta hori ezin izan liteke gure interesa.

Eta hau da gure 3. gidalerroa. Ingelesa bihurtu behar dugu ezinbestean gure bigarren hizkuntza. Eta horrek ez du esan nahiko uko egin behar diogunik bat-batean espainola edo frantsesa ondo jakiteari, eta komeni zaigunean erabiltzeari. Gure gaurko gizartean ezinezkoa da, eta gure herritar askoren lehen eta bihotzeko hizkuntza dira frantsesa eta espainola. Baina euskaldunon komunitateak ere garbi izan behar ditugu gure lehentasunak, zein den gure lehen hizkuntza, zein gure bigarren hizkuntza eta zein gure hirugarren eta laugarren hizkuntzak...

3.1. Eta horixe da gaur egungo munduaren esperientzia...

Horixe besterik ez da izan hainbat hizkuntza txiki/gutxituk egin dutena iraun ahal izateko, indartzeko.

- Hala egin dute Islandian, 300.000 herritarrek mintzo diren islandiera-ekin ezin dutelako munduan ibili, txapela jantzita edo txapelik gabe. Baina ingelesari helduta gaintitu ahal izan dute beretzat benetako etsai lehiakidea zen daniera.
- Eta beste hainbeste egin dute Maltako irletan, denera malteraren 500.000 hiztun, bestela jango zituen italieratik babesean.
- Eta finean ere berdin egin dute:
 - Danimarkan –5,75 milioi herritar–
 - Norvegian –5,25 milioi herritar–
 - Suedian –10 milioi herritar–
 - Herbehereetan –17 milioi herritar–
 - Israelen –8,6 milioi herritar; arabiera guztiz baztertzeaz gain, noski–
 - Eta alde guztietan
 - Are Finlandian ere –5,5 milioi herritar– (oraindik ere suediera –etsai lehiakide historikoa– herritarren % 50ek duenean –% 5ek lehen hizkuntza, % 44k 2. hizkuntza– eta errusierak ere bertan historikoki eta etorkinen bidez duen pisu ikaragarri handia gorabehera ere, jada herritarren % 70ek du ingelesa 'atzerriko' hizkuntza).
- Eta berdin, ingelesarekin borroka zuzen handiena duten askoz hizkuntza garrantzitsuagoek ere, beren hizkuntzaren lehentasuna jokoan dutelako munduan, ingelesa dute ezinbestean bigarren hizkuntza:
 - Alemaniak
 - Frantziak
 - Espainiak
 - ...

Eta guk euskaldunok berriz, zer egin behar dugu? Gure bigarren hizkuntzat hartzen segitu espainola / frantsesa? Hala jarraituz gero, maiz imajinatu dut ingelesa inoiz espainola eta frantsesa irenstera iritsiko balitz hauen

jatorrizko lurraldeetan, guk jarraituko genukeela, euskaldunok –edo euskaldun jada ohiok– Euskal Herrian, espainolaren eta frantsesaren azken arnasmune izaten... Ez goaz inora horrela. Ez da posible.

Nik EUSKARA + ingelesa

Behintzat txinera edo beste gaintitzen ez zaion bitartean..., ezta?! Baina beste menderen bat beharko da horretarako oraindik...

3.2. Nora goaz ordea munduko hizkuntzarik glotofagikoena den ingelesarekin?

Badakit. Hizkuntzen bizitzen larritasunak kezkatzen gaituen guztiontzat, eta oso bereziki Euskal Herrian azken hamarkadetan sektore euskaltzaleena izan denarentzat, oso gai sentibera da ingelesak munduko beste hizkuntza askori deragien hil ala biziko arazoan aurrean, halako solidaritate puntu bati uko egin behar izatea... ingelesaren kontra. Baina ez daukagu zertan.

Ingelesa dela gaur egun munduko hizkuntza glotofagikoena. Bai. Eta? Ez diegu horregatik utziko gure glotofago partikular espainol eta frantsesari beraiek irentsi gaitzaten, ingelesak bi hizkuntzoi dakarkien glotofagia arriskuagatik. Gaur egun ingelesa gure aliatu izan liteke ez delako gure etsai zuzena. Gure artean ez dagoelako ingelesa lehen hizkuntza gisa duen populazio arriskugarriarik. Ingelesarekin benetako arazo izaten jarraitzen dute Irlandak eta Quebecak. Ingelesa delako bere zuzeneko hizkuntza etsai lehia-kide eta glotofagikoa, munduko lehen hizkuntza ahaltsuena... Horixe izan da guk frantsesarekin eta espainolarekin izan dugun arazo nagusia. Eta oraintxe zorionez jada izkin egiten hasi gatzazkiekeenean ingelesari helduta, ingelesari egin behar diogu muzin eta ezikusia? Utikan! Tibeten ere arazoa ez dute gaur egun ingelesarekin.

Oraintxe Islandian ere ingelesa hasi zaiela arazo bihurtzen gazteen artean hartzen ari den indarrarengatik eta islandierari modu serioagoan hasi lekiokeelako lurra jaten? Bai. Hori dute orain arazo. Eta horri egin beharko diote orain aurre. Baina islandierak bere lurrean lortu duen indar posizio bate-

tik egingo dio aurre, aurreko hamarkadetan ingelesa erabili ahal izan dutelako bere etsai glotofagiko zuzen zen danierari aurre egin ahal izateko. Aurreko hamarkadetan ingelesa ezin erabili izan balute danierari aurre egiteko, gaurko islandiera dagoeneko guztiz jota edukiko luke danieraren pipiak, eta ezinbesteko lukete mundura irteteko. Hain zuzen, espainolak eta frantsesak gu gauzkatzen moduan.

Betor gugana ingelesaren arazoa. Betorkigu! Aurretik espainolaren eta frantsesaren arazoa gainetik kentzen lagundu badigu islandiarrei daniera bezala.

Eta esango nuke bide horretatik ekin nahi diotela gaur egun Groenlandian ere -56.500 herritar-. Ingelesari heldu, azkenean guztiz zabalduta duten danierak irentsi ez ditzan, oraindik ere danieradun elebakar den populazioaren % 12 indartsuenak. Ingelesa lehen mailatik irakasten da jada derrigorezko hizkuntzan.

3.3. Gure gazte sektore euskaltzaleenaren kezka eta distantzia ingelesarekin

Eta aipatu berri ditugun kezkek, ingelesaren identifikazio glotofagikoak munduko potentzia *imperialistenetakoekin*, pentsatzekoa zen bezala, eragina izan du gure euskaldunon komunitatearen sektore gazteen arteko jarreretan, dirudenez sektore euskaltzaleenetan, hauek adierazten bide baitute gaitzespen jarrera aktiboena ingelesarekiko gure gizartean. Gure planteamenduetan, ezinbestean argitu / konpondu / aldatu beharreko jarrera bat.

Ondoren jasotzen ditugu bizpahiru azterketa lanetatik ekarrita, gazte sektore euskaltzaleen horien ingelesarekiko distantziak adierazten dituztenak:

- «Con respecto al inglés, los alumnos con euskera como L1 explicitaron una actitud más negativa que los de castellano = L1.» (Lasagabaster 2003, 348)
- «La conclusión principal de este estudio fue que la lengua materna de los alumnos seguía influenciando sus actitudes, independientemente del tipo de cuestionario que se utilizara. De hecho los alumnos con

castellano como L1 mostraban unas actitudes más positivas hacia el trilingüismo que aquellos que tenían el euskera como L1.» (Lasagabaster 2003, 349)

- «El autor [Lasagabaster] concluye que el efecto que la lengua materna ejerce en las actitudes lingüísticas es indudable y que estos resultados deberían hacer recapacitar a todas aquellas personas inmersas en las instituciones educativas vascas, ya que lo que Baker (1992, 136) tilda de *actitud bunker* –entendida como defensa a ultranza contra todo lo que se considera *enemigo*– con respecto a una lengua minoritaria, puede acabar por convertirse en la muerte de dicha lengua.» (Lasagabaster 2003, 34; nahiz eta Lasagabasterrek berak dioen segidan bertako emaitzak interpretatu litezkeela ere hizkuntza minorizatuari laguntza gehiago eman beharreko eske gisa edo).
- Berdintsu, 2001-2 ikasturteko 1.087 ikasle unibertsitarioen gaineko ikerketan: «Las actitudes hacia el inglés de los estudiantes de L = 1 castellano son más positivas que las de los de L1 = ambas, o aún más favorables que las de L1 = euskera.» (Lasagabaster 2003, 479)

Nahiz aurrerago zehazten duen: «A pesar de que el grupo de L1 = euskera es el que menos favorable aparece con respecto al inglés en 7 de los 10 ítems, también es el grupo que apoya en mayor medida que el inglés es una lengua muy útil cuando se compara con otras, lo que reflejaría la clara concienciación por parte de este grupo con respecto a su valor instrumental.» (Lasagabaster 2003, 519)

Beste ikuspuntu batetik eta beste modu batera baldin bada ere, antzeko ondorioak adierazten dituzte geroago Azurmendi, Larrañaga eta Apalategik (2008a):

- «Bestelako emaitzak lortzen dira, aldi berean, gainerako hizkuntzak ezaugarri modura kontuan hartzen badira (ingeleza, frantsesa eta beste hizkuntzaren bat). Lorturiko emaitzek honako joerak adierazten dituzte –joerak, indar txikiarekin, modu ez-esanguratsuan agertzen direlako–:

- 1) *Espainiartasuna* gainerako hizkuntza horiekin positiboki lotzen den bezala,
 - 2) *Euskalduntasuna* negatiboki lotzen da ([...] –kezkarria gure testuinguruan–). (145-6)
- «Emaizta kezkarrien artean ezin dugu aipatu gabe utzi euskalduntasuna identitate munduan agertzen diren beste hizkuntzekiko joera negatiboak ere –[a]palak badira ere–. Gaur egun eraikitzen ari den *elebitasunetik eleaniztasunera* joan beharreko diskurtso berrian, nola interpretatu euskalduntasun mundua positiboki ez kokatzea?» (147-8)

Hau da, espainoletik abiatzen diren ikasleak ongi saiatzen dira ingelesarekin. Euskaratik abiatutakoak ez horrenbeste nonbait. Beraz ondorioztatu genezake, euskaratik abiatutakoek espainola gehiago beharko dutela / gehiago erabiliko dutela mundura hurbiltzen saiatzeko, ingelesaren eskasian. Ondo gaude.

Halako jarreraren inguruko lan interesgarri gehiago eta berriagoak ere izan litezke Lasagabaster 2001, 2004, 2005, 2008?, edo Caruana eta Lasagabaster 2011, 2013.

Hala, ohartzekoa iruditzen zaigu gure gazte euskaltzale sutsuenetako askok erakusten duten zaletasun berezia Hego eta Amerika Erdiko herrialdeekin, aldian-aldian interes handieneko herrialdeak aldatu litezkeen arren (Kuba, Nikaragua, Txiapas, Venezuela, Txile, Ekuador...) Ote da ere herrialde horietan erraz erabili lezaketelako harremanetarako, bidaiatzeko... ongi menderatzen duten espainola? Ez da, herrialde horiek ez dutela interesik edota kasuan-kasuan laguntza beharrik... Baina makina bat gehiago ere badira munduan barrena... Horietarako ordea ingelesa ezinbestekoa litzateke seguru asko... Bitartean gu gure espainolarekin, aurrera?

3.4. Hala ere ari gara pausoak ematen ingelesaz jabetzeko

Hala ere aspaldi ari gara pausoak ematen ingelesa hezkuntzan sartzeko. Ikastolek 1991tik abiatu zuten *Eleanitz* proiektua (*Ingelesaren ezartze goiztiarra 4 urtetik aurrera...*). Aspaldi zabaldu da ere ingelesaren (eta ere ingeles

bidezko) irakaskuntza EAEko eskola sisteman. Nafarroa Garaian ere eta hala erabili dute euskararen kontra baliatuz herritarren ingelesarekiko zale-
tasuna / beharra (ik. esaterako Lasagabaster 2008a edo Cenoz 2011).

Oraintsu eman diote amaiera euskara/ingeleza proiektu elebidun irado-
kigarrietako izan den *The Balde* 15 urteko aldizkari elebidunari, Koldo
Almandoz sustatzaile, 89 ale eder argitara eman eta gero. *Elhuyar* zientzia
aldizkariak ere aspaldi iradokitzen ditu ingelesezko liburu eta webguneak
bere artikuluen osagarri⁴³.

Eta bide horretatik jarraitu beharko dugu.

Bibliografia aipatua

AIESTARAN, A. (2010) «Euskarazko herri-prentsaren irakurleen profila aztergai». *Uztaro* 74, 2010, 59-72 (<http://www.uztaro.eus/artikulua/75/euskarazko-herri-prentsaren-irakurleen-profila-aztergai/1039>).

ALBAREZ, J. (1990) «Zeltikoen azken aztarnak arriskuan Europako mendebal-
dean». *Ele* 7, 1990, 13-47.

ALTUNA, B. (2003) *Euskaldun fededun: euskaldun ona izateko modu baten historia*.
Alberdania, 2003.

ÁLVAREZ, A. (2006) *Nacionalidad de los hijos de extranjeros nacidos en España -
Regulación legal e interpretación jurisprudencial sobre un análisis de datos estadísticos de
los nacidos en territorio español durante el período 1996–2002*. Madrid, Ministerio de
Trabajo y Asuntos Sociales, Observatorio Permanente de la Inmigración, 2006
(http://extranjeros.empleo.gob.es/es/ObservatorioPermanenteInmigracion/Publicaciones/fichas/archivos/Nacionalidad_hijos_inmigrantes.pdf).

AMORRORTU, E. (2003) «Hizkuntz aldakortasuna eta identitatea». In M. Una-
muno (et al.) *Ahozkotasuna aztergai*, Mendebalde Kultura Alkartea, 2003, 157-165
(<http://mendebalde.eus/jardunaldiak/2003/Hizkuntz%20aldakortasuna%20eta%20identitatea.pdf>).

⁴³ *Argia* astekariak berriz alero orain gutxi arte eskaintzen zuen zientzia ataleko osagarriak espai-
nolez eta frantsesez eskaini ohi zituen, zientzia ingelesez dabilenean, eta gu gure hizkuntza gloto-
fagikoenganik ahalik eta gehien askatu beharrean gabiltzanean.

AMORRORTU, E.; ORTEGA, A. (2009). «Zergatik eskolaratzen dituzte gurasoek seme-alabak euskarazko ereduetan?» *Euskera* 54, 2009, 579-602 (<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/74635.pdf>).

———, (2010) «Euskararen balioak eta gazteen erabilera: heldu erdaldunen perzeptzioak». *BAT - Soziolinguistika Aldizkaria* 77, 117-134 (<http://www.sociolinguistika.eus/files/E%20Amorrortu%20A%20Ortega.%20Euskararen%20balioak%20eta%20gazteen%20erabilera....pdf>).

———, (2011) «Euskarara hurbiltzeko jarrera mesedegarri eta oztopatzailerak komunikazioa». Udaltop, *Zer da euskara euskaraz ez dakitenentzat? Haiek euskarara hurbiltzeko, zer eta nola egin daiteke udaletatik?* 2011/04/07 (<http://www.udaltop.eus/documents/192363/756845/Euskarara+hurbiltzeko+jarrera+mesedegarri+eta+oztopatzaileak.+Ponentzia/816eb7ff-6aae-4395-a6ec-4a50e4382150>).

AMORRORTU, E.; A. ORTEGA; I. IDIAZABAL; A. BARREÑA (2009) *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Gasteiz Eusko Jaurlaritz, 2009 (http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/erdaldunen-aurreiritziak-2009.pdf).

AMONARRIZ, K. (2013-2016) *Tribuaren berbak*. EITB (<http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/tribuaren-bloga/>).

———, (2016) *Tribuaren berbak (Hizkuntzaren mundua eta euskara deskubrituz)* (<http://www.eimakatalogoa.eus/20962/tribuarenberbak/>).

ARGIA (2012) «ARGIAK 57.000 irakurle ditu Hego Euskal Herrian, duela urtebete baino % 7,1 gehiago». (<http://www.argia.eus/albistea/argiak-57000-irakurle-ditu-hego-euskal-herrian-duela-urtebete-baino-7-gehiago>).

———, (2017) «Euskaldunak aktibatzen: Erreterian Egiatarren biderei utsiko diote». *Euskaraz badakigu, zergatik ez gara bizi euskaraz?* O. Irureta, 2017-02-24 (<http://www.argia.eus/albistea/euskaldunak-aktibatzen-erreterian-egiatarren-biderei-utsiko-diote>).

ARGIA; HAMAICA TELEBISTA (2015) *Euskaraz badakigu, zergatik ez gara bizi euskaraz?* (<http://www.argia.eus/multimedia/ertzak/euskaraz-badakigu-zergatik-ez-gara-bizi-euskaraz>).

———, (2016) *Euskaldun nahi zaitut*. (<http://www.argia.eus/multimedia/ertzak/euskaldun-nahi-zaitut>).

ARRIETA, M. (2008) «Berria, bost urrats etorkizunari begira». *BAT - Soziolinguistika Aldizkaria* 68, 2008, 139-146 (<http://www.soziolinguistika.eus/files/09%20M%20Arrieta.pdf>).

ARTETA, A. (2008) «Encuestas falsificadas». *El Correo*, 2008-09-10 (<http://www.elcorreo.com/vizcaya/20080910/opinion/encuestas-falsificadas-20080910.html>).

———, (2011) «Falsas encuestas, falsas conciencias». *El Correo*, 2011-02-03 (<http://www.elcorreo.com/vizcaya/v/20110203/opinion/falsas-encuestas-falsas-conciencias-20110203.html>).

AZKUE FUNDAZIOA (2017) *Otsailaren 21a Ama-hizkuntzaren eguna*. [<http://zuceu.eus/euskara/transmititzen-al-dute-guraso-hiztun-berriek-hizkuntza-gutxitua/helbidetan-jasoa>].

AZURMENDI, J. (1977) «Irlanderaren paraderoa». *Jakin* 1, 1977, 100-116 (<http://www.jakin.eus/show/0ed69cd49aae03aeefa9228d8ce8c17a45317987>).

AZURMENDI, M.-J.; LARRANAGA, N.; APALATEGI, J. (2008a). «Bilingualism, identity, and citizenship in the Basque Country». In M. Nino-Murcia & J. Rothman (eds.), *Bilingualism and Identity. Spanish at the crossroads with other languages*. J. Benjamins, 2008, 35-62.

———, (2008b). «Identitate etnolinguistikoa (IELA), Euskal Autonomi Erkidegoan (EAEan)». *BAT - Soziolinguistika Aldizkaria* 67, 2008, 131-150 (<http://www.soziolinguistika.eus/files/07%20M%20Azurmendi%20et%20al.pdf>).

AZURMENDI, M.J.; MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2011) «Language and Ethnolinguistic Identity: Success-Failure continuum in the Basque Country». In J.A. Fishman & O. García (eds.), *Handbook of Language and Ethnic Identity, Volume II: Success and Failure Continuum in Language and Ethnic Identity Efforts*. Oxford University Press, 2011, 323-335.

BALDAUF, R.B. (2006) «Rearticulating the Case for Micro Language Planning in a Language Ecology Context». *Current Issues in Language Planning* 7, 147-170 (<http://dx.doi.org/10.2167/cilp092.0>).

BASTARDASI, A. (2016) «Famílies lingüísticament mixtes a Catalunya: competències, usos i autoorganització evolutiva». *Treballs de Sociolingüística Catalana* 26 (2016), 285-308 (<http://revistes.iec.cat/index.php/TSC/article/view/142275/141188>).

BAZTARRIKA, P. (2015) «Irakurleak eta ikus-entzuleak epaile. Euskarazko hedabideen euskararen erabilerarako eraginkortasunaz». *Euskera* 2015, 60, 117-135 (<http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80473.pdf>).

BENGOETXEA, X. (2012) «Arnasguneak. Ezagugarriak. Zenbait arnasgunereren egoeraren behaketa». *BAT - Soziolinguistika Aldizkaria* 85, 2012, 75-118 (<http://www.soziolinguistika.eus/files/Xabier%20Bengoetxea.pdf>).

CARUANA, S.; LASAGABASTER, D. (2011) «Using a holistic approach to explore language attitudes in two multilingual contexts: the Basque Country and Malta.» In C. Varcasia (ed.) *Becoming multilingual: language learning and language policy between attitudes and identities*, Peter Lang, 2011, 39-64.

———, (2013) «Faraway, so close: trilingualism in the Basque Autonomous Community and Malta from a socio-educational perspective.» In D. Singleton, J.A. Fishman, L. Aronin, M. Ó Laoire (eds.) *Current multilingualism*, De Gruyter, 2013, 45-68.

CARROLL, L. (1871) *Through the Looking-Glass, and What Alice Found There - Ispiluan barrera eta Alicek han aurkitu zuena*. Manu Lopez Gaseniren edizioa, Pamie-la, 1990.

CENOZ, J. (2011) «The increasing role of English in Basque education». In A. De Houwer, A. Wilton (eds.) *English in Europe today*, John Benjamins, 2011, 15-30.

DÍAZ DE TUESTA, J.F. (≈1996-7) *Euskarazko prentsa idatzia*. Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailordetza (http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/1021/eu_2394/adjuntos/diaz.pdf).

DÍAZ NOCI, J. (2008) «Euskal komunika bideak eta ziberkomunikabideetan euskararen erabilera». *BAT - Soziolinguistika Aldizkaria* 68, 2008, 19-36 (<http://www.soziolinguistika.eus/files/01%20J%20D%C3%ADaz%20Noci.pdf>).

☞ EGIAN EUSKARAZ BIZI NAHI DUGULAKO (<https://egianeuskaraz.wordpress.com/>).

EGIA, L. (2015) *Transitoak* (<https://www.berria.eus/blogariak/transitoak/>).

EMUN (<http://www.emun.eus/zerbitzuak/hizkuntza-zerbitzuak/>) *TELP* tailerrak [Ferran Suay valentziar eta Gemma Sangines bilbotarrak Valentziarako asmatu-rikko Taller d'espai lingüístic personalen bidetik] (<http://telptailerrak.eus/>).

———, (2015) *Irten hizkuntzaren armairutik*. Arrasate, EMUN, 2015 [Ferran Suay eta Gemma Sanginesen *Sortir de l'armari lingüístic* liburuaren egokitzapena] (<http://>

www.emun.eus/albisteak/irten-hizkuntzaren-armairutik-liburuari-buruz-gehia-go-jakin-gura/).

ESNAOLA, I. (2015) «Udalerrri euskaldunen bilakaera sozioekonomikoaz». *BAT - Soziolinguistika Aldizkaria* 95, 2015, 103-109 (http://www.soziolinguistika.eus/files/imanol_esnaola.pdf).

EUSKALTZAINDIA (2014) *Euskararen biziberritzea Euskal Herriko hiriburuetan - XIX. Jagon Jardunaldia* (http://www.euskaltzaindia.eus/dok/plazaberri/2014/azaroa/XIX_jagonjard_egitaraua_donostia.pdf).

———, (2015) *XX. Jagon jardunaldiak: Euskara hedabideetan 2015eko azaroaren 20an - Kronika*. In *Euskera* 2015, 60, 109-115 (http://www.euskaltzaindia.fr/dok/euskera/euskera_2015_1.pdf).

———, (2016) *Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak jardunaldia* (http://www.euskaltzaindia.eus/dok/plazaberri/2016/otsaila/otsailak_12_egitaraua_azkena.pdf).

EUSKO JAURLARITZA (1981-...) *Mapa soziolinguistikoak* (http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/ikuspegi_sozio_linguis.html#mapa).

———, (1991-...) *Inkesta Soziolinguistikoak* (http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/ikuspegi_sozio_linguis.html#inkesta).

———, (2008a) *Euskara hedabideetan - Euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan*. Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila (http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/7041/es_2447/adjuntos/Maketa_Hedabideak_Df.pdf).

———, (2008b, argitaragabea) *Euskal Hedabideak*. Eusko Jaurlaritza-Kultura Saila, Bilbo (erreferentzia, Aiestaran 2010).

———, (2011a) *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak (2011ko urtarrila)*. Lehendakaritza, Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea [2011b-ren euskarazko aldaera] (http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_10tef3_euskera/eu_10tef3/adjuntos/10tef3_euskera_eu.pdf).

———, (2011b) *Euskera: uso, actitudes, políticas (Enero 2011)*. Lehendakaritza, Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea [2011a-ren espainolezko aldaera] (http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_10tef3_euskera/es_10tef3/adjuntos/10tef3_euskera_es.pdf).

———, (2011c) *Euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleak*. Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/ebpn_txostena/EBPN%20Txostena%20eusk.pdf).

———, (2013) *V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011: Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea*. Eusko Jaurlaritza, 2013 (http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf).

———, (2014) *V. Mapa Soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritza, 2014 (http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V%20MAPA-SOZIOLINGUISTIKOA%20baja_109_216.pdf).

———, (2015a) *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa -EGOD egitas-moa - Emaita txostena - Azken txostena (2015.10.15)*. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/noticia/copia_euskara_bilbon/eu_def/adjuntos/EGOD_EU.pdf).

———, (2015b) *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa -EGOD egitas-moa - Eranskinak*. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/noticia/copia_euskara_bilbon/eu_def/adjuntos/EGOD_Eranskinak.pdf).

———, (2015c) *Euskara - Jarrerak eta iritziak - Actitudes y opiniones (Junio 2015eko ekaina)*. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_14tef7/es_def/adjuntos/14tef7.pdf).

———, (2016a) *Eta hemendik aurrera, zer?- Euskararen garapenaren iraunkortasuna edo «dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen»* Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, Euskararen Aholku Batzordea, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051906&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf).

———, (2016b) *Gu gazteok: laburpen txostena eta lan-ildoen proposamena aurrera begira*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, Euskararen Aholku Batzordea, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051908&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf).

———, (2016c) *Euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunaren oinarriak*. Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/7041/eu_2447/adjuntos/Zoru_komuna.pdf).

———, (2016d) *VI. Inkesta Soziolinguistikoa Euskal Autonomia Erkidegoa (laburpena)*. Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza). Donostia, 2016-10-14 (http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/VI_INK_SOZLG_EAE_Aurkezpen_publicoa_20161014.pdf).

Eustat (1981-...) *Euskara, Kultura, Gazteria* (http://eu.eustat.eus/estadisticas/opt_0/id_5/ti_Euskara_Kultura_Gazteria/subArbol.html).

———, (1986-...) *Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika* (http://eu.eustat.eus/bancopx/euskara/id_3671/indiceRR.html).

———, (1996-...) *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua* (http://eu.eustat.eus/elementos/ele0000400/ti_Euskal_AEko_2_urteko_eta_gehiagoko_biztanleria_euskara-maila_orokorraren_lurralde_historikoaren_eta_urtearen_arabera/tbl0000487_e.html#axzz4ZssDxhb2).

———, (2013a) *Euskal AEko 2 urteko eta gehiagoko biztanleria, lurralde historikoaren, adinaren, euskara-maila orokorraren [sic] eta sexuaren arabera. 2011* (http://eu.eustat.eus/elementos/ele0010600/ti_Euskal_AEko_2_urteko_eta_gehiagoko_biztanleria_lurralde_historikoaren_adinaren_euskara-maila_orokorraren_eta_sexuaren_arabera/tbl0010646_e.html#axzz4YqA8pGw0).

———, (2013b) *Euskal AEko urte 2ko eta gehiagoko biztanleak egoitza duten udalerriaren (>=40.000 bizt.) eta adinaren arabera; euskara-maila orokorra kontuan hartuta. 2011* (http://eu.eustat.eus/elementos/ele0010600/ti_Euskal_AEko_urte_2ko_eta_gehiagoko_biztanleak_egoitza_duten_udalerriaren_40000_bizt_eta_adinaren_arabera_euskara-maila_orokorra_kontuan_hartuta/tbl0010647_e.html#axzz4YqA8pGw0).

———, (2017a) *Euskal AEko >=2 urteko biztanleria, eskualdearen, euskara-maila orokorraren eta adinaren arabera* (http://eu.eustat.eus/bancupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_3671_ne03.px#axzz4YqA8pGw0).

———, (2017b) *Euskal AEko >=2 urteko biztanleria, udalerriaren (>40 000 biztanle), euskara-maila orokorraren eta adinaren arabera* (http://eu.eustat.eus/bancupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_3671_ne04.px#axzz4YqA8pGw0).

———, (2017c) *Euskal AEko 2 urteko eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuaren eta euskara-maila orokorraren arabera*. 2011 (http://eu.eustat.eus/elementos/ele0000400/Euskal_AEko_2_urteko_eta_gehiagoko_biztanleria_lurralde-eremuaren_eta_euskara-maila_orokorraren_arabera/tbl0000488_e.html).

———, (2017d) *Ikasleak, Irakasleak eta Ikastetxeak* (http://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_300/opt_0/ti_Ikasleak_Irakasleak_eta_Ikastetxeak_/graficos.html).

———, (2017e) *Euskal AEko ≥ 2 urteko biztanleria, lurraldearen, ama-hizkuntzaren, euskara-maila orokorraren eta adinaren arab.* (http://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_3672_lm06.px#axzz4YasXRIV).

———, (2017f) *Euskal AEko ≥ 2 urteko biztan., lurraldearen, etxeko hizkuntzaren, euskara-maila orokorraren eta adinaren arab.* (http://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_3673_lhc06.px#axzz4YasXRIV).

Fishman, J.A. (1991) *Reversing language shift: theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Clevedon: Multilingual Matters, 1991.

GANDIAGA, B. (1974) «Hemen euskaraz ez dakianak». In *Hiru gizon bakarka*, 1974, Gero-Mensajero (<http://www.gandiaga.com/languztiak.php?id=2891&act=3>).

GARCIA, I. (2001) *Euskararen erabileran eragiten duten prozesu psikosozialak: identitate etnolinguistikoaren garrantzia*. EHU, 2001.

———, (2001) *Euskararen erabileran eragiten duten prozesu psikosozialak: identitate etnolinguistikoaren garrantzia* [tesi aurkezpena edo]. *Euskonews & Media*, 113, 2001 / 3 / 2-9 (<http://www.euskonews.com/0113zbk/gaia11304eu.html>).

HERNANDEZ, J.M. (2005) *Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Soziologiazko Euskal Koadernoak 16, Eusko Jaurlaritzza (https://www.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/cuaderno_sociologico_vasco_16/eu_cu_soc16/adjuntos/csv16.pdf).

HIDALGO, B. (2010) *Euskaldun bihotzekoon agergerria* (www.euskalnet.net/euskaldunbihotzekoak).

———, (2010b) *Konjurazio agiria* (<http://www.euskalnet.net/euskaldunbihotzekoak/pdf/3.pdf>).

———, (2016) *Irabazteko, gidalerro bila*. Ahozko emanaldia (<https://www.youtube.com/watch?v=bCd5sgKhgOA>).

IKUSPEGI – IMMIGRAZIOAREN EUSKAL BEHATOKIA (<http://www.ikuspegi.eus/eus/>).

INTXAUSTI, J. (1990) *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Eusko Jaurlaritza, 1990.

IRURETA, O. (2017) *Euskaldunak aktibatzen: «Egia Euskaraz estiloa» hedatzen ari da*. (<http://www.argia.eus/blogak/onintza-irureta/2016/09/30/euskaldunak-aktibatzen-egia-euskaraz-estiloa-hedatzen-ari-da/>).

IURREBASO, I. (2015a) *Udalerri euskaldunak EAEn: Egoera eta bilakaera, 1981-2011 - Hurbilpen deskriptiboa zentsuetako datuen ustiaketaren bidez*. Soziolinguistika Klusterra, 2015. (<http://www.soziolinguistika.eus/files/UDALERRI%20EUSKALDUNAK%20EAEn.pdf>)

———, (2015b) «Udalerri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnasguneak arriskuan. EAE, 1981-2011». *BAT - Soziolinguistika Aldizkaria* 95, 2015, 71-101 (http://www.soziolinguistika.eus/files/inaki_iurrebaso.pdf)

LASAGABASTER, D. (2001) «University students' attitudes towards English as an L3». In J. Cenoz, B. Hufeisen, U. Jessner (eds.), *Looking beyond Second Language Acquisition: Studies in Tri- and Multilingualism*, Verlag, 2001, 43-50.

———, (2003) *Trilingüismo en la enseñanza: actitudes hacia la lengua minoritaria, la mayoritaria y la extranjera*. Milenio, 2003.

———, (2004) «Un análisis de las actitudes hacia el inglés como lengua extranjera por medio de grupos de discusión». *Estudios de lingüística aplicada* 40, 2004, 91-113.

———, (2005) «Attitudes towards Basque, Spanish and English: an analysis of the most influential variables.» *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 26, 2005, 296-316 (<http://www.tandfonline.com/doi/pdf/10.1080/01434630508669084>).

———, (2008?) *Hirueletasuna eskolan: ingelesaren lekua euskal hezkuntza sisteman* (http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-714/eu/contenidos/informacion/artik20_1_trilinguismoa_07_06/eu_trilingu/adjuntos/Hirueletasunaeskolan.pdf).

LETE, X. (1978) *Teologia, ideologia -kanta-*. In *Lore bat, zauri bat* diskoa, Herri Gogoa, 1978. Eta in *Xabier Lete. Abestizak eta poema kantatuak*, Elkarlanean, 2006. (<https://www.youtube.com/watch?v=qw7qHjgarPk>).

LOINAZ, G. (2002) *Euskararen erabileran eragiten duten prozesu psiko-sozialak: identitate etnolinguistikoaren garrantzia: udal baten kasu*. Hiznet, 2002 (http://hiznet.asmoz.org/images/stories/ikerketa_lanak/Loinaz-Gema.PDF).

MARTINEZ DE LUNA, I. (2013) *Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia - Azterketa eta gogoetak*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea.

tea, Argitalpen zerbitzua (http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/Euskara%20EAEn.pdf).

MORENO, V. (2016a) «Identidad lingüística». *Gara*, 2016-07-17 (<http://www.naiz.eus/eu/iritzia/articulos/identidad-linguistica>).

———, (2016c) «Identidad lingüística (II)». *Gara*, 2016-07-28 (<http://www.naiz.eus/eu/iritzia/articulos/identidad-linguistica-ii>).

———, (2016b) «Identidad nacional». *Gara*, 2016-08-19 (<https://www.pamiela.com/victormoreno/?p=2067>).

MORIARTY, M. (2007) *Minority language television as a mechanism of language policy: A comparative study of the Irish and Basque sociolinguistic contexts*. PhD thesis, University of Limerick (https://ulir.ul.ie/bitstream/handle/10344/3994/Moriarty_2007_Minority.pdf?sequence=5)

———, (2009) «The effects of language planning initiatives on the language attitudes and language practices of university students». *Language Planning and Language Problems* 34, 2009, 141-57.

———, (2011a) «Minority language s and performative genres: The case of Irish language stand-up comedy». *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 32, 2011, 547-59 (<http://www.tandfonline.com/doi/full/10.1080/01434632.2011.604420?scroll=top&needAccess=true>).

———, (2011b) «New roles for endangered languages». In P. Austin, J. Sallaback (eds.) *Cambridge Encyclopaedia of Endangered Languages*, Cambridge Univ. Press, 2011, 446-57.

———, (2014a) «Contesting ideologies in the linguistic landscape of an Irish Tourist town». *International Journal of Bilingualism* 18, 2014, 464-74.

———, (2014b) «Súil Eile: Media, sociolinguistic change and the Irish Language». In J. Androutsopolous (ed.) *Mediatization and Sociolinguistic Change*, Walter de Gruyter, 2014, 463-86.

———, (2015) *Globalizing language policy and planning: an Irish language perspective*. Palgrave Macmillan, 2015.

NAFARROAKO GOBERNUA (Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua) (2017) VI. Inkesta Soziolinguistikoa Nafarroako Foru Komunitatea. Nafarroako Gobernu (Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua), Eusko Jaurlaritz (Hizkuntza Politi-

karako Sailburuordetza), Euskararen Erakunde Publikoa - Office Public de la Langue Basque, Iruña, 2017ko urtarrilaren 19a. <http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/NAF-Inkesta%202016%20euskaraz.pdf>

OIDEAS GAEL - Adult Irish Language Courses and Cultural Holidays (<http://www.oideas-gael.com/en/>).

O'RIAGÁIN, P. (1992) Language maintenance and language shift as strategies of social reproduction: Irish in the Corca Dhuibhne Gaeltacht: 1926-1986. Baile Atha Cliath: Institiúid Teangeolaíochta Eireann, 1992.

———, (2001) «Irish Language Production and Reproduction 1981-1996». In J.A. Fishman (ed.) *Can threatened languages be saved? - Reversing language shift, revisited - A 21st century perspective*. Clevedon : Multilingual Matters, cop. 2001, 195-214 or. (https://books.google.es/books?id=oScUXmAkRXIC&pg=PA195&lpg=PA195&dq=irish+language+production+and+reproduction&source=bl&ots=GKDHZSen-w&sig=wmJdh6142-S4u6bZWC6_smbgAhM&hl=eu&sa=X&ved=0ahUKEwjHmbuH8ZHSaHWDXhQKHcnmDNsQ6AEIG-jAA#v=onepage&q=irish%20language%20production%20and%20reproduction&f=false)

ORTEGA, A.; AMORRORTU, E. (2010) «Actitudes hacia el euskera de los no vascohablantes: valor instrumental e integrador». *Inguruak-Revista Vasca de Sociología*, 2010, 4-17.

ORTEGA, A.; AMORRORTU, E.; GOIRIGOLZARRI, J.; URLA, J.; URANGA, B. (2013) «Hiztun berrien hizkuntza identitatea: nolako euskalduna naiz?». *BAT - Soziolinguistika Aldizkaria* 87-88, 2013, 151-170 (<http://www.soziolinguistika.eus/files/Ane%20Ortega%20et%20al.pdf>).

———, (2014) «Nuevos hablantes de euskera: identidad y legitimidad». *Digithum* 16, 2014, 86-97 (<http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=55031422003>).

———, (2015) «Linguistic Identity Among New Speakers of Basque». *International Journal of the Sociology of Language* 231, 2015, 85-105 (https://works.bepress.com/jacqueline_urla/15/).

ORTEGA, A.; AMORRORTU, E.; GOIRIGOLZARRI, J.; URLA, J. (2016) *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbao, Deustuko Unibertsitatea, BizkaiLab, 2016 (<https://blogs.deusto.es/euskalgaiak/wp-content/uploads/2016/11/Euskal-hiztun-berriak-2016-Deustuko-Unibertsitatea.pdf>).

OSKORRI (1982) *Euskal Herriaren Euskaraz*. In *Adio Kattalina* (<http://www.badok.eus/euskal-musika/oskorri/adio-kattalina/>), Elkar, 1982 (<https://www.youtube.com/watch?v=Ej2XLHbfF-s>).

PAGÈS, D. (2011) *500 raons per parlar català*. Girona, CCG Edicions, 2011.

PUJOLAR, J. (2008) «Els joves, les llengües i les identitats». In *Noves SL*, Hivern, 2008 (<http://www6.gencat.cat/llengcat/noves/hemeroteca/hivern08.htm>).

ROBINS, D. (2006) *The Irish Press 1919-1948 - Origins and Issues*. (http://doras.dcu.ie/18180/1/David_Robbins_20130119105250.pdf).

ROMAY, J.; GARCIA-MIRA, R.; AZURMENDI, M.-J. (1999) «Identidad etnolingüística y vitalidad etnolingüística en las Comunidades autónomas bilingües (CAB) de España.» *Revista de Psicología Social* 14, 1999, 87-106 (<http://www.tandfonline.com/doi/pdf/10.1174/021347499760260091>).

SAEZ, P. (2017) *Euskarak Bilbo behar du* (2017-01-24) (<http://www.patxisaez.eus/2017/01/euskarak-bilbo-behar-du.html>)

SARASOLA, I. (2016) *Bitakora kaiera*. Erein, 2016.

SARASUA, A. (2011) *Euskararen ezagutzaren inguruan. Sustatu* (<https://sustatu.eus/1296745561>).

SIADeco (2011) *Donostiako Euskararen Plan Orokorra - 2011-2015 - Donostia, 2011ko martxoa* (http://www.siadeco.eus/documents/trabajos/eu/Siadeco_Donostiako_Euskararen_Plan_Orokorra.pdf).

SOTILLO, B. (2017) «El 15% de los menores de 18 años que residen en Euskadi son de origen extranjero». *Deia*, 2017-06-02. (<http://www.deia.com/2017/06/02/sociedad/euskadi/el-15-de-los-menores-de-18-anos-que-residen-en-euskadi-son-de-origen-extranjero>).

SOZIOLOGIA KLUSTERRA (2017a) *Hizkuntzen kale-erabileraren neurketa. Euskal Herriko neurketa*. (http://www.soziolinguistika.eus/kale_erabilerena).

———, (2017b) *Hizkuntzen kale erabileraren VI. neurketa – 2011*. (<http://www.soziolinguistika.eus/files/VI%20Kale%20Neurketa-%20Emaizten%20txostena.pdf>).

SUAY, F., SANGINÉS, G. (2010) *Sortir de l'armari lingüístic - Una guia de conducta per a viure en català*. Angle Editorial, Barcelona.

TALLERS PER LA LLENGUA (<http://www.tallersperlallengua.cat/>) *Taller per al foment dels usos interpersonals en Llengua Catalana* (<http://www.tallersperlallengua.cat/els-tallers/taller-per-al-foment-dels-usos-interpersonals-en-llengua-catalana.html>).

THE BALDE (2002-2017) Koldo Almandoz sustatzaile, 89 ale eskuragarri (http://www.thebalde.net/zenbaki_zaharrak.php).

TOPAGUNEA [EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA] (2010) *Zergatik ez?* (<http://topagunea.eus/2015/04/zergatik-ez-euskararen-erabilera-soziala-bultzatzeko-tailerra/>).

TOPAGUNEA [EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA] - GEU ELKARTEA (2015) *BERRIKASI ETA BERRIKUSI txostenaren aurkezpena Gasteizen (2015-12-10)*. (<https://www.youtube.com/watch?v=8-lhBJ8BQxQ>).

TOPALABEA TALDEA [EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA] (2015) «Berrikasi eta Berrikusi - Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako». *Topaberri* 66, 2015, 1-14 (<http://topagunea.eus/2015/06/topaberri-66-berrikasi-eta-berrikusi/>).

URLA, J.; AMORRORTU, E.; ORTEGA, A.; GOIRIGOLZARRI, J.; URANGA, B. (2016) «Authenticity and Linguistic Variety among New Speakers of Basque». In *Language Documentation & Conservation*. Special Publication, 9. V. Ferreira, P. Bouda (eds.), 1-12 (https://scholarspace.manoa.hawaii.edu/bitstream/10125/24655/1/urla_et_al_2016.pdf).

URLA, J.; AMORRORTU, E.; ORTEGA, A.; GOIRIGOLZARRI, J. (argitaratzeko) «Basque Standardization and the New Speaker: Political Praxis and the Shifting Dynamics of Authority and Value». In P.M.J. Lane & J. Costa (arg.). *Standardizing Minority Languages: Competing Ideologies of Authority and Authenticity in the Global Periphery*. Routledge.

VILLASANTE, L. (1988) *Euskararen auxiaz*. 1988, *Luis Eleizalde saila* 9 (http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/villasante/testuak/738.pdf).

WALSH, J. (2011) *Contests and contexts - The Irish language and Ireland's socio-economic development*. Peter Lang, 2011.

XAMAR (J.C. Etxegoien) (1992) *Orhipean*. Iruñea, Pamiela, 1992.

———, (2006) *Euskara Jendea - Gure hizkuntzaren histori, gure historiaren hizkuntza*. Iruñea, Pamiela, 2006.

ZALBIDE, M. (2001): *Fishman-en HINBE edo RLS*. Donostia. Graduondoko HIZ-NET ikastaroko materiala [(2004) *Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE, erabili.com* (http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1086087086)].

ZUBIRI, H. (2013) «Euskal literaturaren irakurleak zenbat eta nolakoak diren aztergai. Soziolinguistikako datuetatik eta irakurketa ohiturei buruzko ikerketetatik abiatuta». *Uztaro* 87, 2013, 51-68 (<http://www.uztaro.eus/artikulua/107/euskal-literaturaren-irakurleak-zenbat-eta-nolakoak-diren-aztergai-soziolinguistikako-datuetatik-eta-irakurketa-ohiturei-buruzko-ikerketetatik-abiatuta/1380>).

ZUBIRI, H.; RETORTILLO, A.; AIERDI, X. (2008) «Euskal hedabideak Euskal Autonomi Erkidegoan». *BAT - Soziolinguistika Aldizkaria* 68, 85-101 (<http://www.soziolinguistika.eus/files/06%20H%20Zubniri%20et%20al.pdf>).

ZUBIRIA, P. (2017) «Zenbatek ulertzen du euskara? 'Egia eredu'k dakarren iraultzak badu mapa berria.» *Argia* 2.543, 2017-02-26, 28-30 (<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2543/zenbatek-ulertzen-du-euskara>).